

Titulua

BALORE-TITULUAK:
KANBIO-LETRA,
TXEKEA ETA ZOR-
AGIRIA

Egilea(k)

Nerea IRACULIS ARREGUI eta Elena
LEIÑENA MENDIZÁBAL

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNeko
ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA**

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA: BALORE-TITULUEN TEORIA OROKORRA

- I. BALORE-TITULUEN GARRANTZIA ETA FUNTZIOA
 - II. BALORE-TITULUAREN KONTZEPTUA
 - III. BALORE-TITULUEN EZAUGARRIAK
 - IV. BALORE-TITULU MOTAK
 - V. BALORE-TITULUEN KRISIA
- GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

2. KAPITULUA: KANBIO-LETRAREN IGORPENA

- I. KANBIO-ADIERAZPENAK
 - II. EZINBESTEKO KANBIO-ADIERAZPENA
 - III. KREDITU-FUNTZIOA BETETZEN DUTEN TITULUEN GAINEKO ZERGEN ORDAINKETA
- GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

3. KAPITULUA: LETRAREN ONARPENA ETA FONDO-HORNIDURA. MESEDE-LETRA

- I. KANBIO-LETRAREN ONARPENA
 - II. MESEDE-LETRA
 - III. HORNIDURAREN LAGAPENA
- GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

4. KAPITULUA: ABALA

- A) KONTZEPTUA
 - B) IZAERA JURIDIKOA
 - C) ELEMENTU PERTSONALAK
 - D) BALDINTZAK
 - E) ABALAREN EFEKTUAK
- GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

5. KAPITULUA: KANBIO-LETRA ESKUALDATZEA: ENDOSUA

- I. SARRERA
 - II. OSOKO ENDOSUA
 - III. ENDOSU MUGATUAK
 - IV. KANBIO-LETRAREN GELDIARAZPENARI BURUZKO BANKUEN ARTEKO HITZARMENA
 - V. ENDOSU BEREZIAK
 - VI. KANBIO-KREDITUAREN LAGAPENA
- GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

6. KAPITULUA: KANBIO-BETEBEHARRAREN BETETZEA

- I. MUGA-EGUNA
 - II. LUZAPENA
 - III. KANBIO-BERRIZTAPENA
 - IV. ORDAINKETARAKO AURKEZPENA
 - V. ORDAINKETA
- GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

7. KAPITULUA: TUTELA PROZESALA. KANBIO-JUDIZIOARI AIPAMEN BEREZIA

I. AIPAMEN OROKORRAK.

II. KANBIO-JUDIZIOA NOIZ DEN BIDEZKOA

III. ESKUMENA.

IV. DEMANDA ETA HAREN KONTROLA

V. ORDAINKETA AGINDEIA ETA PREBENTZIOZKO ENBARGOA

VI. NEURRIAK HARTZEA UKATZEN DUEN AUTOAREN AURREAN

VII. IZAPIDETZA AURKA-JARTZERIK GABE: ORDAINKETA EDO AURKA EZ JARTZEA

VIII. AURKA-JARTZE KANBIARIOA

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

8. KAPITULUA: KANBIO-AKZIOAK ETA KANBIO-ARLOTIK KANPOKO AKZIOAK

I. KANBIO-AKZIOAK

II. ESKU-HARTZEAGATIKO ORDAINKETA

III. KANBIO-ARLOTIK KANPOKO AKZIOAK

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

9. KAPITULUA: KANBIO-LETRARI BURUZKO SALBUESPENEN ARAUAK

I. SALBUESPENEI BURUZKO DOKTRINAREN KOKAERA SISTEMATIKOA

II. SALBUESPENEN AURREBALDINTZAK

III. KANBIO-LETRA ETA TXEKEARI BURUZKO LEGEAREN 67. ARTIKULUAREN ARAUDIA

IV. SALBUESPENEN LEGEZKO KATALOGOA: KANBIO-LETRA ETA TXEKEARI BURUZKO LEGEAREN 67. ARTIKULUAREN AZTERKETA

V. SALBUESPENEN SISTEMATIZAZIOA

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

10. KAPITULUA: SALBUESPENEN KANBIO-ARAUBIDEA

I. KONTZEPTUA ETA LEGEZKO ERREGULAZIOA

II. SALBUESPENEN SAILKAPENA

III. PROPOSATUTAKO SAILKAPENA

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

11. KAPITULUA: KANBIO-LETRAREN IGORPENAREN INGURUKO GORABEHERAK

I. KANBIO-LETRA FALTSUTZEA ETA KANBIO-LETRAREN FALTSIFIKAZIOA

II. KANBIO-LETRA ZURIA

III. LETRAREN ANIZKETA ETA AMORTIZAZIOA

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

12. KAPITULUA: ATZERABIDEZKO KANBIO-ESKUBIDEAK ETA INTERBENTZIOA

I. SARRERA

II. ATZERABIDEZKO KONTZEPTUA ETA EGOERAK

III. PROTESTOA ATZERABIDEZKO ESKUBIDEARI EUSTEKO BALDINTZA

IV. ATZERABIDEZKO ZORDUNAK ETA HAIEN ERANTZUKIZUN-MAILA

V. DIRU-ITZULKETAREN ATZERABIDEA
GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

13. KAPITULUA: KANBIO-ABERASTEA

I. KANBIO-ESKUBIDEAREN PRESKRIPZIOA

II. KANBIO-ABERASTEA

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

14. KAPITULUA: TXEKEA ETA ZOR-AGIRIA

I. TXEKEA

II. ZOR-AGIRIA

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

1. KAPITULUA

BALORE-TITULUEN TEORIA OROKORRA

I. BALORE-TITULUEN GARRANTZIA ETA FUNTZIOA

Balore-tituluek historikoki izan duten garrantzia ezin da zalantzan jarri. Izan ere, egungo ekonomia, funtsean, kreditu-ekonomia da; hartara, kreditua ekonomia-dinamismoaren oinarritzko palanka bihurtu da. Kredituak, izaera guztiz pertsonala ez duen beste edozein eskubide bezala, zirkulazioan jarri behar den balore bat dauka, ondare-balio bat dakarren guztiaren eskualdatzea eskatzen duelako egungo ekonomiak. Horrela, erosleei kreditua eman dien saltzaileak, epemugari itxaron beharrean, nahiago du hirugarren bati kreditu hori eskualdatu, zenbatekoa aldeztatik jasoz, birsaltzeko erosketa berriak egiteko bidera dezakeelako.

Baina, ondare-edukia duten eskubideen eskualdatzea, eskuratzailerentzako ahalik eta segurtasun-gabeziarik txikienarekin eta ahal den modurik azkarren eta sinpleenarekin egin behar da. Hain zuzen ere, balore-tituluen oinarritzko funtzioa kreditu-eskubidearen zirkulazio bizkorra lortzeko tresna izatea da, zuzenbide komunaren berezko kredituaren lagapenaren prozedura arrunta erabiltzeko beharrik izan gabe. Eskubideen eskualdatzeari segurtasuna eta erraztasuna emateko agertu ziren balore-tituluak, kredituen lagapenaren figura zibil zaharrak ez baitzuen ez bata ez bestea lortzen, ezta eskuratzailerari lasaitasun-gradu nahikorik ematen ere.

Eskubideen zirkulazioa —eta bereziki kreditu eskubideen zirkulazioa— egungo ekonomiaren agindu bat baldin bada, kredituen lagapenaren erregimen juridikoak egoki betetzen ez zuena, zuzenbideak balore-tituluak sortu zituen, eta eskubideen eskualdatzea segurua eta azkarra bihurtu zuen.

Kredituen eskualdatzea segurua eta azkarra izateko, eskubidearen zirkulazioa erraztu nahi zenez, eskubidea dokumentu batean gorpuztea erabaki zen, kredituen lagapenaren erregela zibilen aplikazioa saihesteko. Eskubidea, titulu edo dokumentu batean gorpuztea lortzen da elementu biak iraunkorki elkartzen direnean, dokumentua eskutan duenak soilik aipa eta gauza dezakeelarik eskubidea. Gorpuzte-fenomeno horrekin, gorpuzgabea den eskubide bat “gauza bihurtzea” lortzen da, haren zirkulazioa betebeharren zuzenbidearen berezko erregeletatik ateratzeko eta gauzen zuzenbidearen aldeko erregelen menpean uzteko. Eskubidearen eskualdatzea gauza higigarri baten eskualdatze bihurtzen da, eta, horregatik, bere erregimen juridikoaren menpe gelditzen da dokumentua (balore-titulua).

Eskubideen trafikoa gauza higigarrien trafiko bihurtzen da (fede oneko edukitzaren babes-printzipioak zaindua), eta haren erregimen juridikoak abantaila handiak ditu: dokumentuaren fede oneko edukitzaileak dokumentuaren jabetza du, nahiz eta legez kontra eskuraturiko hirugarren bati esker eskuratu (*a non domino* eskurapena);

dokumentuaren jabetzak gorpuztutako eskubidearen titulartasuna ematen du; dokumentuaren edukitza sinpleak edukitzailea legitimatzen du zordunari eskatzeko gorpuzturiko eskubidearen betetzea.

Baina, dokumentua eta eskubidearen arteko bat egite hori eraginkorra izan dadin, beharrezkoak dira honako elementu hauek: dokumentuak adieraztea hitzez hitz eskubidearen edukia eta izaera (“literaltasuna”, perfektua izan daitekeena edo inperfektua, eskubidearen eduki zehatza bestelako dokumentuekin osatu behar denean); dokumentuaren edukitza ezinbestekoa izatea eskubidea gauzatzeko eta, era berean, fede oneko zorduna edukitzagatik legitimaturik dagoenari ordainduz aske geldi dadila; azkenik, dokumentuaren eskuratzailerak gorpuztutako eskubidea izan dezala, kontuan izan gabe aurreko edukitzaileek zordunarekin izandako harremanak (balore-tituluen ezaugarri bat “autonomia” delakoa da).

II. BALORE-TITULUAREN KONTZEPTUA

Gure zuzenbidean ez dago balore-tituluen legezko kontzepturik ezta balore-tituluei aplikagarria den diziplina juridiko bateraturik. Arazoa areagotu egiten da doktrinan bertan ere balore-tituluen kategoriarik buruzko kontzeptu garbi bat falta delako. Dena den, arazoa ez da hain larria zenbait tituluren kasuan: kanbio-tituluekin (letra, txekoa eta zor-agiria) eta traditio bidezko tituluekin ez dago arazorik, balore-tituluen ezaugarri guztiak betetzen dituztelako.

Inguruabar horren aurrean, balore-tituluen kontzeptu zabala proposatzen da, paperean gorpuztutako eskubidea erabiltzeko, agiriaren beharrezko edukitza eta aurkezpena azpimarratzen dituelarik. Dena den, proposamen horren interesari utzi gabe, hobe da balore-tituluen adiera murriztua aukeratzea «eskubide pribatu bat gorpuzten duen agiri gisa, beraren edukitzaren menpe eskubidearen erabilera eta eskualdatzea daudelarik». Adiera horren arabera (nagusi gure doktrinan), agiria ezinbestekoa izango litzateke gorpuzturiko eskubidea erabiltzeko zein eskualdatzeko. Hortik aurrera, kontzeptu horretara guztiz moldatzen ez diren kasuak balore-titulu inpropiotzat hartuko dira, edo legitimazio-titulu hutsak izango dira, balore-tituluen izaerarik gabekoak.

III. BALORE-TITULUEN EZAUGARRIAK

A) Gorpuzturiko eskubidearen jatorria

Agiri batean gorpuzten den eskubidea ez da jaiotzen titulua sortzeagatik soilik, negozio edo kausa desberdin batean baitu jatorria, tituluen jaulkipenaren aurretik gertatzen den batean (adibidez, salerosketa baten prezioaren ordainketa egin behar denean, edo mailegu baten kapitala bueltatu behar denean). Negozio juridiko batetik eratoritzen den obligaziozko harremana da tituluan gorpuzten dena, eta gorpuzte horrek ez du harreman horren alderdi objektiboan zein subjektiboan aldaketarik eragingo. Gorpuzturiko eskubidearen jatorria, beraz, aparteko negozio batean dago (oinarrizkoa, azpikoa). Eta gorpuztearen kausa oinarrizko negozio horren alderdien arteko itun esplizitu edo inplizitu bat izango da. Bestelako kasuetan, gorpuztearen kausa ez da alderdien

borondatea, baizik eta legean bertan aurkitzen dugu (adibidez, sozietate anonimo batean akzioetan gorpuzten den bazkide-kondizioa).

Horregatik, balore-titulu batean bi betebeharrak desberdin elkartzen dira: oinarrizko betebeharra («*extracartacea*») eta betebeharrak kartularra («*cartacea*»), balore-tituluaren jaulkitze-ekintzarekin jaiotzen dena. Bigarren betebeharrak hori betetzen ez den bitartean, oinarrizko negoziotik eratorritako demanda etenda geldituko da (beraz, titulua ordaintzen ez bada, azpiko betebeharra edo betebeharrak kartularraren ordainketa eska daiteke).

B) Balore-tituluen ezaugarriak (ezaugarri arauemaileak)

Balore-tituluak aztertu behar da bere edukitzailearen posizio juridikoa kontuan harturik, berak baitu gorpuzturiko eskubidearen betetzea eskatzeko ahalmena. Hiru ezaugarriak elkartzen dira balore-tituluetan:

a) Edukitzagatikiko legitimazioa: balore-tituluetan gorpuzturiko eskubidea erabiltzeko, nahitaezkoa da agiriaren edukitza; ondorioz, baita zordunarengandik bidezko prestazioa eskatzeko ere. Esaten da balore-tituluak beharrezko aurkezpenezko agiriak direla. Eta ez hori bakarrik, baita beharrezko erreskatezko agiriak (zorduna ordainketara behartuta egongo litzateke agiria ematen zaionean). Edukitzaren garrantzia, jasotzen den eskubidea erabiltzeko zein eskualdatzeko, agirian egiten den eskubidearen gorpuztean datza. Eramailereantzako tituluen edukitzak edukitzailearengan eragiten dituen efektuak oso adierazgarriak dira, eta haiek ahultzeko (lapurtze- edo galtze-kasuetan) amortizazio-prozedura konplexu bati hasiera eman behar zaio.

Tituluaren edukitza jasotako eskubidea erabiltzeko ezinbestekoa bada ere, horrek ez du esan nahi kasu guztietan edukitza soilik baldintza nahikoa denik eskubide horren betetzea eskatzeko. Lehendabizi, tituluaren edukitza baldintza nahikoa izango da eskubidearen betetzea eskatzeko eramailereantzako tituluetan (“legitimazio hutsa” dakarten tituluak), nahiz eta edukitza fede txarrekoa izan, zordunak inguruabar hori ez badu ezagutzen behintzat. Bigarrenik, titulu izendunetan eta agindurako tituluetan, tituluaren edukitza ezinbesteko baldintza da eskubidea erabiltzeko, baina ez da nahikoa.

Eskubidea titulu batean gorpuzteak eta gauza higigarrien zirkulazio arauen menpean egoteak posible egiten dute bereiztea eskubidearen subjektu titularra (tituluaren jabea) eta eskubidea erabiltzeko formazko legitimazioa duen subjektua (tituluaren edukitzailea). Edukitzagatikiko legitimazioak sinestazten du agiria duena eskubidearen titularra dela, eta zordunaren zama da edukitzagatik legitimatuaren titulartasun falta frogatu beharra. Beraz, legitimazioa bizkortzeko forma hori onuragarria da hartzekodunarentzat, eskubidearen erabilera errazten diolako (legitimazioaren alderdi aktiboa), eta baita zordunarentzat ere, bere betebeharrak aske gelditzen delako tituluaren edukitzaileari fede onez ordaindu diola frogatuz gero, nahiz eta azken hori eskubidearen titularra ez izan (legitimazioaren alderdi pasiboa).

b) Literaltasuna edo abstrakzioa: eskuratzaileari ematen zaion babesak adierazten da,

gorpuzturiko eskubidearen izaera, eremua eta edukia agirian jasotzen den idazkeran adierazten denaren bitartez mugatuko baitira. Zordunaren eta hartzekodunaren arteko harremanak tituluak adierazten duenarekin erregulatuko dira, gorpuzturiko eskubidearen edukia eta erregimena edozein izanda ere, eragin zuen negozioaren arabera. Horrela, literaltasuna mesedegarria da hartzekodunarentzat zein zordunarentzat, edukitzaileak bere prestazioa tituluan ezartzen direnak ez bezalako hitzetan eskatzea galarazten duelako.

Literaltasuna ez da balore-titulu guztietan intentsitate berarekin aurkezten. Perfektuak edo osoak delakoetan, eskubidea zeharo gorpuzten da, eta agiriaren idazkerarekin muga daiteke (adibide argiena kanbio-letra da). Osagabe edo kausaletan, berriz, gorpuzturiko eskubidea bere edukian osatzeko ez dira nahikoak agirian ezarritako oharrak, eta bestelako agirietara igortzen da (hala gertatzen da sozietate anonimoetan akzioekin: akzioen eskubideen eduki zehatza jakiteko, agiriaz gainera, estatutuak eta sozietate-organuek hartutako akordioak ere kontsultatu behar dira). Kasu horietan, literaltasuna aurkezten da, baina motelduta.

c) Autonomia: ezaugarri honek tituluaren hirugarren eskuratzaileren posizio juridikoa adierazten digu. Balore-titulua eskualdatzen denean, hirugarren eskuratzailak bereganatzen duen eskubidea autonomia da, tituluaren zordunaren eta aurreko titularren artean izan diren harreman pertsonalek ez baitute kaltetzen. Ezaugarri horren bitartez fede oneko hirugarren eskuratzaileri babes ematen zaio eremu juridiko-errealan. Ondorioz, tituluaren zordunak ezin dio fede oneko hirugarren edukitzaileari aurre egin jatorrizko edukitzailearekin dituen harreman pertsonaletan oinarritutako salbuespenekin (salbuespen pertsonalekin aurka egiteko ezintasuna). Edukitzaile bakoitzak gorpuzturiko eskubidea *ex novo* eskuratzen du, jatorrizkoa balitz bezala, bere transmititzailearen posizio pertsonalean subrogatu gabe. Bigarren eta ondorengo eskuratzaileren posizio juridikoa tituluan ezarritako oharrek mugatzen dute, eta ez zorduna eta hasierako edukitzailea lotzen zituzten harreman pertsonalek. Horregatik, esan daiteke gorpuzturiko eskubidearen autonomia literaltasun-printzipioaren ondorio —eta, aldi berean, osagarri— dela. Gorpuzturiko eskubidearen eskurapenean autonomia eskatzea exijentzia bat da, titulu batean gorpuzturiko eskubideen eskualdatzea sustatzeko eta babesteko beharrak inposatua. Zordunak aukera izango balu tituluaren eskuratzailer berri bakoitzari aurka egiteko aurreko eskuratzailerikiko harreman pertsonaletan oinarritutako salbuespenekin (bere betebeharra ukatuz, gutxituz edo atzeratuz), hirugarrenek ez lukete balore-titulurik eskuratuko, eta zaildu egingo litzateke eskubidearen eskualdatzea.

Hortaz, eskubidearen autonomiaren irizpide horrek ez du eraginik zordunaren eta jatorrizko hartzekodunaren artean —tituluaren lehen edukitzailea da jatorrizko hartzekoduna—, haien arteko harremanak oinarritzko negozioak menderatzen dituelako, oinarritzko negozio hori agiri batean gorpuzturiko eskubidearen kausa edo iturria dela kontuan izanik. Balore-tituluen eskualdatzearen babes dela-eta, agiriaren jatorrizko edukitzaileak titulu bigarren edukitzaile bati eskualdatzen dionean azalduko da autonomiaren irizpidearen garrantzia. Hortik aurrera, juridikoki ez du garrantzirik izango gorpuzturiko eskubidearen edukia salerosketa baten prezioa zein mailegu baten itzultzea izan. Hirugarren eskuratzaileren eskuetan kreditu hutsa bihurtuko da, aurreko edukitzailearen eskuetan apaintzen zuen egoera pertsonaletik urrunduta.

C) Balore-titulu inpropioak

Aipaturiko hiru ezaugarriak, neurri handi edo txiki batean, dituzten balore-tituluen aurrean (agiri batean eskubide bat gorpuztearen ondorioa, haren eskualdatzea erraztu nahian), errealitateak erakusten digu balore-titulu inpropioak badaudela. Titulu horiek bereziki legitimazio-funtzio bat betetzen dute, zenbait eskubide erabiltzeko balio dutelako eta baita zorduna, agiriaren edukitzaileari ordainduz, bere betebeharretik aske gelditzeko ere (horregatik, legitimazio-titulu izenarekin ere ezagutzen dira). Adibide gisa, arropa-zaindegi baten fitxa, konpontzeko utzitako gauzen frogagiriak, edo banku baten leihatilan jasotako pasahitza aipa daitezke. Kategoria honen barruan ere sartuko lirateke agiri frogagarriak delakoak (lurreko garraioaren garraio-gutunak).

Titulu horiek ez dira eskualdatzeko sortzen (beraz, haien zirkulazioa ez dago bereziki babestua). Eskubidea ez da agirian gorpuzten, aipatutako literaltasuna falta baita. Horregatik, titulu horiek batzuetan posible egiten dute titularrak bere eskubidea erabiltzea agiriaren edukitza izan gabe, bere titulartasuna bestelako bideetatik frogatuz. Eskubidearen titulartasuna eta edukia ezartzeko, agiritik kanpo dauden elementuetara joatea errazten da. Zorduna askatzen da benetako hartzekodunari ordaintzen badio, hartzekodunak agiria ez izan arren. Eta, azkenik, zordunak uko egin diezaiokie prestazioa betetzeari, eta agiria erakusten duenari titulartasunaren froga eska diezaiokie.

Azken finean, balore-titulu inpropioak betebeharraren baten exekuzioa alderdien artean errazteko balio duten agiri hutsak dira. Zorduna bere zorraz azkar eta erraz liberatuko da, eta hartzekodunak zor zaion prestazioa azkar eta zehatz jasoko du.

IV. BALORE-TITULU MOTAK

Balore-tituluak sailkatzeko irizpideen artean, hauexek azpimarratzen ditugu:

a) Jaulkitzeko moduaren arabera, bakarka eta seriean jaulkitako balore-tituluak. Lehenengo artean, kanbio-tituluak daude: letra, txekia eta zor-agiria. Bigarrenek jaulkipen-negozio batean dute jatorria (adibidez, sozietate anonimo bat eratzea edo kapital soziala gehitzea). Negozio juridiko hori dela-eta agiri-serie bat jaulkitzen da, ezaugarri eta eduki bera dutenak. Balore higigarriak kontsideratzen dira, betetzen duten funtzioa kontuan harturik, hau da, jaulkitzaileari inbertsorearengandik finantza-baliabideak lortzen laguntzea. Sozietate anonimoen akzioak balore higigarrien adibide paradigmaticoa izango lirateke. Dena den, eskema hori lausotu egiten da kontuan hartzen bada ezen, egun, akzioak tituluen zein kontuan egindako idazpenen bitartez adieraz daitezkeela (azken horiek, definizioz, ezin dute merezi balore-tituluaren kondizioa). Hala ere, legeak aitortzen du kasu batean zein bestean akzioak balore higigarriak kontsideratuko direla. Balore higigarriaren nozio hori (balore-tituluen eskemari esker eratua) eguneratu egiten da balore negoziagarriaren ideiarekin. Balore negoziagarriaren nozioak desberdina den diziplina aplikatzeko erreferente objektiboa markatzen du. Diziplina hori Balore Merkatuko Zuzenbidea izango litzateke, arrasto publiko sendoa duena.

b) Gorpuzturiko eskubideak duen izaera edo edukiaren arabera, tituluak hiru motatakoak izan daitezke. Ordainketa-tituluak, agiriak ezartzen duen unean eta forman, diru-kantitate bat ordaintzearen betebeharra gorpuzten dutenak (kanbio-letrak, txekak eta obligazioak). Partaidetza sozialeko tituluak, sozietate baten bazkide-kondizioa ematen eta gorpuzten dutenak (sozietate anonimo baten akzioak; erantzukizun mugatuko sozietate baten partizipazioak, ordea, ez dira tituluen bitartez adierazten, eta ez dute balore-izaerarik). Titulu horiek balore-tituluak dira, baina literaltasunaren irizpidea ez da era osoan azaltzen, tituluen edukia tituluaz ezartzen ez diren aparteko aipamenekin osatu behar delako (adibidez, estatutu sozialekin). Azkenik, traditio bidezko tituluak ditugu, bere edukitzaileari aipaturiko salgaien itzultzea eskatzeko ahalmena ematen diotenak. Titulu horien edukitzaileak salgaien berehalako edukitza dauka —salgaiak xedatzeko boterearekin, beraz— tituluaren eskualdatze soilaren bitartez (ontziratze-agiriak eta gordailurako biltegi nagusien frogagiriak).

c) Agiriaren eta bertan gorpuzturiko eskubidearen titularra izendatzeko formaren arabera, tituluak hiru motatakoak izan daitezke. Eramailearentzako tituluak, bere titularraren datu pertsonalak ezartzen ez dituztenez, edukitza soila izateagatik gorpuzturiko eskubidea erabiltzeko legitimazioa ematen dute (adibidez, eramailearentzako akzioa edo eramailearentzako txekia). Ondorioz, eskualdatzea erabat erraza gertatzen da, edukitza lagatzearekin nahikoa baita eskuratzailer berria legitimatzeko. Agindurako tituluetan, ordea, gorpuzturiko eskubidea lehenengo eskuratzaileraren agindura bete behar da (identifikazio-datuak agirian ezarriz) edo ondorengo eskuratzaileraren agindura, eta, endosuaren bitartez, titulua eskualdatuko zaie. Beraz, titulu izendunak dira, zirkulaziora deituak agirian bertan idatzitako adierazpen baten bitartez (adibidez, kanbio-letra). Azkenik, zuzenak diren titulu izendunak, eskubidearen titularraren identifikazio-datuak jasoz, zirkulaziorako bere jaulkitzailearen kolaborazioa behar dutenak. Titulu horietan, titularrak ezin du alde bakarreko eskualdatzerik egin, endosua baztertuz. Eskualdatzerako, kredituak lagatzeko erregela orokorrak jarraitu behar dira, eskubidearen zirkulazioa errazteko bideratuta ez dauden agiriak baitira. Gainera, titulu horiek aurkeztu beharrekoak dira, baina ez dute legitimaziorik eskaintzen, legitimazio aktiboa falta zaielako (eramailearentzako eta agindurako tituluen ezaugarria). Inguruabar horiek kontuan harturik, zalantzan jar daiteke titulu zuzenak, zentzu mugatuan ulertuta, balore-tituluen barruan sar ote daitezkeen.

V. BALORE-TITULUEN KRISIA

Balore-tituluen dudarik gabeko arrakastak krisia ekarri du. Arrakasta horrek negozioen mundua tituluz betetzea eragin du, dokumentu-masifikazioa bat gertatu da, eta tituluakiko benetako menpekotasuna eta esklabotasuna ezarri da. Horregatik, paradoxikoa ematen badu ere, esaten da balore-tituluen arrakastak eragin duela haien krisia edo, beste hitzetan, bere arrakastaren biktimak izan direla. Tituluen erabilerak eragiten zituen zailtasunak gainditzeko, sistema informatiko eta kontableak erabiltzen dira. Sistema horien ondorioz, bigarren mailako merkatu ofizialen eremuan ez da titulurik jaulkitzen, edota, jaulkiz gero, ibilgetze gelditzen dira merkataritza-efektuen eremuan. Ondoren, bi gai hauek aipaturiko ditugu:

A) Kapitalen merkatuaren eremuan, euskarri informatizatua paperezko dokumentuaren ordezt

Prozesu honetan, lehendabiziko pausoa apirilaren 25eko 1128/1974 Dekretuarekin eman zen. Dekretu hori balore higigarrien gordailuari eta burtsako eragiketen konpentsazio-eta kitapen-sistemari buruzkoa zen. Arau horren abiapuntua zen, praktikan, burtsan kotizatzen zuten titulu gehienak ez zeudela bere jabeen aginte fisikoan, kreditu-erakundeetan gordailatuak baizik. Hortaz, tituluak eskualdatuz, gordailu-lekua eta gordailuzainaren aldaketa hutsa besterik ez zen egiten. Berrikuntza izan zen tituluak immobilizatzea entitate gordailuzainetan eta haien ordezkatzeko-egokimena aitortzea. Horrela, sisteman sarturiko tituluen kopuru osoa gordailatua mantentzen da, eta zirkulazio juridikoa hutsa da. Hau da, eskualdatzeak, sistema informatizatu batean idatziz, pertsona zehatz bati dagokion titulu kopurua egozte baimentzen duten erreferentziak jasotzen ditu.

Pauso hori emanda, zalantzan jartzen da ez bakarrik gordailaturiko tituluak zaintzeko toki handien beharra, baita gordailuan eta geldirik egongo diren dokumentuen existentzia fisikoaren erabilgarritasuna bera ere. Horregatik, paperezko dokumentuaren ordezt, kontuan egindako idazpenen sistema ezartzea erabaki zen. Titulurik ez jaulkitzeko aukera jasotzen duen lehenengo araua otsailaren 12ko 656/1982 Errege-Dekretua izan zen, zor publikoaren jaulkipenari buruzkoa, altxorraren zor-agiriak Espainiako Bankuan kontuan egindako idazpenetan gauza zitezkeela adierazi zuenean. Gerora, apirilaren 3ko 505/1987 Errege-Dekretuak, Estatuaren zorarentzat kontuan egindako idazpenen derrigorrezko sistemaren eraketa ezarri zuen. Balore-merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeak kontuan egindako idazpenetan adierazita dauden baloreentzat legezko erregimen orokorra ezarri zuen. Behin betiko pausoa 19/1989 Legearekin emango zen, eta baltzu anonimoen testu bateginarekin, han kontuan egindako idazpena, akzioen (51. eta 60. artikulua) eta obligazioen (290. artikulua 1. eta 3. ataletan) adierazpide bide posible gisa agertzen baita, eta kasu honetan ere balore higigarrien kontsiderazioa izango dutela ezartzen baita. Bestalde, baltzu anonimoen legearen testu bateginan, Lehenengo Xedapen Gehigarrian, 5. atalean, ezartzen da bigarren mailako merkatu ofizialean kotizatze onartuak izan nahi duten akzioak zein obligazioak ezinbestean kontuan egindako idazpenen bitartez adierazi behar direla. Ondorioz, egun, balore-burtsan zein zor publikoko merkatuan, tituluak desagertu egin dira.

Eragiketen arloan, esaten da kontuan egindako idazpenen bitartez adierazitako baloreen eskualdatzea kontu-transferentziaren bitartez egingo dela, eta eskuratzailaren onerako eskualdatzearen inskripzioak tituluak ematearen efektu berberak izango dituela (Balore Merkatuko Legearen, 9.1 artikulua). Beraz, itxurazko emate modu bat ezartzen da, eta gainera, fede oneko eskuratzaila babesten da, esaten denean «Erregistro kontablearen arabera eskualdatzeko legitimaturik dagoen pertsona batengandik kontuan egindako idazpen bidez adierazitako baloreak kostu bidez eskuratzen dituen hirugarrena ez da errebindikazioaren mende egongo, eskuratzeko unean fede txarrez edo erru larriz jokatu ez badu» (Balore Merkatuko Legearen 9.3 artikulua).

Legitimazioari dagokionez, Balore Merkatuko Legeak, 11. artikuluan, ezartzen du Erregistro kontablearen idazpenetan inskribatuta agertzen den pertsona titular legitimoa

konsideratuko dela, eta legitimazio hori Erregistro kontableak daramatzaten entitateak emandako ziurtagiriak erakutsiz egin daitekeela. Baina, ziurtagiri horiek legitimaziorako baino ez dute balioko; beraz, ematen zaien beste edozein erabilera deuseza izango da.

B) Tituluen ibilgetzea merkataritzako efektuen eremuan

Ibilgetzea gertatzen da merkataritzako efektuen kudeaketan kreditu-entitateek parte hartzen dutenean, dokumentuen erabilerak eragiten dituen kostu altuak eraginda. Beraz, abiapuntu bezala, merkataritzako efektuek, bide elektronikotik kudeatuak izateko, kreditu-entitate batean helbideratuak egon behar dute; halaber, merkataritzako efektuaren titularrak edo edukitzaileak kreditu-entitate bat izan behar du. Kudeaketa hori posible egiteko, Espainiako Bankuan konpentsazio elektronikorako nazio-sistema bat eratu da.

Sistema horren bitartez, jaso dituen sukurtsalean geldiaraz ditzakete efektuak merkataritzako efektuen kreditu-entitate edukitzaileek, titularrak zein kobrantzarako mandatariak direlako, eta, titulua ordainketa helbideratuta dagoen entitateetara bidali beharrean, tituluetan jasotako datu guztiak sistema elektronikoaren bitartez bidal ditzakete. Entitate horiek, kontuetan dauden idazpenen bitartez, efektu horiek direla-eta haien artean sortzen diren kredituak eta zorrak konpentsazioz kitatzen dituzte.

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Arroyo Martínez, I., «Reflexiones en torno a los denominados títulos valores impropios y documentos de legitimación», *Revista de Derecho Mercantil*, 210, 1993, 1189. or. eta hurrengoak.

Bercovitz, A., «El Derecho del mercado de capitales», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 29, 1988, 67. or. eta hurrengoak.

Eizaguirre, J. M.^a, «Bases para una reelaboración de la teoría general de los títulos valores», *Revista de Derecho Mercantil*, 163, 1982, 7. or. eta hurrengoak.

— «La opción por un concepto amplio de título-valor», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 57, 1995, 9. or. eta hurrengoak.

Olivencia, M., «La incorporación del derecho al título y su desincorporación (Análisis histórico y dogmático)», *Anotaciones en Cuenta de Deuda del Estado*, Madrid, 1987, 11. or. eta hurrengoak.

Palá Berdejo, F., «Contribución al estudio de los títulos nominativos», *Revista de Derecho Mercantil*, 35, 1951, 165. or. eta hurrengoak.

Paz-Ares, C., «La desincorporación de los títulos valor», *Revista de Derecho Mercantil*, 219, 1996, 7-34 or.

Santos, V., «Tratamiento informático de los efectos bancarios a través de la banca», *Estudios Verdadera*, III. Liburukia, 2449. or. eta hurrengoak.

Zunzunegui Pastor, F., «El valor anotado en cuenta y su régimen jurídico», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 56, 1994, 826. or. eta hurrengoak.

2. KAPITULUA

KANBIO-LETRAREN IGORPENA

I. KANBIO-ADIERAZPENAK

Kanbio-letraren igorpena egitate juridiko bat da. Egitate juridiko horren bidez, dokumentu juridiko bat eratzten da, kanbio-letra alegia, eta dokumentu hori hirugarren bati ematen zaio aurretik dagoen zor bat ordaintzeko (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legea –KLTL hemendik aurrera- 1. artikulua).

Dokumentu horren bitartez, eskubide kartularra eratzten da kanbio-letraren hartzailearen alde eta zordunaren aurka (igorlearen kontra). Eratu den egoera berri horrek harreman eta arau juridiko desberdinak sortzen ditu aurreko egoerarekin (oinarrizko erlazioarekin) alderatuz gero. Egoera berri horrek tituluaren izaera-egikariztailea dauka oinarri.

Eratze-izaera hori kontuan hartuz, kanbio-letrak Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluek jasotzen dituzten forma-betebeharrak izango ditu. Haietako bat igorlearen sinadura da. Dena den, gaiari neurriko hurrenkera ematearren, igorlea eta haren inguruko ezaugarriak aztertu baino lehen, kanbio-adierazpenak haztatuko dira hurrengo lerroetan.

1. Kanbio-adierazpenaren izaera juridikoa eta eraginkortasuna

Kanbio-adierazpena da kanbio-letraren gainean egindako sinadura edo edozein izenpetze-egintza. Hori egiten duenak dokumentuaren *edukitzaileari* edo bidezko eramaileari ordaindu beharko dio geroago.

Adierazpen horrek oinarritzko izaera dauka. Adierazpen hori jaso gabe, kanbio-letrarik ez da sortuko, zeren Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak eskatzen dituen derrigorrezko betebeharrak ez baititu beteko. Horren ondorioz sortutako diru-betebeharra ez da eskuratzerik egongo dokumentu horren bitartez.

Hala ere, hainbatetan, letra zuriaren kasuan alegia, kanbio-adierazpenak harpidedunaren sinadurarekin soilik ere balio juridikoa izango du.

Gainerako kanbio-adierazpenek (onarpena, endosua, abala, etab.) ez dute derrigorrezko izaerarik. Kanbio-letra baldintza horiek gabe ere zilegia da.

Kanbio-adierazpenak Zuzenbideko gainerako adierazpenen izaera juridiko berbera dauka. Hau da, Betebarren Zuzenbidearen edo Zuzenbide Pribatuaren edozein aukerazko adierazpenek dituen ezaugarriak dauzka. Hori dela eta, kanbio-adierazpenak negozio-izaera dauka, eta *borondatezko autonomiaren printzipioan* oinarritzen da (ZK 1255. artikulua). Kanbio-adierazpenaren muga bakarra zera da, derrigorrezko arauak edo Aginduzko Zuzenbideak jartzen dituzten baldintzak. Horiek salbuespenik gabe bete beharko ditu.

Hori kontuan hartuz, derrigorrezko Kanbio-Zuzenbideak kanbio-adierazpen hauek tipifikatu ditu: igorpena, onarpena, endosua eta abala. Ez dago kanbio-adierazpen gehiagorik. Zerrenda hau *numerus clausus* da. Beraz, legearentzat zerrenda itxia da.

Esan dugunaz gainera, aztertzen ari garen kanbio-adierazpenen artean batzuk *autonomoak* ere badira. Horrek zera esan nahi du, dokumentuan egon daitezkeen gainerako adierazpenen artean bat deuseza izanez gero, baliogabeko adierazpenak ez duela inolako eraginik izango eta aurreko kanbio-adierazpenak baliozkoak izango direla (KLTL 8. artikulua). Esandakoa argitzeko adibiderik adierazgarrienetako bat honako hau da: kanbio-letra ezgai batek sinatzen duenean edo sinadura hori faltsua denean, dokumentu horretan geroago sinatu dutenen adierazpenak ez dira indargabetuko. Gauza bera gertatzen da txekuekin eta zor-agiriarekin (KLTL 96.2 eta 116.1 artikulua).

2. Tituluaren sinatzaileak hartzen duen betebeharraren oinarria. Doktrinaren eztabaida.

Tituluaren sinatzaileak hartzen duen betebeharraren oinarriari buruzko eztabaida teorikoa *balore-titulu berezietan* ere jasotzen da. Baina jarrai dezagun kanbio-letraren sinatzaileak edo harpidedunak sinatzeko duten zioa aztertzen; hau da, zergatik onartzen duen harpidedunak zor horren ardura.

Azterketa behar bezala egiteko, aurretik bi gai bereizi behar ditugu. Batetik, kanbio-adierazpenak adierazi ohi du aldeztu aurretik *emate-kontratu bat*¹ egon dela. Emate-kontratu horren sinatzaileak (*tradens*) hartzaileari (*accipiens*) dokumentua ematen dio, emate horretan jasotzen baita sinatzaileak betebeharra hartzeko duen borondatea (ZK 1809. artikulua). Bestetik, hartzaileak, *accipiens* delakoak, dokumentua jasotzen duenean, agerian uzten du sinatzailearen aurkako *kreditu-eskubidea* duela eta horren jabea dela.

Aurrekoa kontuan hartuz, fede oneko hirugarrenaren eskubideak babesturik daude. Hau da, fede oneko hirugarren batek dokumentu akastuna jasotzen badu eta tituluaren akatsak ezagutzen ez baditu, benetako eskubidearen *itxura juridikoaren teoriaren arabera*, haren eskubideak babestuta geratuko dira. Izan ere, horrelakoetan fede oneko hirugarrenaren eskubideak ez dira babestuko kontratu-teoriaren kontzeptzioaren bidez baizik eta egiten den kanbio-adierazpenaren bidez. Horregatik, kanbio-letraren harpidedunaren eta hirugarren horren arteko harremana ez da emate-kontratu batean oinarrituko, baizik eta harpidedun horrek borondatez egin duen harpidetzan edo sinaduran.

Esan bezala, fede oneko hirugarrenari itxura juridikoaren teoriak emango dio babes. Teoria horren arabera, balio juridikorik ez duen negozio bat bidezko bihur daiteke baldintza hauek betetzen badira: a) Lehendabizi, dokumentua behar bezala formalizatua egongo da (KLTL 1. eta 2. artikulua); b) Bigarrenik, fede oneko hartzailea *hirugarren bat* izango da, eta konfiantza osoa izango du egiten ari den ustezko harreman horretan; c) Hirugarrenik, egitatea Kanbio Zuzenbideak babestuko du, letra *kostu bidezko* egintza baten ondorio gisa tratatuz eta dokumentuaren hartzaileak, *accipiens* delakoak, jasoko

¹ “Contrato de entrega” delakoa (*Begebungsvertrag*)

duen onura babestuz; d) Konfiantza-egoera sinatzaileak berak sortuko du dokumentua sinatzen duenean.

3. Kanbio-gaitasuna

Datozen lerroetan kanbio-gaitasunaz arituko gara. Gai honek bi alderdi ditu. Batetik, kanbio-gaitasuna *stricto sensu*, eta bestetik, eskuarki betebeharrak hartzeko eratzen den kanbio-gaitasuna. Bata zein bestea Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen arauak erregulatzen dute. Hala ere, besterik ezean zuzenbide pribatuko arau orokorretara joko da.

Gai honi dagokionez, bi kontzeptu hauek ere bereizi behar dira: batetik, gaitasun juridikoa, eta bestetik, kanbio-gaitasuna. Lehen esan bezala, gai honetaz Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak erregulatzen ez duena zuzenbide pribatu orokorrek erregulatuko du. Azter ditzagun biak banan-banan:

1. *Kanbio-Gaitasun juridikoaz* ari garenean, kanbio-letra baten eskubide eta betebeharren titularra izateko beharko den gaitasun juridiko orokorraz ari gara. Hau da, pertsona fisikoek (ZK 29. artikulua) edo pertsona juridikoek (ZK 38. artikulua) negozio juridiko bat egin ahal izateko behar duten gaitasun orokorraz ari gara.

Kode Zibilak pertsona juridikoaz ematen duen definizio zabalak erraztu egiten du kontzeptu horren barruan mota desberdinetako pertsona juridikoak sartzea, besteak beste, nortasun juridikoa duten hainbat instituzio edo erakunde; ondasun-erkidegoa izango litzateke haietako bat. Hori dela eta, Jabetza Horizontalaren Legeak (hemendik aurrera, JHL), 13.3 artikuluan, ondasun-erkidegoko presidenteari ordezkari organiko pasiboa esleitzen dio jabeakidetzaren ordezkari dezan. Legitimazio horrek kanbio-gaitasun juridikoa izateko ordezkari ematen dio.

Pertsona fisikoa hiltzen denean, berriz, kanbio-gaitasun orokorra galdu egiten du. Dena den, haren ondorengoek, herentzia institutuaren bidez, hark zituen eskubide eta betebeharrak guztiak jasoko dituzte, haien artean kanbio-eskubide eta betebeharrak ere bai. Edonola ere, ondorengoek derrigortuta daude alde aurretik herentzia onartzera. Hori egin ezean, ondorengoek aipatutako eskubide eta betebeharrak ez litzateke eskuratuko.

2. *Betebeharrak hartzeko kanbio-gaitasunaz* ari garenean, kanbio-adierazpenak igortzeko behar den gaitasun orokorraz ari gara. Gaitasun hori izateko, pertsonak gaitua behar du izan, Kode Zibilaren 322. artikuluan arabera. Beraz, adin txikikoek eta ezgaiek (ZK 1263. artikulua) eta konkurtsatu ezgaiek (ZK 1914.1 eta MK 878.1 artikulua) ez dute kanbio-betebeharrak hartzeko gaitasunik izango. Adingabe emantzipatuen kasuan, aldiz, gurasoen edo tutorearen baimena beharko dute horrelako betebeharrak beren gain hartzeko (KZ 323.1 artikulua).

Aurrekoa dela eta, ezgai bat ez da sekulan kanbio-letra bat sinatu izanaren erantzule izango. Horrelakoetan, nahiz eta fede oneko hirugarren bat izan harpideduna edo sinatzailea, ez du babesik izango. Kanbio-letra igorri duenaren gaitasunik ez izatea aurkagarria izango da beti fede oneko hartzailearen aurrean (KLTL 8. artikulua).

4. Kanbio-ordezkaritza

Gainerako aukerazko adierazpenetan bezala, kanbio-adierazpenak sinatzailearen edo harpidedunaren ordezkari batek ere egin ditzake. Kanbio Zuzenbideak bi arau nagusi ditu horren inguruan. Batetik, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 9. artikulua, eta bestetik, 10. artikulua. Azken horrek *itxura juridikoaren teoriak* fede oneko hirugarrenari ematen dion babesia jasotzen du, hain zuzen.

Ordezkaritza-teoria orokorraren arabera, kanbio-letra ordezkatzailer batek sinatzen duenean, hark egindakoaren ondorioak ordezkatuarentzat izango dira. Hala ere, ordezkaritzarako ahalmenik ez dagoenean edo sinatzaileak sinadura faltsua erabili duenean, sinatu duenak berak erantzungo du.

Beraz, ikusi dugunaren arabera, kanbio-ordezkaritzan *contemplatio domini* delakoa gertatuko da halabeharrez (KLTL 9. artikulua). Hau da, ahalordetza dagoenean, ordezkariak agerian utziko du beste baten kontura ari dela. Horren ondorioz, ordezkaritzak kanbio-adierazpena egiten duenaren alde egingo du, eta negozio juridikoaren ondorioak ordezkatuari esleituko zaizkio.

Ordezkaritza-izaera hori gauzatzeko, maiz erabili ohi da ordezkatuaren zigilua. Tresna ezin hobea da ordezkaritzak duen eraginkortasuna gauzatzeko. Horrela egingo ez balitz, sinatu duenak erantzungo luke negozioaren ondorioez, eta ez ordezkatuak. Merkataritzako sozietateetan ordezkari organikoa duten administratzaileek kanbio-betebeharrak hartzeko ahalordetza dutela suposatuko da (KLTL 9. artikulua), beti ere objektu sozialaren barruan jarduten badute.

Ahalordetzarik ez dagoenean (*falsus procurator*), aldiz, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 10. artikulua erregulatzen du ordezkari faltsu horren ondorio juridikoei buruzko erantzukizuna. Horrelako jarduera baten ondorioak konpontzeko, lehen, ZK 1259. artikulura jotzen zen. Horren arabera, *dominus negotii* delakoak *falsus procurator* delakoak egindakoa berresten ez bazuen, inork ez zuen ez-bidezko egintza horretaz erantzuten. Gaur egun, berriz, ez da horrelako interpretaziorik egiten, ahalordetzarik gabe sinatu duen ustezko ordezkaria edo bere ahalordetza-eremutik at jarduten duena da kanbio-letra sinatu izanaren erantzulea. Nolanahi ere, ustezko ordezkari horrek kanbio-letra ordaindu eta zorra kitatzen badu, letraren gaineko eskubideak ere izango ditu. Halaber, baten batek irudizko pertsonen izenean edo pertsona ezgaien izenean kanbio-letra bat sinatzen badu, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 10. artikulua hori aplikatuko zaio.

Azkenik, ordezkaritzari dagokionez, kasu hau ere aipagarria dugu. Ordezkariak ordezkatuaren sinadura faltsua erabiltzen badu, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 10. artikulua aplikatuko da. Izan ere, *falsus procurator* baten aurrean aurkitzen gara. Beraz, ordezkariak berak erantzun beharko du, eta ez ordezkatuak.

II. EZINBESTEKO KANBIO-ADIERAZPENA

1. Igorleak hartzen duen betebeharra (KLTL 11. artikulua)

Lehen esan dugun bezala, igorpena ezinbesteko kanbio-adierazpena da. Igorleak berak egin behar du, eta, hori egin ezean, kanbio-letra ez da sortuko (KLTL 1. eta 8. artikulua), zeren eta Legeak eskatzen dituen betebeharrak ez baititu beteko. Dena den, igorleak egiten duen adierazpena baliogabea bada, kanbio-letra sortu sortuko da, baina ordainketa gainerako kanbio-adierazpenen arabera gauzatuko da.

Aurrekoa kontuan harturik, esan beharra dago igorleak, kanbio-letra sinatzen duenean, ez duela esaten berak ordainduko duenik. Alderantziz, hark igorpenduari diru kopuru bat ordaintzeko agintzen dio (zorraren delegazioa edo eskuordetzea ematen dio) eta igorpenduak mandatu hori bete egin beharko du. Igorpenduak mandatua egiten ez badu, igorleak egin beharko du, hau da, ordaindu egin beharko du. Beraz, igorleak, kanbio-letra sinatzen duenean, ordainketa bermatu egiten du (KLTL 11. artikulua). Gauza bera gertatzen da txekeari dagokionez; zor-agiriari dagokionez, aldiz, ez. Zor-agiriaren kasuan, dokumentua sinatu duenak ordainketa berak egingo duela hitzartzen du.

Esan bezala, kanbio-letraren igorleak, letra sinatzen duenean, ez du adierazten ordainketa berak egingo duenik. Egiten duen gauza bakarra ordainketa bermatzea da (KLTL 11. artikulua). Hori kontuan hartuz, berme hori ekiditeko, igorleak aukera bat baino gehiago ditu. Batetik, letra ez onartzea, eta, bestetik, kanbio-letra baten eskualdaketa mugatzeko edo debekatzeko onarpenari buruz Legeak jasotzen dituen aukerak erabiltzea (KLTL 14.2 eta 26. artikulua).

2. Kanbio-letraren interpretazioa: kanbio-formaren zorrotasun-printzipioa

Forma-betebeharrak zehaztu baino lehen, dokumentuak jaso ditzakeen klausulen interpretazioa aztertuko dugu. Atal honetan, *kanbio-formaren zorrotasun-printzipioak* hartzen du indarra. Printzipio honen arabera, kanbio-letra batek jasotzen dituen klausula eta adierazpen guztiak edonork berdin interpretatu eta ulertu behar ditu. Hori dela-eta, klausula bati buruz bi interpretazio baldin badaude, bat letraren baliozkotasuna aldarrikatzen duena eta bestea deuseza egingo lukeena, azken hori hartuko litzateke aintzat *autointegrazioaren* printzipioaren arabera.

Autointegrazioaren printzipioak bi atal nagusi ditu. Batetik, heterointegrazioa, eta bestetik, kanbio-zorrotasuna. Heterointegrazioaren bidez, kanbio-letraren kanpoko zirkunstantziak ez dira aintzat hartuko fede oneko hirugarrenak errazago babesteko. Kanbio-formaren zorrotasun-kontzeptuak, aldiz, dokumentuak betearazte-eraginkortasuna izango du alderdien artean (*inter partes*).

Aurreko kanbio-forma, zorrotasunaren eraginez, erregulazio gehienetan kanbio-letraren izaera erabat formala da, eta dokumentuak derrigorrezko baldintzak espresuki jasoko ditu (KLTL 1. artikuluan), zeren kanbio-letrak kreditu-eskubidea baitarama inplizituki. Kontzeptio berbera jaso zen Bilboko Ordenantzetan (1737 – XIII. Kapituluak).

3. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikulua ezinbesteko eskakizunak

Ondoko lerroetan kanbio-letra bat igortzeko eta duen izaera lortzeko ezinbesteko baldintzak (KLTL 1. artikulua) aztertuko dira, *epemugarena* salbu. Aipatutako betebeharrak horiek kanbio-letran bertan jasoko dira, eta ez kanbio-letraren gehigarrian (KLTL 13. artikulua).

Dena den, esan dugun bezala, bereizi egiten da ezinbesteko eskakizunaren eta eskakizun naturalen artean. Horren ondorioz, ezinbestekoak ez diren eskakizunak, letran jasotzen ez badira, Legeak berak jasotzen dituen irizpideen arabera beteko dira (KLTL 2. artikulua)

- Kanbio-letraren ezinbesteko forma-eskakizunak hauek ditugu:

1. Kanbio-letra deitura tituluan bertan jasoko da (KLTL 1.1 artikulua)

Aipamen horrek dokumentua identifikatu egiten du, eta titulua kanbio-erregulazioak arautuko du. Era berean, adierazpen horrek trafikoan dauden beste dokumentuetatik bereizi egiten du; adibidez, zorra eskuordetzeko egiten direnetatik.

Halaber, kanbio-letrak ezin izango du beste izendapen bat eraman. Adibidez, “kanbial” adierazpenak ez luke tokirik izango titulu honetan. Dokumentuak eredu jakin bati jarraitu behar dio beti.

Legearen lehenengo artikulua, *in fine*, dokumentua Estatuko edozein hizkuntzatan sor daitekeela jasotzen du. Beraz, kanbio-letra osatuko da dokumentua idatzita dagoen hizkuntzan.

2. Kanbio-letrak diru kopuru bat ordaintzeko agindu soila eta xehea jasotzen du (KLTL 1.2 artikulua).

Kanbio-letraren igorleak igorpenduari ordaintzeko mandatua luzatzen dio. Agindu horrek, dena den, ez du eskatzen ZK 1709. artikulura eta hurrengoetara jotzea, mandatuaren artikuluetara alegia. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak berak erregulatzen du igorleak ematen duen agindu hori. Hala ere, geroagoko zor horren eskuordetzeak hutsuneren bat izango balu, mandatuaren erregulazioak erregulatuko luke, ordezkoa bailitzateke (ZK 1799. artikulua eta ondokoak). Halaber, dokumentuan jasotako adierazpena agindu soila eta xehea izango da, hau da, mandatu hitzaren esanahi arruntaren arabera interpretatuko da.

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera txanpon bakarra, euroa, jarri zen indarrean Europar Batasunaren eremuko lurralde gehienetan. 1998ko abenduaren 17ko Legeak ordezkatu zuen pezeta zaharra. Haren eraginez, Espainian gauzatzen diren negozio eta eragiketa ekonomiko guztiak eurotan egingo dira.

Beraz, kanbio-letraren ordainketa eurotan egingo da, eta, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak agintzen duen bezala, kanbio-letran diru-kopurua bi eratan ager daiteke: bai zenbakitan, bai letratan (KLTL 7. artikulua).

3. Ordaindu behar duen pertsonaren izena: igorpendua (KLTL 3. artikulua)

Igorpendua pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, eta berak ordaindu behar du kanbio-letra, haren izena letraren aurreko aldean edonon ager daiteke. Maiz, igorpenduaren izenaren ondoan haren egoitza ere azaltzen da. Nolanahi ere, aipamen hori ez du Legeak eskatzen, merkataritzako usadioa besterik ez da. Datu hori dokumentuan jasotzea oso lagungarria da, zeren eta ordainketarako lekuari aipamen zuzena egiten baitio. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak ordainketaren lekuari buruz ez du ia ezer esaten (5. artikulua).

Hainbat kasutan igorpendua ezagutzeko azaroak egon daitezke, besteak beste, igorpendurik ez dagoenean, hau da, kanbio-letrak haren izenik jasotzen ez duenean. Halakoetan, igorpenduaren izenik azaltzen ez bada ere, dokumentua eraginkorra izango da, igorlea eta gainerako behartuak, atzerabidezko akzioen bitartez, letraren ordainketaren erantzule izango baitira. Kasu horretan, kanbio-letra ez du inork onartu; izan ere, agirian jasotzen ez den pertsona baten ordezkari ezin da gauzatu (KLTL 9. artikulua). Era berean, esan beharra dago kasu horrek ez duela zer ikusirik igorpenduaren izendapen akastunarekin. Maiz, bi egoerak nahastu egiten dira. Hau da, igorpendurik ez egotea eta igorpendu akastuna jasotzea.

Irudimenezko izenak erabiltzeak ere okerrak sor ditzake. Hau da, kanbio-letrak benetako izenaren ondoan fantasiako izenak ere jasotzen dituztenean, horrek igorpenduaren benetako izena identifikatzeko arazoak ekar ditzake. Demagun jartzen duela: “Garisamur Okindegia” edo “Jose Luis Larrañaga” “Jose Luis Larrañaga S.L.” jarri beharrean. Kasu bietan sinadura behar bezala ulertzen ez bada, ordezkari eman eman daiteke, baina arazoak egongo dira benetako onartzailea identifikatzeko eta kanbio-erantzulearekin emateko.

Ondokoa ere antzeko adibidea da. “Maria Mujika Tindategia” izena jarritz gero, ordezkari eratu daiteke, baina zaila izango da titularra identifikatzea.

Igorpendu bat baino gehiago ere egon daitezke; horrelakoetan, denek erantzungo dute solidarioki (KLTL 3. artikulua). Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen presuntzio hori zuzenbide komunaren aurkakoa denez (ZK 1173. artikulua), onartu egiten da txandakako igorpenduak izendatzea.

4. Ordainketa jasotzen duen pertsonaren edo onuradunaren izena (KLTL 6. artikulua)

Ordainketa jasotzen duen onuradunari hartzaile deitzen zaio; haren izena ezinbesteko aipamena da dokumentuan. Hartzaileak igorlearen letra jasotzen duena da, aldez aurretik sortu den baluta-harremanaren truke.

Esan den bezala, igorleak *norberaren agindurarako* klausularekin ere bete dezake dokumentua (KLTL 4. artikulua); geroago, igorleak berak egingo ditu endosuak.

Horren ondorioz, jurisprudentzia gehienak hartzailearen berariazko izendapenaren alde egiten du. Ikuspegi hori bat dator Ginebrako Lege Uniformea delakoak jasotzen zuen erabakiarekin, Lege horrek eramailearentzako letrak debekatu egiten baititu. Letra mota hori debekatuta egon arren, eramailearentzako letrak letra zuriaren endosuak dituen

ondorio berberak ditu trafikoan. Hala ere, ez dute izaera berbera. Izan ere, letra zuriaren endosuaren kasuan endosu-emaileak kanbio-letra beranduago bete dezake, baina eramailearentzako letraren kasuan, aldiz, hori egiterik ez dago.

Lehenago azaldu dugun bezala, igorleak *norberaren agindurako* klausularekin bete dezake letra, eta geroago endosatu. Aukera hori oso erabilgarria izango da 21. artikuluko endosu mugatua aurrera eramaten denean, zeren eta, kasu horretan, kanbio-letra bankuetxeari eskualdatzen baitzaio, baina ez kobratzeko edo deskonturako baizik eta kobrantza kudeatzeko.

Hartzailea izendatzeko, berriz, ez da “*agindura*” klausula ezarri behar, kanbio-letra izatez agindurako titulua baita (KLTL 14., 96.1 eta 120.3 artikulua).

5. Igorpen-data (KLTL 7. artikulua).

Igorpen-data jasotzeak beste eskakizun batekin lotu ohi da, kanbio-letra igortzen den lekuarenarekin, alegia. Kanbio-letraren bi betebeharrak horiek esentzialak izan arren, maiz ez dira jartzen.

Hala ere, igorpen-data jartzea oso inportantea da; izan ere, erreferentzia hori behar da zehaztaperik hauek egiteko: igorlearen ahalmena zehazteko, preskripzio-data ezagutzeko edo zigor-legeria aplikatzeko. Horretaz gain, data osorik jaso behar da; letra ordaintzeko, ez du balio horrelako datarik jartzeak: 2009-2-3. Data osorik jartzen ez bada, letra deuseza izango da, interpretatuko baita mugaeguna jadanik pasata dagoela. Beti ere Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 29. artikulua jasotzen duen kasuan salbu.

Kanbio-letran igorpenaren lekurik azaltzen ez bada, lehen esan bezala, igorlearen izenaren ondoan azaltzen den tokia hartuko da aintzat (KLTL 2. artikulua); horrela egin ezean, kanbio-letra deuseza izango da. Pertsona juridikoa denean, aipamen hori azalduko ez balitz, pertsona juridikoaren egoitza erabiliko da. Beraz, igorpenaren lekua dagokion eskakizun hori, esentziala baino gehiago, “naturala” dela esan daiteke.

6. Kanbio-letraren igorlearen sinadurak (KLTL 8. artikulua)

Igorleak kanbio-letra sinatzeak zera esan nahi du: subjektu horrek letraren onarpenaren bermea eta ordainketa ziurtatu egiten dituela. Adierazpen horren ondorioz, onarpenaren bermeari geroago uko egin badiezaioke ere, ordainketari, berriz, ezin dio uko egin (KLTL 11. artikulua).

Era berean, igorleak fantasiako izena erabiliz gero, igorpenduak ezin izango du geroago ordainketa saihestu izen hori merkataritza-izena dela eta horren ondorioz kanbio-letrak baliorik ez duela esanez, zeren eta aurretiko merkataritza-harremanetan izen edo deitura hori erabili baita hain zuzen ere igorlea identifikatzeko.

Halaber, une horretan antzematen bada sinadura hori ezgai batena dela edo existitzen ez den pertsona batena dela, egoera horrek ez du eraginik izango kanbio-letra sinatu duten

gainerakoen artean, haiek hartutako betebeharez erantzun egin beharko baitute (KLTL 8. artikulua).

- Jatorriko kanbio-letrak izatez dituen kanbio-adierazpenak hauek ditugu:

1. Epemugaren zehaztapena (KLTL 1.4 artikulua)

Kanbio-letrak ezinbestekoa ez duen betebeharrak bakarrik epemugakoa da. Hori dela eta, ezer zehazten ez bada, mugaeguna kanbio-letra ikustean ordaintzeko egunekoa izango da (KLTL 2.1.a artikulua).

Legeak lau forma jasotzen ditu mugaeguna zehazteko (KLTL 38. artikulua): a) kanbio-letra ikustean, ordaintzeko mugaeguna zehaztuz; b) kanbio-letra ikusten den egunetik, ordaintzeko epe bat emanez; c) kanbio-letra ordaintzeko aurkezpen-eguna erabiliz, eta d) kanbio-letra ordaintzeko aurkezpen-egunetik, epe bat zehaztuz.

Kanbio-letra bat trunkatzen denean, ordaintzeko ezin da aurkezpen egunetik epe bat zehaztuz delako forma erabili.

2. Ordaintzeko lekua (KLTL 5. artikulua)

Legeak dioenez, kanbio-letrak jaso egin behar du ordaintzeko lekua (KLTL 1.5 artikulua). Hala ere, kanbio-letrak toki hori espresuki jasotzen ez bada, igorpenduaren izenaren ondoan azaltzen den helbidea hartuko da ordaintzeko lekutzat. Horren ondorioz, leku hori igorpenduaren egoitza dela suposatuko da.

Kanbio-letra ordaintzeko lekurik azaltzen ez bada dokumentu ofizialean, esan bezala, igorpenduaren izenaren ondoan azaltzen den tokian egingo da (KLTL 2.1.b artikulua). Dena den, kanbio-letran ezer esaten ez bada eta igorpenduaren ondoan lekurik zehazten ez bada, letra ezin da ordaindu, zeren eta ordaintzeko beharrezkoa baita tokia zehaztea. Hori agertu ezean, letra deuseza izango da. Beraz, prezeptu horretan aurreikusten dena bat dator Kode Zibilaren 1171.3 artikuluan jasotzen denarekin: “besterik ezean, zorrak zordunaren egoitzan ordainduko dira”.

Aurreko paragrafoan esan den bezala, igorpenduaren izenaren ondoan ordaintzeko lekurik jasotzen ez bada, kanbio-letrak ez du baliorik izango. Hala eta guztiz ere, *helbideratze-klausula* dela medio, interpreta daiteke bagoela aukera hirugarren baten egoitzan ordaintzeko. Hirugarren hori kreditu-entitateak ohi dira.

Gaur egun, kanbio-letra gehienek *helbideratze-klausula* jaso ohi dute. Horren ondorioz, kanbio-letrak jaso ohi du igorpenduaren kontu-korrontea irekita dagoen entitatearen egoitza (KLTL 2.2 artikulua). Dena den, formula hori erabiltzeak ez du esan nahi bankua zordun kanbiario bihurtzen denik.

3. Kanbio-letraren igorri den lekuaren izena (KLTL 1.7 artikulua)

Lehen aipatu dugun bezala, kanbio-letrak igorpen-lekua eta data jaso behar ditu (KLTL 1.7 artikulua). Igorpen-data dokumentuaren ezinbesteko eskakizuna bada ere, lekua jasotzeko aginduak ez dauka izaera berbera, izatez duen eskakizuna baita.

Aurreko izaera kontuan hartuz, kanbio-letrak igorpen-lekua jasotzen ez badu, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 2. artikulua araberako, igorlearen izenaren ondokoa hartuko da igorpen-tokitzat. Azken hori azalduko ez balitz, ordaintzeko kasuan ikusi dugun moduan, dokumentua deuseza litzateke.

4. Forma-eskakizunak ez-betetzearen ondorioak

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikulua jasotzen dituen forma-eskakizunetariko bat betetzen ez bada, ondorio zuzena kanbio-letra deuzestatzea da, zeren eta dokumentuak kanbio-letraren izaera galdu egiten baitu (KLTL 2. artikulua).

Horren ondorioz, igorleak bi ardura ditu. Batetik, kanbio-letraren forma-eskakizun guztiak bete beharko ditu; bestetik, hartzailea, kanbio-letra jasotzen duenean, behartuta egongo da bere eskuartean daukan dokumentua behar bezala eratu den aztertzerara.

Era berean, kontuan hartu behar da kanbio-harreman eremutik kanpo dagoen batek falta diren forma-eskakizunak betetzeak ez duela kanbio-letra legeztatuko. Gai horren inguruan aurrerago jardungo dugu.

5. Aukerako klausulak

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikuluan azaltzen diren klausulez gainera, kanbio-letrak daramatzan aukerako klausula guztiak aukerakoak dira (KLTL 2. artikulua *in fine*).

Besteak beste, hauek aipa ditzakegu: a) helbideratze-klausula (KLTL 5. artikulua); b) ohiko interesen klausula (KLTL 6. artikulua); c) onarpenaren bermea ekiditeko klausula (KLTL 11. artikulua); d) “agindurakoa ez den” klausula (KLTL 14. artikulua); e) notarioaren bidez gauzatzen den “protesto” klausula (KLTL 51.2 artikulua); f) “gasturik gabe” klausula (KLTL 56. artikulua); g) “honiduraren gaineko eskubideen eskualdatze” klausula (KLTL 69. artikulua); h) “ordainketaren izendapen” klausula (KLTL 70. artikulua).

III. KREDITU-FUNTZIOA BETETZEN DUTEN TITULUEN GAINEKO ZERGEN ORDAINKETA

Zerga-ordainketari dagokionez, kanbio-letrak ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentuen gaineko zerga ordaintzen du. Horren ondorioz, kanbio-letra tinbredun paperean jasoko da; tinbrea edo zerga kanbio-letrari dagokion diru-kopuruaren araberako ordainduko da.

1993ko irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege-Dekretuak ondare-eskualdeketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren araudiaren testu bateratua onetsi zuen. Legegintzako Errege-Dekretuak ezarri zuen merkataritzako dokumentuek zerga hori ordaindu behar zutela (33. artikulua eta hurrengoak). Horrek ziurtasuna ekarri zuen, Legegintzako Errege-Dekretu horretan merkataritzako dokumentu horiek zehazten baitziren. Horretaz gain, Errege-Dekretuak kanbio-letra munta txikiagoko efektu tinbredunean egiteak duen ondorioa ezarri zuen, dokumentu horiei legeak emandako betearazte-eraginkortasuna kentzea, alegia. Egoera hori aldatu egin zen 2000ko urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilaren Legea onartzean, zeren eta Lege horrek betearazte-judizioaren ordezkari kanbio-judizioa aurreikusten baitzuen. Hala ere, azken Lege horretan ezartzen den kanbio-kredituaren babes-sistemaren eraginkortasuna 1881eko Prozedura Zibilaren Lege indargabetuaren baliokidea da.

Esan dugun bezala, 1/1993 Legegintzako Errege-Dekretuaren 37.1 artikulua arabera kanbio-letra betearazte-titulua bazen ere, Prozedura Zibilaren Legearekin galdu egin zuen izaera hori eta, horren ondorioz, kanbio-letretan, txeketan eta zor-agirietan jasotako kredituek egiten zuten bide prozesala aldatu egin zen, eta betearazte-judizioa desagertu egin zen.

Dena den, horrek ez du esan nahi munta txikiagoko efektu tinbredunean egindako kanbio-letraren babes judiziala gutxitzen denik. Izan ere, ildo horri jarraituz, Kanbio Letra eta Txekari buruzko Legearen 66. artikulua (1/2000 Prozedura Zibilaren Legearen 10. Azken Xedapena aplikatuz) jasotzen du kanbio-judizioaren bidez kanbio-kreditua betearaziko dela. Beraz, kanbio-judizioaren betearazte-izaerak indarririk gabe utziko du kanbio-titulu akastunaren betearazte-izaera.

Kanbio-letrak izan ditzakeen akatsei dagokienez, tinbrearen betekizuna, nahiz eta Kanbio Letra eta Txekari buruzko Legearen 1. artikuluan ez agertu, jurisprudentiaren eta doktrinaren arabera, Prozedura Zibilaren Legeak ezarritako prozedura berezira jotzeko kontuan hartu beharreko aipamena da, zeren eta Ondare-eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legean jasotako eskakizun fiskala baita. Kanbio-letran betekizun hori falta bada, titulua baliogabea izango da. Hala ere, prozesu bereziaren bidez ezarritako kanbio-akzioa aurrera egiteko babes judizial eragingarriaren eskubideari ez zaio kalterik egiten. Hau da, kanbio-letraren edukitzaileak bere eskubideen babes judiziala lortzeko, beste bide batera jo dezake, deklarazio-judiziora, alegia.

Konklusio gisa, hau esan dezakegu: zerga-araua ez betetzeak, neurri batean, kanbio-letraren edukitzailearen eskubideari egiten dio kalte, egungo Prozedura Zibilaren Legearen 819. artikuluan eta hurrengoetan araututako prozesu berezia (kanbio-judizioa) erabili ezin duen neurrian. Kanbio-judizioaren bide bereziak, nahiz eta betearazte-judizioa ez izan, demandatzaileari aparteko pribilegioak eskaintzen dizkio, judizio arrunt batean ematen ez direnak; baina, haietaz baliatzeko, legegileak Kanbio Letra eta Txekari buruzko Legean aurreikusitako forma-baldintzak betetzea eskatzen du. Nahiz eta forma-baldintza horien artean tinbrea ez aipatu, zerga-eskakizun hura bete beharrekoa da, legeak agintzen duenaren arabera, azken batean legearen eraginkortasunarekin bat baitator eta kanbio-letraren edukitzailea ez baitu eskubiderik gabe uzten. Kanbio-judizioaren bidea erabili ezin duen arren, prozedura arrunt batean erabil dezakeen titulu baliadun bat dauka.

Zor-agiriak, aldiz, ez dira efektu tinbredunetan egiten. Hala ere, ondare-eskualdeketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren menpekoak dira. Zerga hura zordunak ordainduko du, eta ez hartzekodunak.

BIBLIOGRAFIA

DE EIZAGUIRRE, J.M., *Derecho de los Títulos Valores*, Civitas, Madril, 2003

SÁNCHEZ CALERO, F., *Instituciones de Derecho Mercantil*, II, Thomson-Aranzadi, Iruñea, 2009.

IGORPENA – PRAKTIKA I

Begoña Etxeberria andereak kanbio-letra hau jaso du egindako itzulpen baten ordainean. Azter itzazu kanbio-letrak bete behar dituen baldintzak, eta esan ezazu diru hori kobratzeko aukerarik dagoen.

IGORPEN-LEKUA	ZENBATEKOA #600#	
IGORPEN-EGUNA 2010 – 01 – 18	MUGAEGUNA 2010 – 02 – 18	
KANBIO LETRA honen orde, adierazitako mugaegunean ordainduko diozu honako honi:		0,90€
honako kopuru hau (letraz): <i>seiehun euro</i>		
Pertsona edo entitatea: <i>BBVA S.A.</i> Helbidea edo bulegoa: <i>Mazarredo Hiribidea, 27</i> Herria: <i>Bilbo</i>		Ordainketa honako egoitza honetan: bezeroaren kontu-kodea (BKK) <i>0018 0024 148064578894</i>
ONARTZEN DITUT Eguna: (sinadura)	klausulak: IGORPENDUA Izena: <i>Ana Maria Goitia López</i> Egoitza: <i>Rekalde Hiribidea, 18</i> Herria: <i>Bilbo</i> PK: <i>48010</i> Probintzia: <i>Bizkaia</i>	IGORTZAILEA (sinadura, izena eta egoitza) <i>Xabier Larrañaga (sinadura)</i> <i>Atxondo Kalea, 24</i> <i>Durango</i>
Ez erabili tarte hau, inprimaketa magnetikoa egiteko baita.		

Ez erabili goiko tartea, imprimaketa magnetikoa egiteko baita

Ez erabili goiko tartea, imprimaketa magnetikoa egiteko baita		
Ondokoaren abalaz.....	Ordain bekio honi..... egoitza honetan	
Dataeko.....aren.....	Lekua eta data <i>Elorrio, 2010eko Urtarrilak 28</i>	
Abal-emailearen izena eta egoitza	Endosatzailearen izena eta egoitza <i>Lourdes Agirre Aizpitarte</i> <i>Bartzelona Hiribidea, 25</i> <i>Elorrio</i> <i>Lourdes Ferrer (Sintura)</i>	

IGORPENA – PRAKTIKA II

Zehaztu itzazu kanbio-letra honek izan ditzakeen akatsak, arrazoiak emanaz.

IGORPEN-LEKUA <i>Bilbo</i>		ZENBATEKOA #20.000# euro	<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; width: fit-content; margin: 0 auto;">1.50 €</div> <p>10.000 €-tik 20.000 €-ra L 102865 L</p>
IGORPEN-EGUNA 2010 – 01 - 25		MUGAEGUNA 2012 – 01 - 25	
KANBIO LETRA honen orde, adierazitako mugaegunean ordainduko diozu honako honi: <p style="text-align: center;">BBVA S.A.</p>			
honako kopuru hau (letraz): <p style="text-align: center;">### hogei mila euro###</p> <p>-----</p> <p>-----</p> <p>--</p>			
Pertsona edo entitatea: <i>BBK</i> Helbidea edo bulegoa: <i>Kale Nagusia, 1</i> Herria: <i>Durango</i>		Ordainketa honako egoitza honetan: bezeroaren kontu-kodea (BKK) 1234 5678 90 1234567890	
ONARTZEN DITUT Eguna: <i>2010-01-25</i>	klausulak: <i>##Gasturik gabe##</i> IGORPENDUA (sinadura) <i>A. Goitia</i> Izena: <i>Ana Mari Goitia</i> Egoitza: <i>Berriotxo Kalea, 34</i> Herria: <i>Durango</i> PK: <i>48002</i> Probintzia: <i>Bizkaia</i>	IGORTZAILEA (sinadura, izena eta egoitza) Etxekoak Elektrodomestikoak Berrizar Kalea, 5 Durango	
Ez erabili tarte hau, inprimaketa magnetikoa egiteko baita.			

Ez erabili goiko tartea, imprimaketa magnetikoa egiteko baita

Ez erabili goiko tartea, imprimaketa magnetikoa egiteko baita		
Ondokoaren abalaz..... <i>Ana Mari Goitia</i>	Ordain bekio honi..... egoitza honetan	
Data <i>2010eko Urtarrilak 25</i>	Lekua eta dataeko.....aren.....	
Abal-emailearen izena eta egoitza <i>Juan Mari Bengoetxea</i> <i>Arrizar Kalea, 66</i> <i>Durango</i> <i>Juan Mari Bengoetxea (sinadura)</i>	Endosatzailearen izena eta egoitza	

IGORPENA – PRAKTIKA III

Jon Iriarte jaunak (Etxaniz Kalea, 10, Bilbo), HOTZA S.L. (San Ignazio Hiribidea, 16, Bilbo) izeneko arrandegi denda-katearen ordezkariak, 20.000 €-ko balioa duen arrain izoztua erosi dio Bermeoko EUSKAL FISH enpresari. Bermeoko enpresaren jabea Ignacio Roteta da (Bermeo – Bizkaia).

Erosketa ordaintzeko, erabaki dute EUSKAL FISH-ek kanbio-letra bat igortzea eta HOTZA S.L. enpresak onartzea. Hori dela eta, saltzaileak 2010eko urtarrilaren 18an kanbio-letra bat igorri du, data horretatik hiru hilabetera ordaindua izan dadin.

1. Ematen den informazioarekin, bete ezazu kanbio-letra.
2. Zeintzuk dira kanbio-letrak eskatzen dituen forma-eskakizunak? Zeintzuk dira aukerazkoak?

IGORPEN-LEKUA		ZENBATEKOA		<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; width: fit-content; margin: 0 auto;">1.50 €</div> 10.000 €-tik 20.000 €-ra L 102865 L
IGORPEN-EGUNA		MUGAEGUNA		
KANBIO LETRA honen ordez, adierazitako mugaegunean ordainduko diozu honako honi:				
honako kopuru hau (letraz): ----- ----- --				
Pertsona edo entitatea: Helbidea edo bulegoa: Herria:		Ordainketa honako egoitza honetan: bezeroaren kontu-kodea (BKK)		
ONARTZEN DITUT Eguna: (sinadura)		klausulak: IGORPENDUA Izena: Egoitza: Herria: PK: Probintzia:		IGORTZAILEA (sinadura, izena eta egoitza)
Ez erabili tarte hau, inprimaketa magnetikoa egiteko baita.				

3. KAPITULUA

LETRAREN ONARPENA ETA FUNTS-HORNIDURA. MESEDE-LETRA

I. KANBIO-LETRAREN ONARPENA

A) Kontzeptua

Kanbio-letraren onarpena igorpenduaren kanbio-adierazpena da, zeinaren bidez igorpenduak mugaegunean kanbio-letra ordaintzeko betebeharra bere gain hartzen baitu (1985eko uztailaren 16ko 19/1985 Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 33. artikulua: «Onarpenaren ondorioz, igorpenduak bere burua behartuko du kanbio-letra mugaegunean ordaintzera»). Beraz, kanbio-adierazpen horren bitartez, igorpendua bihurtzen da letra ordaintzeko betebehardun nagusi eta zuzen, eta igorlea eta endosatzaileak atzerabidezko betebehardunak dira; hau da, neurri batean azken horiek berme-funtzio bat betetzen dute; izan ere, onartzaileak ordaintzen ez duenean soilik erantzungo dute letraren edukitzailearen aurrean.

Dena den, nahiz eta kanbio-letra ez onartu, letrak ez du inolako akatsik edo hutsik izango. Horrelakoetan, letra baliozkoa izango da, eta gainerako kanbio-subjektuen gainean bere ondorio tipikoak eragingo ditu (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluek ez dute onarpena letraren oinarrizko baldintzat hartzen).

Igorpenduak onarpen idatzia letran jaso ez duen bitartean, ezin da hura behartu letra ordaintzera. Ez du kanbio-betebehardunaren izaera izango, beraren onarpena letran agertu ezean. Beraz, igorpenduarentzat letra ez onartzeak ez du kanbio-ondoriorik eragingo. Beste kontu bat izango litzateke kanbio-eremuz kanpo duen erantzukizuna, onartzeko bere konpromisoa ez betetzeak lekarkeena.

B) Onarpenaren helburua

Onarpena borondate-adierazpen bat da, kanbio-ondorio garrantzitsuak eragiten dituena. Alde batetik, igorpenduaren kanbio-betebeharraren zioa da. Dakigunez, letran igorpenduaren izena aipatzeak —eta, ondorioz hura onartzeak— zera dakar: letra igorri baino lehenago igorlearen eta igorpenduaren artean harreman bat dagoela onartzea (hornidura-harreman deiturikoa). Hornidura-harremana merkataritza- edo finantza-eragiketa bat izan daiteke. Baina harreman hori ez da letraren edukian agertzen; izan ere, letrak ezin du jaso bere igorpena justifikatzen duen arrazoiaren erreferentziarik. Hori dela-eta, letra eskuratu dezakeen hirugarrena babesteko, titulu abstraktu gisa ulertu da. Horregatik, onarpenik gabe, igorpendua ez da kanbio-betebehardun bihurtuko, eta, alderantziz, onarpenarekin igorpendua betebehardun zuzen (haren kontra akzio zuzena jar daiteke ez ordaintzeagatik), eta nagusi bihurtuko da. Letra-igorpenduak berak ordainduz gero, letratik eratorritako betebeharrak edo kreditu guztiak iraungi egingo dira (ondorio hori ez dagokio ordainketa beste edozein sinatzailek egiten duenean).

Letraren onarpenak ez du iraungitzen igorlearen aurrean igorpenduak duen betebeharra. Aurreratu dugun bezala, betebeharrak hori kanbio-eremuz kanpo dago. Beraz, bata zein bestea eraginkorrak dira. Dena den, letra eskuratzen duen hirugarren baten aurrean ezin izango ditu igorlearen aurrean ordaintzeari uko egiteko dituen salbuespenak aurkatu, zeren salbuespen horiek kanbio-eremuz kanpo dagoen betebeharrak batean oinarritzen baitira. Egoera hori aldatu egingo litzateke, igorleak hornidura-lagapena egingo balu; hau da, letraren edukitzaileari eskualdatuko balio-letraren igorpena eragin zuen kanbio-eremuz kanpo kokatzen den kreditua.

Eskuarki, letra onartuta badago, letrak eratzten duen kreditua indartu egiten da, epemugan ordaindua izango dela bermatu egiten duelako. Horretaz gain, beraren zirkulazioa erraztu egiten du, zeren eskuratzailerak letraren zenbatekoa jasotzeko aukerak handitu egiten baitira. Horren ondorioz, letra eskualdatzeko aukera ere handitu egiten da (bigarren sinadura bat jasoz gero, letra deskontatzeko aukerak erraztu egiten dira). Azken batean, letra onartua izateak adierazten du dokumentu hori ordaindua izateko berme handiagoa dagoela, erantzule solidarioen katean beste kanbio-zordun bat gehitzen baita.

C) Onarpenerako aurkezpena

Izatez, ohikoa da onarpena letra igortzeko une berean egitea. Horretaz gainera, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak hau ere aurreikusten du: igorleak igorpenduari letra aurkezten dion unean onarpena egitea. Letra bere aurkezpenaren bidez onartzeak ondorio garrantzitsuak ditu, aurkeztu eta onartzen ez denerako zein onarpenera aurkezten ez denerako. Onarpenera letra aurkeztea edo ez aukerakoa da; hori da erregela orokorra. Hala ere, aurkezpena beharrezkoa izan daiteke, eta baita debekatua egon ere. Ikus ditzagun hiru kasuak:

a) Aukerako aurkezpena. Legeak aurkezpenaren aukerakotasuna ezartzen du, aipatzen duenean igorpen-datatik mugaegunera arte noiznahi “aurkez daitekeela” letra onarpenerako (25. artikulua: «Kanbio-letra baten edukitzaileak edo eramaile hutsak letra igorpenduaren onarpenerako aurkeztu ahal izango du, haren helbidean eta mugaegunera arte»). Horrek zera esan nahi du: edukitzailea ez dagoela behartuta letra aurkeztera onartua izan dadin. Dena den, behartuta ez egoteak ez du esan nahi komenigarria ez denik, zeren eta, letra onartzen baldin bada, edukitzaileak, ez ordainduz gero, igorpenduaren aurka kanbio-akzioa baliatzea izango bailuke. Aurkezpena eginez gero, igorpenduak letra onartuko ez balu, edukitzaileak igorlearen aurka jo dezake atzerabidean («onarpenik ezagatik»). Horrelakoetan, ikusi dugunez, igorlea onarpeneraren bermetik libre gera daiteke, baina inola ere ez ordainketaren bermetik (11.2 artikulua: «igorlea onarpeneraren bermetik salbuetsi ahal izango da, baina ordainketaren bermetik salbuesten duen edozein klausula ez dela idatzi ulertuko da»).

b) Debekatutako onarpena. Onarpeneraren aukerakotasunak modua ematen du igorleak letra onartzeko aurkezpena debekatzen duen klausula bat sar dezan («onarpenik gabekoa», «onarpena ezin aurkeztuzkoa» edo antzeko beste edozein adierazpide erabiliz), helbideratutako letretan edo ikustetik zenbatutako epe zehatz batera igorritako letretan izan ezik. Letran horrelako klausularen bat sartu eta, hala eta guztiz ere, letra

onarpenera aurkezten baldin bada, igorpenduak onartzeari uko egin diezaioke, ez onartzeagatik atzerabidezko akziorik eragin gabe. Dena den, debekua egonda ere, edukitzaileak debeku hori hautsiko balu eta igorpenduak letra onartuko balu, onarpen hori guztiz baliozkoa izango litzateke.

c) Beharrezko onarpena. Azkenik, onarpenerako aurkezpena beharrezkoa izango da, letran horrela azaltzen bada. Horrek zentzu tekniko-juridikoan zama bat dakar. Izan ere, bai igorleak bai edozein endosatzailek «onarpen bidez» klausula ezarri beharko dute letran, horretarako epe bat zehaztuz edo ez. Ikustetik epe zehatz batera igorritako letrak, berriz, onarpenera aurkeztu beharko dira, haien jaulkitze-egunetik kontatzen hasita urtebeteren buruan, baina igorleak azken epe hori laburtu edo luzatu dezake (endosu-emailek ere legezko epea nahiz igorleak ezarritakoa laburtu ahal izango dute).

Onarpenera ez aurkezteak eragiten dituen ondorioak desberdinak dira, aurkezpena aukerakoa edo beharrezkoa den.

1) Hala ere, bi kasuetan (onarpenera aurkeztea aukerakoa eta derrigorrezkoa denotan) kontuan hartu behar da onarpenera ez aurkezteak igorpendua kanbio-zirkulutik kanpo uzten duela. Beraz, letra ordaintzen ez bada, edukitzaileak ez du igorpenduaren aurka kanbio-akzio zuzenik jartzetik izango. Halaber, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 50. 2 artikulua esaten duenez, letraren mugaegunaren aurretik onarpenari erabat edo zati batean uko egiten zaionerako atzerabidezko akzioa baliatzeko aukera ere galdu egingo du.

2) Derrigorrezko aurkezpena behar duen letraren kasuan, berriz, aurkezpen hori egiten ez bada, edukitzaileak atzerabidezko akziorako aukera galdu egingo du, letra mugaeguna iristerako ordaintzen ez denean (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 50.1 artikulua). Derrigorrezko aurkezpena eskatzen duten letrak honako hauek izango dira: batetik, ikustetik epe zehatz batera igorritako letrak, eta, bestetik, igorleak inposaturiko «onarpen bidez» klausula daramaten letrak. Azken hipotesi horretan, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 63.2 artikulutik ondorioztatzen dena zera da: «Igorleak adierazitako epean letra onarpenera aurkeztu ez badu, edukitzaileak berari dagozkion atzerabidezko akzioak galdu egingo ditu, bai ordainketa ezagatik, bai onarpenik ezagatik, letrak adierazten duenaren arabera igorleak bere bermea onarpenik ezagatik bakarrik baztertu duen kasuetan izan ezik». Hori dela eta, igorleak «derrigorrezko onarpena dela eta, erantzukizunik ez du izango letra x egunaren ostean aurkezten bada» klausula sartuko balu, edukitzaileak galdu egingo luke berari dagozkion atzerabidezko akziorako modua. Hala ere, azken akzio hori onarpenik ezagatik soilik galduko luke; izan ere, ordainketarik ezagatik akzioa izan, izango luke. Alderantziz, derrigorrezko aurkezpen-klausula hori endosatzaile batek inposatuz gero, aurkezpena ez bada ezarritako epean egiten, atzerabidezko akziorako aukera galduko da, baina klausula ezarri duen endosu-emailearen aurkakoa soilik (63.3 artikulua: «Aurkezteko epea endosu baten barnean ezartzen denean, hori ezarri duen endosu-emaileari bakarrik egingo dio mesede»).

D) Onarpenaren forma

Onarpena, beste edozein kanbio-adierazpen gisa, kanbio-letran idatziko da. Hala ere, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 13. artikulua arabera, eranskinean jasotzea ere posible litzateke; izan ere, onarpena ez dago letran espresuki jaso behar diren betebeharren artean (1. art.). Onarpenak ez du forma berezirik eskatzen. Ez da ahaztu behar igorpenduaren sinadura autografoa ezinbestekoa dela (igorpenduak letraren aurrealdean sinadura jartze hutsa onarpenaren baliokidea izango da). Datari dagokionez, ezinbesteko baldintza da ikustetik epe zehatz batera igorritako letretan, data hori mugaeguna jartzeko behar-beharrezkoa delako; eta aurkezpen-epea daukaten letretan, letraren edukitzaileak epe hori bete duela frogatu behar delako. Horregatik, 29.2 artikulua honako hau ezartzen du: «Letra ikustetik epe zehatz batera ordaintzeko denean edo aipamen berezi batek ezarritako epe zehatz batean onarpena aurkeztu behar denean, onarpenean adierazi behar da zein egunetan hartu den, eramaileak aurkezpen-eguna ezartzeko eskatu ezean». Kasu horietan, onarpen-datarik gabe, eramaileak ez-egite hori agerraraziko du egun baliodunetan egindako protestoen bidez, bere eskubideak endosu-emaielen eta igorlearen aurrean aldarrikatzeko.

Onarpenaren edukiari dagokionez, onarpena garbia eta sinplea izango da. Dena den, igorpenduak letran azaldutako diru kopuruaren zati bat murriztu ahal izango du. Kanbio-letraren testuan sartutako beste edozein aldaketa onarpenaren ukoaren baliokidea izango da, eta onartzailea behartuta geratuko da beti bere onarpenaren baldintzen arabera. Beraz, onarpen partziala baliozkoa da, eta edukitzaileak onartu gabeko zatiari dagokion protesta soilik egin behar du.

Igorpenduak onartzeko duen epeari dagokionez, behin letra aurkeztu eta berehalakoa da. Hala ere, igorpenduak eska dezake aurkezpena bigarren aldiz egitea, hurrengo egunean alegia. Edukitzaileak uko egiten baldin badio bigarren aurkezpen hori egiteari, protesta eskatzeko unean onarpenari uko egin zaiola ohartaraziz, igorpenduak letran edo protestoa jaso behar du bigarren aurkezpena eskatu dela. Hori egiten ez badu, atzerabidean beharturik daudenek ezingo dute alegatu eskaera hori ez zela bete, onarpenik ezagatiko aurretiazko atzerabidezko akzioa ezartzean (28.1 artikulua).

E) Onarpenaren eta haren ukatzearen ondorioak

1) Igorpenduak letra onartuz gero, bera bihurtzen da letraren ordainketaren kanbio-betebehardun nagusi eta zuzen. Onartzaileak, letraren mugaegunean hura ordaintzeari uko egiten badio, edukitzaileak, protestoen beharrik gabe, haren kontra ordainketarik ezagatiko zuzeneko kanbio-akzioa baliatu ahal izango du (49. artikulua).

2) Dena den, igorpenduari letra aurkezten zaionean, igorpenduak onartzeari uko egin diezaioke. Jokabide horrek zenbait ondorio izango ditu: batetik, igorpendua ez da kanbio-betebeharduna izango, egoera hori letran jasotako onarpenagatik soilik eskuratzen baita. Bestetik, hori dela eta, haren kontra ezin izango dela inolako kanbio-akziorik ezarri. Igorpenduaren ukatze hori mugaegunean letra ordainduko ez den seinale izan daiteke; beraz, edukitzaileak arrisku horren aurka erantzun dezake, onarpenik

ezagatik dagokion protesta eginez edo adierazpen baliokide bat jasoz. Horrelakoetan, edukitzaileak jo dezake igorlearen, endosu-emaileen eta gainerako betebehardenen aurka, onartu gabeko letra aurretiaz ordaintzea eskatzeko, atzerabidezko akzioa ezarriz [50. a) artikulua].

3) Letra aurkeztuta, igorpenduak letra onartzen ez badu eta onarpenik ezagatiko edukitzaileak protesta egiten ez badu (edo adierazpen baliokiderik jasotzen ez bada), bi motatako ondorioak izango dira letra-tipoaren arabera: a) Onarpenerako aurkezpena aukerakoa bada, onarpenik eza protestoaren bitartez frogatzen ez duen edukitzaileak ez du kanbio-kalte zuzenik izango. Hala ere, ezingo du onarpenik ezagatiko atzerabidezko akziorik tartekatu. b) Onerpenerako aurkezpena nahitaezkoa bada (ikustetik epe zehatz batera igorritako letrak edo «onarpen bidez» klausula daramatenak), onarpenik eza protestoaren bitartez frogatzen ez duen edukitzailearen letra kaltetua izango da. Horren ondorioz, igorle edo endosu-emaileen aurkako kanbio-akzio guztietarako aukera galduko du, eta haien aurka aberaste-akzioa baino ezingo du baliatu (65. artikulua).

F) Esku-hartzeagatiko onarpena

Esku hartzeagatik egiten den onarpenak honako hau esan nahi du: igorpenduak berak onarpenari uko eginez gero, letra hirugarren batek edo letran aipaturiko beste batek onartuko duela. Esku-hartzeko modalitate bi daude: adierazita dagoena eta berezkoa. Lehenengoaren arabera, esku-hartzailea letran bertan azalduko da. Horretarako, alde zuzenetik, igorleak, endosu-emaile batek edo abal-emaile batek esku-hartzaile bat izendatuko du (70.1 artikulua). Berezko esku-hartzearen kasuan, aldiz, kanbio-harremanean batek parte hartuko du letra onartuz, nahiz eta haren izendapena letran agertu ez (70.1 artikulua).

Dena den, esku-hartzea gauzatu ahal izateko beharrezkoa da bi oinarri objektibo hauek izatea: batetik, kanbio-letra onargarria izatea eta, bestetik, edukitzaileak, muga-eguna baino lehenago, atzerabidezko akzioa jarri ahal izatea (71.1 artikulua). Bestalde, gainerako kanbio-adierazpenak bezala, esku-hartzea letran jaso behar da; parte hartzen duenak sinatu eta adierazi egin behar du noren kontura hartzen duen parte. Azken aipamen hori jasotzen ez bada, ulertuko da letra igorlearen kontura onartu dela (71.2 artikulua). Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak ez du ezartzen esku-hartzaileak erabili behar duen formula. Beraz, hauetariko esaldiren bat erabiltzea egokitzat joko da: «esku-hartzeagatik onartzen dut» edo «esku-hartzeagatik». Garbi dago jasotzen den esaldiaren bitartez adierazi behar dela zein den borondatea, esku-hartzeagatik onartzea alegia. Letraren aurrealdean esku-hartzailearen sinadura soilik jasoz gero, 36.2 artikuluan aurreikusitako presuntzioa aplikatuko da, eta sinadura xehe horrek abal-izaera izango du, igorpenduaren edo igorlearen sinaduraz ari garenetan izan ezik.

Esku-hartzeagatiko onarpenak, hala edukitzailearentzat nola esku-hartzeagatiko onartzailearentzat, baditu ondorio hauek ere: edukitzaileari dagokionez, parte-hartzailearen izena letran ageri bada, edukitzaileak hari aurkeztu beharko dio letra onartu dezan. Horrela egin ezean, letran izendapen hori ezarri duenaren aurka eta horren ondoren sinatu dutenen aurka, edukitzaileak muga-eguna baino lehenagoko

atzerabidezko akzioa jartzeko modua galduko du. Era berean, edukitzaileak akzio horretarako aukera galduko du, behin letra aurkeztua parte-hartzaileak onartzen ez duenean eta edukitzaileak protestorik egiten ez duenean (72.1 artikulua). Letran parte-hartzailea izendatzen ez bada eta hirugarren batek letra onartzea eskaintzen badu, aldiz, edukitzailea ez dago behartuta esku-hartze hori ontzat hartzera. Hala ere, ontzat hartzen badu, muga-eguna baino lehenago dagokion atzerabidezko akzioa erabiltzeko aukera galduko du bere izenean parte hartu duen pertsonaren kontra eta horren ondorengo sinatzaileen aurka (72.2 artikulua). Esku-hartzea dela medio onartzaile-izaera eskuratu duenari dagokionez, zera esan behar da: izendapenaren ondorioz “onartzaile” deitura eskuratu badu ere, ez du onartzailearen lekua hartuko betebehardun nagusi gisa, baizik eta atzerabidezko betebehardun gisa. Horregatik, esku-hartzeagatiko onartzailea ordaintzera behartuta egongo da, soilik edukitzaileak igorpenduari letra aurkeztu dionean eta, kasuan-kasuan, eparen barruan protesta egin duenean; hau da, letra kaltetuta ez dagoenean.

II. MESEDE-LETRA

Mesede-letra dirua lortzeko tresna gisa erabiliko da. Mesede-letrak egoera hau jasotzen du: batek letra sinatzen du (igorle-, abal-emaile edo, eskuarki, onartzaile gisa) letraren edukitzaileari mesede bat egiteko helburu bakarrarekin. Mesedea, berriz, banku batek edukitzaileari letra hori deskontatzeko aukera ematen dionean gauzatuko da. Mesede-letra bat igortzeak aurretik mesede-emailearen eta mesede-hartzailearen arteko mesede-itun bat eskatzen du. Itun horren arabera, mesede-hartzaileak agintzen du muga-eguna baino lehenago letra zirkulaziotik ateratzea edo mesede-emaileari diru nahikoa ematea muga-egunean ordainketa egin dezan. Beraz, garbi dago bere sinadura eskaintzen duenak ez duela letra ordainduko, mesede-sinadurak mesede-hartzaileari zerbitzu bat ematea besterik ez duelako agintzen, bankuaren aurrean letraren kaudimena gehituz. Horregatik, bankuak letra deskontatzen duenean, oso garrantzitsua da jakitea aurkezten zaion dokumentua mesede-letra den edo merkataritza-letra den, aplikatuko den interes-tipoa desberdina izango baita. Deskonturako letra aurkezten duen mesede-hartzaileak bankuari letraren izaera azaldutakoan, Legeak ezarritako informazio-betebeharra betetzen du.

Mesede-letra tartean dagoenean, arazo hauek argitu behar dira. Batetik, zein diren alderdien arteko harremanetan sortutako kanbio-ondorioak, eta, bestetik, zein diren hirugarrenetik harremanetan sortutakoak. Barneko harremanetan («*inter partes*»), bereizgarria da mesede-hartzaileak mesede-emaileari eman behar dion diru-hornidura, azken horrek letra ordain dezan ordainketarako aurkezten zaionean. Betebehar hori gauzatzen ez bada, mesede-emaileak ordaintzeari uko egin diezaioke, mesede-sinaduraren salbuespena alegatuz. Hirugarrenen aurrean («*inter tertios*»), aldiz, mesede-sinadurak ez du sinatzailea letraren mugaegunean ordaintzetik libratzen.

Mesede-emaileak, mesede-ituna egon arren, hirugarrenari letra bere diruarekin ordaindu behar badio, ondoren mesede-hartzaileari dagokion erantzukizuna eskatu ahalko dio, kanbio-prozedura erabiliz, bere posizioak uzten badio. Kanbio-prozeduratik kanpo jardunez gero, berriz, alega dezake mesede-itunean mesede-hartzaileak bere gain hartutako betebeharra ez duela bete.

III. HORNIDURAREN LAGAPENA

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 69. artikuluan hau aurreikusten da: letran adierazten bada –dokumentuari txertatutako klausula baten bidez– igorleak horniduraren gaineko eskubideak lagatzen dituela, eskubide horiek edukitzailearen eskuetan geratuko dira. Horniduraz hitz egiten denean, honako hau adierazi nahi da: igorleak igorpenduaren aurka kreditu bat duela, letra igortzearen zioa alegia. Horniduraren lagapenak, beraz, alderdien arteko azpiko harremanen eremu horri egiten dio erreferentzia. Klausula horren bitartez, igorleak edukitzaileari lagatzen dio azpiko harremanetik eratorritako eskubidea. Hau da, kanbio-eremutik kanpo sortutako eskubideak edukitzaileari eskualdatzen zaizkio, eta lagapen hori letraren eskualdaketarekin lotzen da. Hori dela eta, letrak zirkulatzen duen bakoitzean ez da lagapena adierazi behar, ezta zordunari (igorpenduari) jakinarazi behar (hasierako lagapena soilik jakinarazi behar zaio; igorleak egindakoa, alegia). Hasierako lagapena jakinarazita, zordunak bakarrik ordaindu behar dio legitimaturik dagoen edukitzaileari, kanbio-letra emanez.

Hornidura lagatzeko aukera hori erabilgarria izan daiteke onargarriak ez diren letretan (26.2 artikuluan) edo, onargarriak izanik, onartzeari uko egiten zaionetan, zeren eta, igorpenduak kanbio-betebeharrik hartzen ez duenez, edukitzailearentzat irtenbide bakarra izango bailitzateke beraren aurka jarduteko, nahiz eta aurkatze hori akzio kausal baten bitartez izan. Letra onartzen baldin bada, hornidura lagatzearen garrantzia galdu egiten da, ordea; izan ere, onarpenaren bitartez igorpendua kanbio-betebehardun bihurtzen da, eta haren aurka edukitzaileak zuzeneko kanbio-akzioa jarri ahal izango du (49. artikulua).

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Aureoles Martín, A., «La protección del tenedor cambiario a través de la cesión de la provisión», *Revista de Derecho Mercantil*, 196-197, 1990, 369. or. eta hurrengoak.

Eizaguirre, J.M., «Cuestiones que suscita el artículo 62 del Anteproyecto de Ley cambiaria y del cheque (cesión de la provisión)», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 13, 1984, 33. or. eta hurrengoak.

García Pita y Lastres, J.L., *La aceptación de la letra de cambio*, Madril, 1992.

Gómez Segade, J.A., «La intervención cambiaria», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 6, 1982, 261. or. eta hurrengoak.

Menéndez, A., «La aceptación de la letra de cambio», *Derecho cambiario. Estudios sobre la Ley Cambiaria y del Cheque*, Madril, 1990, 513. or. eta hurrengoak.

—«La intervención en la letra de cambio», *Derecho cambiario. Estudios sobre la Ley Cambiaria y del Cheque*, Madril, 1990, 707. or. eta hurrengoak.

Paz-Ares, C., *La letra de favor*, Madril, 1987.

Santos, V., «La intervención cambiaria», *Estudios de Derecho Mercantil en homenaje al profesor Manuel Broseta*, III, 1995, 3527. or. eta hurrengoak.

KASU PRAKTIKOA

Kontutan harturik kanbio-harremana A-ren, B-ren, C-ren, D-ren eta E-ren artekoa dela, erantzun problema hauei:

- 1) E-k ikustetik epe zehatz batera igorritako letra jasotzen du; letran zehazten den muga-eguna zera da: ikustetik hilabetera. E-k ez daki zer egin, eta muga-egunari buruzko aholkua eskatzen dizu.
- 2) E-k, fede oneko hirugarrenak, hilaren 13an letra bat jasotzen du, klausula hau duena: «erantzukizunik ez dut izango, onarpenerako aurkezpena hilaren 15a baino geroago egiten bada». E-k, klausula horren ondorioak ezagutzen ez dituenek, ez du letra epean aurkezten. Zein dira ez-egite horren ondorioak?
- 3) E-ri, ondainketa gisa, onartu gabeko letra bat eskaintzen zaio hilaren 20an. Epemuga hilaren 22a da. Galdetzen dizu ea komeni zaion onartu gabeko letra hori jasotzea.
- 4) Demagun, aurreko hipotesian, E-k letra jasotzen duela. Hala ere, ordainketa helbideratuta dagoen bankuak uko egiten dio ordaintzeari; ondoren, igorpenduak esaten dio hurrengo egunean berriro ere aurkez diezaiola. Beharrezkoa al da? Ez al da posible erreklamatzeko zuzenean atzerabidezko betebehardunei?
- 5) Hainbat igorpenduren aurka igorritako letra bat da. E-k galdetzen dizu nori aurkeztu behar dion dokumentua. Letra onartzen ez denez, legezko baldintzak betez, E-k, epemuga baino lehen, C-ri erreklamatzeko dio ordainketa. C-k ordaintzeari uko egiten dio, literaltasun-printzipioaren arabera. Zuzena al da haren alegazioa?
- 6) B-k 700 euroengatik letra onartu egiten du (nominala 1.000 eurokoa da). E-k galdetzen dizu onarpen hori baliozkoa den eta, horrela izanez gero, ea zer egin behar duen.
- 7) B-k letra ordaintzea onartzen du, epemugan Burtsak 11.000 puntuak gaindituz gero. C-k galdetzen dizu onarpen hori baliozkoa den. Hala da, epemugan IBEXa 11.030 puntuan dago. Kontuan har ezazu A kaudimengabea dela.
- 8) Letran ezartzen da igorleak hornidurari dagozkion eskubideak lagatzen dituela, nahiz eta letra igorpenduak onartu. Epemuga helduta, kanbio-jarduna hasi baino lehen, E-k galdetzen dizu ea lagapen-klausula hori sartzea garrantzitsua den.

4. KAPITULUA

ABALA

A) Kontzeptua

Abala kanbio-adierazpen bat da, helburu bakarra duena: kanbio-letraren zenbatekoa osorik edo zati baten ordainketa bermatzea. Adierazpen horren kausa tipikoa bermea da. Helburu hori kontuan hartuta, letra bermetarako sinatzen duena (abal-emailea) kanbio-betebehardunarekin (abal-hartzailearekin) solidarioki behartzen da, azken horren erantzukizuna indartuz (37.1 eta 57.1 artikuluetan).

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 18. artikulua arabera, endosuan ere bermearen elementua agertzen da. Ikusi dugun bezala, aipatzen dugun artikulua hori betez, endosatzaileak ondorengo edukitzaileen aurrean letraren onarpena eta ordainketa bermatzen du. Dena den, endosuan bermea elementu naturala da, kanbio-tituluen berezko betebeharra, eta, gainera, bertan behera utz daitekeena, 18. artikulua jasotzen duen borondatearen autonomiari esker: endosatzaileak, kontrako zentzua duen klausula berezi baten bitartez, «nire erantzukizunik gabe» egiten duenean (18.1 artikulua); eta endosatzaileak endosua debekatzeko duenean, dagokion klausula ezarriz «agindurakoa ez». Berme-funtzioak garrantzia berezia hartzen du berme hutserako diren endosuetan. Kasu horietan letran mesede-sinadura bat edo gehiago jasotzen dira, eta sinatzaileen asmoa mesede-hartzailearen kreditua indartzea da, bere bermea gehituz. Legearen arabera, mesede-emaileak, bere sinadura letran ezarriz, kanbio-betebehardunen taldearen barruan edozein postu har dezake, alegia, onartzaile, igorle, abal-emaile edo endosu-emaile. Suposizio horretan, mesede-emaileak endosatzailearen lekua hartuko luke, letraren atzealdean sinatuz, letra hori merkataritzakoa izanik. Sinadura letraren atzealdean ezartzeak abalarekin ez nahastea saihesten du (36.2 artikulua arabera, letraren aurrealdean ezarritako sinadura soilak abal gisa balio du).

Abalaren profilak zehazteko helburuarekin, aipatuko ditugu laburki bai letraren edukitzailearentzat bai bermatzailearentzat figura horien erabilerak dituen abantailak eta eragozpenak.

a) Berme hutserako den endosatzaileak beraren sinaduraren ondoren diren edukitzaileen aurrean erantzuten du; abal-emaileak, aldiz, 37.1 artikulua arabera, abal-hartzailearen postu berdinean erantzuten du; beraz, letra sinatu aurretik diren edukitzaileen aurrean ere erantzuten du. Letra ordaindu duen onartzaileak ez du kanbio-akziorik inoren aurka; berme hutserako den endosatzaileak, berriz, aurreko sinatzaileen aurka kanbiarioki jardun dezake. Abal-emaileak, berriz, behin letra ordainduta, kanbio-akzioa jar dezake abal-hartzailearen eta azken horren aurrean kanbio-erantzule direnen aurka (37.2 artikulua).

b) Aitzitik, edukitzailearen ikuspegitik, onartzailearen eta endosatzaileen erantzukizuna, baldintzatu gabea denez, onuragarriagoa gertatzen da abal-emailearena baino, abal-

emailearen erantzukizunak muga garrantzitsuak onartzen dituelako, bereziki iraupenari dagokionez.

B) Izaera juridikoa

Abalak duen berme pertsonalaren izaera kontuan harturik (35.2 eta 37. artikulua), bere izaera juridikoa ezartzeko genero horretan figura orokorraren ezaugarriak hartu behar dira erreferentzia gisa. Figura orokor hori fidantzak osatzen du (haren erregulazioa Kode Zibileko 1822. artikulutik aurrera aurkitzen dugu).

Beste ezer baino lehen, bermearen objektua argitu behar da. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 35. artikulua lehenengo hitzei jarraituz («Letra baten ordainketa abal baten bitartez bermatu ahal izango da»), esan daiteke abala berme objektibo gisa ulertzen dela; ostera, 36.3 artikulutik («Abalak nor bermatzen den adierazi beharko du») ondorioztatzen da abala berme subjektiboa gisa eratzten dela; alegia, pertsona jakin baten portaera aseguratzea lortu nahi duela, hain zuzen abal-hartzailearena.

a) Fidantzaren ezaugarrietan sarturik, lehenengo da osagarritasunarena (Kode Zibileko 1824.1 artikuluan ezarrita: «Ezin da fidantzarik izan, baliozko betebeharririk gabe»). Horri dagokionez, esaten da fidantza ez dela berez helburua, fidantzak beti izaera osagarria izango duela. Haren edukiak ez du inoiz betebeharr nagusiari dagokiona gaitutuko, hau da, inoiz ez da hartuko betebeharr nagusiak dituen baldintzetan baino baldintza txarragoetan (Kode Zibileko 1826.1 artikuluari jarraiki: «Fidatzailearen betebeharra zordun nagusiarena baino txikiagoa izan daiteke, baina ez handiagoa, bai kopuruari begira, bai baldintzek dakartzaten kargei begira»).

Hala ere, 37.1 artikulua abala fidantzaren aurrean modu kontraesankorrean arautzen du. Horrela, lehendabizi, lehenengo esaldian ezartzen du abal-emaileak ezin izango dituela abal-hartzailearen salbuespen pertsonalak alegatu aurkapen-demandan. Horrek esan nahi du abal-emailearen betebeharra abal-hartzailearena baino karga gehiagorekin eratzten dela. Eta, bigarrenik, aipatutako artikulua bigarren esaldian ezartzen du abala baliozkoa izango dela, nahiz eta, formazko akatsa ez den edozein arrazoiengatik, bermatutako betebeharra baliogabea izan [formazko akatsa gertatuko da, adibidez, onartzailearen aldeko abal batean igorpenduak ez duenean onartu. Eraitza berera iristen da beharrezko aipamenei bat falta izanez gero (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikulua) titulua ezin denean kanbio-letra kontsideratu (2.1 artikulua). Abal-hartzailearen ezgaitasuna edo sinaduraren faltsutasuna (8. artikulua) eta ordezkartzarik eza ere (10. artikulua), aldiz, ez dira forma-akatsak kontsideratzen]. Bi esaldi horien artean dagoen harmonia ikusita, horren guztiaren ondorioa agerikoa da: abalak berme autonomoa osatzen du; alegia, ez da osagarritzkoa. Horregatik, kanbio-abala bere konfigurazioan fidantzatik urruntzen da².

² Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen Hitzaurreak honela dio: «Halaber, merezi du abalaren konfigurazioa bereziki aipatzea. Testua kanbio-adierazpen horren izaera juridikoari buruzko doktrina- eta jurisprudentzia-polemika amaitzen saiatzen da, eta, horretarako, betebeharr autonomo gisa definitzen du; hori baliozkoa izango da, formazko akatsak ez diren arrazoiengatik bermatutako betebeharra baliogabea den arren».

b) Fidantzaren bigarren ezaugarria subsidiariorotasuna da. Ezaugarri horren arabera, zordunaren ez betetzeak fidatzaileari erreklamazioa egitea dakar. Fidatzailearen betebeharra zordunaren betebeharrarekiko maila desberdinean dago. Subsidiariorotasunaren adierazpen nabarmenena eskusio-onura da (Kode Zibileko 1830. artikulua dioenez, «ezin da fidatzailea behartu hartzekodunari ordaintzera, aurretiaz ez bada egiten zordunak dituen ondasun guztien eskusioa»).

Abala ezin da subsidiario kontsideratu, abal-emailearen betebeharra abal-hartzailearenarekin solidario gisa eratzen delako. Horrela, hartzekodunak «*ius variandi*» erabil dezake. Horrela dio Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 57. artikulua «kanbio-letra bat igorri, onartu, endosatu edo bermatu dutenak erantzule solidarioak izango dira edukitzailearen aurrean», eta baita Kode Zibileko 1144. artikulua «hartzekodunak jo dezake zordun solidarioetatik edozeinen aurka edo haien guztien aurka aldi berean». Abal-emaile eta abal-hartzailearen barne harremanean, halere, ez da solidaritatea gertatzen; alegia, zordun solidarioetatik batek hartzekodunari ordaindutakoa ez da zordun guztien artean proportzioan banatzen (Kode Zibileko 1145.2 artikulua dioena ez da aplikagarri «ordainketa egiten duenak bere zordunkideei erreklama diezaietako bakoitzari dagokion zatia, aurrerakinaren korrituekin»). Fidantzan gertatzen den bezala (Kode Zibileko 1838. artikulua dioenez, «fidatzaileak zordunaren ordeztu ordaintzen badu, fidatzaile horri kalte-ordaina eman behar dio zordunak»), abal-emaileak abal-hartzailearengandik ordain osoa lor dezake, baita abal-hartzailearen aurrean kanbio-erantzuleak direnengandik ere (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 37.2 artikulua). Horren guztiaren arrazoia abal-emailearen abal-hartzailearekiko segidako mailan dagoen betebeharduna izatean aurkitzen da.

c) Azkenik, fidantzaren eta abalaren erregimenaren artean adierazi ditugun alde nabariak ez dute oztopatzen fidantzaren lege-erregulazioa abalaren erregulazio osagarri gisa analogiaz aplikatzea, abalaren berezitasunak eta kanbio-zuzenbidearen printzipio bereziak kontuan harturik.

C) Elementu pertsonalak

a) Abal-emailea: abalak adierazten duen kanbio-betebehar berezia onartuz kanbio-letra harpidetzen duen pertsona da. Eskuarki, toki hori hartzen duena kanbio-ingurutik kanpo dagoen pertsona bat da; hala ere, abal-emaile izan daiteke letraren sinatzaile bat. Honela dio Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 35.2 artikulua: «Berme hori hirugarren batek edo letraren sinatzaile batek eman dezake». Sinatzaile hori onartzailea ere izan daiteke. Egia da, oro har, onartzaileak emandako abalak ez duela izango garrantzi praktikorik, onartzailea baita betebehardun nagusi eta zuzen. Hala eta guztiz ere, zenbait egoeratan garrantzia izan dezake: adibidez, adingabekoa izanik letra onartzen badu eta behin adin-nagusitasuna lortzen duenean letra horretan abala ematen badu; edota, letraren zenbatekoaren zati bat onartuta, gerora, bere osotasunean abalaren bitartez bermatzen badu.

Abalak zenbait abal-emaile izatea ere posible izango litzateke; hala denean, «koabala» izango genuke. Nahiz eta Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legean hipotesi hori

espresuki adierazita ez agertu, haren onargarritasuna ez da zalantzan jartzen. Erantzukizuna mugatu ez ezik (35.1 artikulua: «Letra baten ordainketa abal baten bitartez bermatu ahal izango da, bai bere osotasunean, bai zenbatekoaren zati batean»), abalkideek letraren edukitzailearen aurrean toki berbera hartzen dute.

Suposizio desberdina izango litzateke abal-emailearen betebeharraren abala. Koabaletik bereizteko, hipotesi horri «subabala» deitzen zaio. Kasu horretan, abal-emaileak segidako graduako betebeharrunak dira, nahiz eta solidaritatearen erregelaren menpean egon (57.1 artikulua: «Kanbio-letra bat igorri, onartu, endosatu edo bermatu dutenak erantzule solidarioak izango dira, edukitzailearen aurrean»).

b) Abal-hartzailea: kanbio-betebeharrunak; abal-emailearen kanbio-adierazpenari esker, indartu egiten da haren erantzukizuna. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 35.3 artikulua dioenez: «Abala, letraren muga-egunaren eta ordainketaren ukatzearen ondoren izenpetu ahal izango da, baldin eta egilestean abal-hartzailea bere kanbio-betebeharretik liberatua geratu ez bada». Horrela, abalaren izenpetze-muga dena dela ere, ezinbesteko baldintza da abal-hartzaileak kanbio-betebeharrunaren izaera ez galtzea.

Testuinguru honetan, pentsa daiteke igorpendu soilaren alde abalaren bermea eman daitekeen ala ez. Garbi dago, 37. 2 artikulua arabera («Abal-emaileak kanbio-letra ordaintzen duenean, horretatik ondorioztatutako eskubideak eskuratuko ditu abal-hartzailearen eta kanbio-agirien arloan horren erantzuleak direnen aurka»), abalaren baliozkotasunak igorpenduak letra onartzea eskatzen duela. Alabaina, letra abal-emaileak izenpetuta egonik, igorpenduak onarpenari uko egiten badio, ulertzen da, onartzaileak ezean, abala igorlearen alde ematen dela (36.3 artikulua dio: «Abalak nor bermatzen den adierazi beharko du. Adierazpen hori egon ezean, onartzailea bermatu dela ulertuko da, eta, onartzailea ez badago, igorlea»); igorpenduari dagokionez, letran izendatuta ez badago, eta igorpendu soila bada, haren alde ematen den abala ondorerik gabe gelditzen da (36.3 artikulua arabera: «onartzailea ez badago, igorlea bermatu dela ulertuko da»).

c) Onuraduna: abal-emaileari letraren ordainketa eska diezaiokeen pertsona; alegia, kanbio-kredituaren titularra. Horretarako, onuradunak, letran, abal-hartzailearen osteko postua hartu behar du.

D) Baldintzak

a) Forma: formari dagokionez, 36.1 artikulua arabera: «Abala letran edo haren gehigarrian jarri beharko da. “Abal bitartez” hitzen edo beste edozein formula baliokideren bitartez adieraziko da, eta abal-emaileak sinatuko du». Aipamen horiek funtsezkoak dira. Alde batetik, 36. artikulua laugarren paragrafoan ezartzen duenez, bereizitako agirian dagoen abalak ez du sortuko kanbio-ondorerik (fidantza gisa soilik balioko du), eta bestalde, pertsona batek letraren aurrealdean sinadura jartze hutsa abalaren baliokidea izango da, sinadura hori igorpenduak edo igorleak jartzen ez badu

(36.2 artikulua). Nahiz eta paper tinbredunetan atzealdean abalarentzat leku berezi bat egon, “Abal bitartez” hitzekin hasten dena, horrek ez du eragozten letraren aurrealdean izaera bereberko adierazpena abalaren baliokidea izatea, aipatutako subjektuena izan ezik. Posibilitate hori argiagoa da zor-agirian, harentzat paper ofizialik ez baitago. Bermatzen den pertsona adierazteari dagokionez, legegileak aurreikusten du ezen, adierazpen hori egon ezean, ulertuko dela onartzailea bermatu dela, eta hori ez bada, igorlea.

Legeak ez du eskatzen abalaren data adierazterik; beraz, denboraren aipamena ez da funtsezkoa. Oro har, abala formalizatuko da edozein momentutan letraren igorpena eta beraren mugaeguna bitartean. Dena den, 35.3 artikulua dioenez, mugaeguna eta ordainketa ukatzearen ondoren ere izenpetu ahal izango da, egilestean abal-hartzailea bere kanbio-betebeharretik liberatua geratu ez bada behintzat. Halaber, formaliza daiteke bermatua den pertsonaren kanbio-adierazpenaren aurretik ere, baina, hala denean, bere eraginkortasuna adierazpena baliotasunarekin egitearen menpean geratuko da. Abal-emailearen izenari eta egoitzari dagokienez, paper ofizialean aurreikusitakoek informazio-izaera hutsa daukate, baliagarria batez ere abal-emailea auzitara eraman behar den kasurako. Baina, 36. artikuluko lehenengo eta bigarren paragrafoetan ondorioztatzen den bezala, legezko baldintza bakarra abal-emailearen sinadura da.

b) Edukia: edukiari dagokionez, aipatutako 35.1 artikulua araberan, abal partzialaren baliozkotasuna onartzen da. Arauak abala mugatzea onartzen du, nahiz eta mugatze hori zenbatekoaren zati bati murriztu. Era berean, arauak ez du eskatzen abala hutsa eta sinplea izatea (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 30.1 artikulua ezartzen duen bezala onarpena arautzean), ezta baldintzaren eragingarritasunik eza aipatu ere (15.1 artikulua egiten duen bezala endosua arautzean: «Endosua erabatekoa, garbia eta sinplea izan beharko du. Endosua mendean duen edozein baldintza ez dela idatzi ulertuko da»). Isiltasun horrek eraman du doktrina-baldintzapean dagoen abalaren eta denborazko abalaren baliozkotasuna aztertzea, baina ez da ahobatezko konklusioetara iritsi. Doktrinaren sektore bat, gehiengoa, abal baldintzatuaren baliozkotasunaren eta baldintzaren eraginkortasunaren aldeko azaltzen da. Konklusio horretara iristen dira legeak ez duelako eskatzen adierazpena garbia eta sinplea izan beharra eta abala ez delako kanbio-adierazpen beharrezko bat onarpenaren eraginkortasunerako ezta kanbio-kredituaren eskualdatzerako ere. Horregatik, pentsatzen dute abal baldintzatu onartu behar dela, baldintza kanbio-printzipioen aurkakoa ez bada behintzat (adibidez, solidarioa ez den abal-klausula bat ezartzea, abal-emailearen aurkako akzioa abal-hartzailearen ondasunen aurretiko baztertzek mendean duelarik). Klausula hori baliogabea izango litzateke, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 57. artikulua hausten duelako: «Kanbio-letra bat igorri, onartu, endosatu edo bermatu dutenak erantzule solidarioak izango dira edukitzailearen aurrean. Eramailak eskubidea izango du, pertsona horien guztien aurka banan-banan edo batera jarduteko, beren burua behartu duten ordena bete beharrik gabe».

Halere, beste autore batzuek pentsatzen dute abalean baldintzaren eraginkortasuna onartzea bateraezina dela kanbio-legearen funtsezko xedearekin; alegia, kanbio-letren kobratzeko bermea sendotzearekin. Horrela, abal baldintzatu baten aurrean, ez dago zertan abalaren existentziarik eza edo baliorik eza adierazi; baldintzak ez direla idatzi

eta abala garbia dela ulertu behar da, ez besterik.

Doktrinaren gehiengoak, ordea, denboraren arabera abal mugatua onartzen du, bankuek abala ematen duten letretan erabiltzen dena. Kasu horietan, adierazpenean muga-egunetik aurrera epe labur bat ezartzen da, eta, epe hori igaroz gero, kreditu-erakundeak ez du erantzungo (adibidez, “onartzailearen abal bitartez, ordainketaren betebeharra letraren muga-egunaren hurrengo egunetik hogeita hamar eguneko epera mugatuz”). Horrela, ziurtasunarekin eta preskripzio-epea igarotzeari itxaroten egon gabe, jakin daiteke ea abal-emaileak letra ordaintzeko betebeharrari aurre egin beharko dion. Horregatik, esan beharra dago preskripzio-epea ez dela hitzarmenez murrizten, edukitzaileak judizioz kanpoko errekerimendua egiten duelako ezarritako epearen barruan. Horrela, errekerimendu hori eginda, edukitzaileak Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 88. artikuluan ezarritako preskripzio-epea osorik gozatuko du.

E) Abalaren efektuak

a) Abal-emailearen kanbio-erantzukizuna. Eremu honetan, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 37.1 artikulua honela dio: «Abal-emaileak abal-hartzailearen erantzukizun berdina izango du, eta ezin izango du aurre egin abal-hartzailearen salbuespen pertsonalekin». Halere, lehenengo baieztapena, «Abal-emaileak abal-hartzailearen erantzukizun berdina izango du» dioena, zehaztu egin behar da, abal-emailearen erantzukizuna egon daitekeelako eta ez abal-hartzailearena; alegia, bermatutako betebeharra baliogabea denean formazko akatsa ez den edozein arrazoiengatik (37.1 artikulua ezartzen duen bezala); abal-hartzailearen erantzukizuna egon daitekeelako eta abal-emaileak bere erantzukizuna mugatuta eduki “denboraren arabera”; eta abal-hartzailea letraren zenbatekoaren osotasunean erantzulea izan daitekeelako eta abal-emailea zenbatekoaren zati batean soilik. Aipamen horrekin esan nahi da abal-emaileari ordainketa galdutako zaiola bide zuzenean edo atzerabidean, beraren abal-hartzailea nor den kontuan hartuta eta egoera berdinetan.

Hortaz, onartzailearen abal-emaileak onartzailea bezala erantzuten du, betebehardun zuzen legez, ordainketarik ezagatik, kanbio-akzioa erabiltzeko protestoa edo adierazpen baliokidea egitea beharrezkoa izan gabe; eta atzerabidezko betebehardun baten abal-emaileak erantzungo du atzerabidezko akzioa jartzeko baldintzak gertatzen direnean: beharrezkoa denean onarpenerako letraren aurkezpena, ordainketarako letraren aurkezpena eta protestoa edo adierazpen baliokidea egitea, letran “gasturik gabe” klausula izan ezik.

Bigarren aginduarekin («Abal-emaileak ezin izango du aurre egin abal-hartzailearen salbuespen pertsonalekin»), hartzekodunaren posizioa sendotu nahi da. Abalaren autonomian oinarrituta, abal-emailea formazko akatsa ez den edozein arrazoiengatik bermatutako betebeharra baliogabea denean erantzuna izateaz gainera, edukitzaileari ezingo dio aurre egin abal-hartzailearen salbuespen pertsonalekin. Gainera, abal-emaileak ezin du eskusio-onuraz gozatu (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 57.1 artikulua, Kode Zibileko 1831.2 artikuluaekin batera); horregatik, letraren edukitzaileak eskubidea du, betebehardun nagusiaren aurka jo baino lehen, abal-

emailearen aurka jotzeko. Erregela berbera balio du subabal-emailearentzat (Kode Zibileko 1882.2 eta 1831.2 artikulua).

Kanbio-solidarioritasunaren erregela koabal-emaileei ere aplikatzen zaie; horrela, letraren hartzekodunak koabal-emaile baten aurka jotzen badu, azken horrek kanbio-betebeharraren ordainketa osoa egin beharko du, eta ezin izango dio aurre egin eskusio-onurarekin edo zatiketarekin.

b) Letra ordaintzean abal-emaileak bereganatzen dituen eskubideak: eskubide horiek 37.2 artikuluan aipatzen dira: «Abal-emaileak letra ordaintzen duenean, horretatik ondorioztatutako eskubideak eskuratuko ditu, abal-hartzailearen eta kanbio-agirien arloan horren erantzuleak direnen aurka». Kasu horretan, abal-emaileak letratik ondorioztatutako eskubideak eskuratzen ditu (hau da, ez da gertatzen fidantza gertatzen dena; alegia, fidatzailea hartzekodunak zordunaren aurka dituen eskubide guztietan subrogatzen dela). Ordainketa egiteagatik, abal-emaileak *ope legis* eskubide autonomo bat eskuratzen du, eta, horren ondorioz, betebeharrarekin ezingo diote aurre egin, asetako hartzekodunarekin zituzten harreman pertsonaletatik jaiotako salbuespenekin.

Abal-emaileak, atzerabidean dagoen edozein betebeharraren bezala, abal-hartzailearen eta kanbio-agirien arloan abal-hartzailearen erantzuleak direnen aurka ordaina erreklamatzeko akzioa du. Subabala egonez gero, subabal-emaileak letra ordainduz gero, ordaina erreklamatzeko akzioa ezar dezake subabal-hartzailearen aurka eta subabal-hartzailearen erantzuleak direnen aurka, haien artean abal-hartzailea dagoelarik.

Azkenik, koabal-emaileei dagokienez, letra ordaintzen duen koabal-emaileak ordaina erreklamatzeko kanbio-akzioa ezar dezake abal-hartzailearen eta kanbio-agirien arloan abal-hartzailearen erantzuleak direnen aurka. Baina, beste koabal-emaileen aurka ezingo du kanbio-akziorik ezarri. Itzulera-akzio zibila soilik ezar dezake, beste koabal-emaileei ordaintzea dagokien zati proportzionala erreklamatzeko (Kode Zibileko 1844.1 eta 1145.2 artikulua). Bakoitzaren proportzioa zehazteko, haien arteko betebeharraren banaketari buruzko balizko barneko ituna kontuan hartu beharko da, eta, itunik ezean, zati berdinen erregela subsidiarioa. Koabal-emaile haietako bat kaudimengabe gertatzen bada, haren zatia besteei gehituko zaie proportzio berean (Kode Zibileko 1844.2 artikulua 1145.3 artikuluaekin lotuta).

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Añoveros Trias de Bes, X., *El aval cambiario*, Madril, 1990.

Calvo Alfageme, A., *El aval*, Madril, 1993.

Fernández-Albor, A., *El aval cambiario*, Madril, 1992.

Infante Ruiz, F.J., *El aval cambiario*, Tirant Lo Blanch, 2004.

Pérez de la Cruz, A., «La letra de cambio», *Lecciones de Derecho Mercantil* talde-lana, Aurelio Menéndez Zuzendaria, Aranzadi, 2007, 861-862 or.

Rojo, A. J., «El aval de la letra de cambio», *Derecho cambiario. Estudios sobre la Ley Cambiaria y del Cheque*, Madril, 1986, 549. or. eta hurrengoak.

Sánchez-Calero Guilarte, J., «El aval de la letra de cambio», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 46, 1992, 331. or. eta hurrengoak.

—«El aval cambiario», *Estudios de Derecho Bancario y Bursátil: homenaje a E. Verdura*, III. Liburukia, 1994, 2387-2426 or.

Zurimendi Isla, A., «Avales limitados», *Revista de Derecho Mercantil*, 239, 2001, 171-198 or.

KASU PRAKTIKOA

Merkataritzako sozietate baten kudeatzailea zure bulegoan aurkezten da, eta galdera hauek egiten dizkizu:

1) Kudeatzaile hori kanbio-letra baten hartzailea da. Letra horren igorlea zein igorpendua kaudimengabeak dira. Kreditu-erakunde batek igorleari abala ematen dio, nahiz eta adierazpenean ezarri letraren zenbatekoaren erdiagatik soilik erantzuten duela. Hartzaileak galdetzen dizu ea aipamen hori zuzena den, kontuan harturik Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 37. artikulua ezarritakoa: «Abal-emaileak abal-hartzailearen erantzukizun berdina izango du...». Jakin nahi du ea letraren zenbateko osoa erreklama dezakeen edota abal-emaileak babesterik daukan salbuespenen bat alegatuz.

2) Kudeatzaile horrek letra bat sinatzen du, lagun batekin batera, onartzailearen koabal-emaile bezala. Erreklamazio baten aurrean, onartzailea baino lehen ordaindu behar du? Letraren zenbateko osoa ordaindu behar du? Zenbat erreklama diezaioke beste koabal-emaileari? Beste horri erreklamatzeko zein defentsabide ditu?

3) Kudeatzaile horrek kudeatzen duen merkataritzako sozietateari letra batean abala eman nahi dio. Eman iezaiozu informazioa abalaren baldintzei eta kanbio-adierazpen horren ondorioei buruz. Ondoren, letra sinatu aurretik, galdetzen dizu ea abal partziala posiblea den eta ea solidarioa ez den abal bat egiterik dagoen.

4) Letraren epemuga helduta, ordainketa erreklamatzeko zaio atzerabidean. Ordaindu baino lehen, jakin nahi du zein diren baldintzak ordainketa berari erreklamatzeko eta zer eskubide eskuratzen dituen ordainduz gero.

5. KAPITULUA

KANBIO-LETRA ESQUALDATZEA: ENDOSUA

I. SARRERA

1. Kanbio-letra eskualdatzeko erak

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak kanbio-letra bera eta berari dagozkion eskubideak eskualdatzeko era zehatz bat jasotzen du, *endosua* alegia. Dena den, Legeak jasotzen dituen arau zehatz horietaz gain, merkataritzako arauetara eta arau zibiletara ere jo beharko da letraren eskualdatze-prozesuari dagokionez. Izan ere, kanbio-letra eskualdatzeko endosuaz gainera, lagapen arruntaz ere eskualda daiteke (Kode Zibilaren 1526. artikulua eta ondokoak).

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 14. artikulua dokumentua eskualdatzeko erak jasotzen ditu: "Kanbio-letra agindura igorrita ez badago ere, endosuaren bidez eskualda daiteke".

Igorleak kanbio-letran *agindurakoa ez* den klausula edo antzeko adierazpena idazten badu, kanbio-letra ez da endosuaren bidez eskualdagarria izango, eta, titulua eskualdatzeko, ohiko lagapenaz baliatu beharko da.

Endosua pertsona baten baino gehiagoren alde egin daiteke. Batetik, endosua igorpenaren alde egin daiteke, igorpenaren kanbio-letra onartu izana edo ez. Bestetik, endosua igorlearen edo beste edonoren alde ere egin daiteke, baldin eta horiek ordaintzera behartuta badaude. Era berean, aipatu ditugun subjektu horiek guztiek dokumentua berriro ere endosatu egin dezakete.

2. Kanbio-endosuaren garrantzia

Kanbio-letran endosu-klausula edo antzeko adierazpenak jarri ahal izatea merkataritzarako eta trafikorako ezinbesteko tresna ekonomiko-juridikoa da; izan ere, negozioak gauzatzeko eta eragiketa ekonomikoak finantzatzeko, garrantzitsua da kanbio-letra eskualdatzea.

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen II Kapituluak erregulatzen du kanbio-letraren endosua. Araudi hori kanbio-letrarentzat garrantzizkoa izateaz gainera, oso garrantzitsua da agindura igortzen diren gainerako tituluentzat ere. Hau da, akzio eta betebeharrak izenduntzat edo *traditio* titulu guztientzat. Beraz, endosua ohiko *traditio*

titulu eramaileekin batera dokumentuak transmititzeko ezinbesteko tresna juridiko ekonomikoa da.

Kapital-Sozietateen Legearen (KSL) akzio izendunak eskualdatzeari buruzko arauak (120. artikulua) Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen II. kapituluko arauetara jotzen du titulu horiek saldu nahi direnean. Igorpen bera egiten du Kapital Sozietateen Legeak betebeharrak izendunen eskualdaketa gauzatu nahi denean. Gainerako *traditio* tituluetan ere antzeko igorpena egiten da, kreditu dokumentarioari dagokionez alegia (Merkataritza Kodearen 194. eta 708. artikulua).

3. Endosua: kontzeptu orokorra eta endosu motak

Endosua berez agindura igortzen diren tituluak eskualdatzeko erarik egokiena da. Eta eragiketa hori behar bezala ulertzeko, jabetzaren kontzeptu juridiko erreala hartu behar da kontuan; izan ere, kontzeptu horrek balore-tituluen eskualdatze-prozesuan eragin garrantzitsua izango du. Kanbio-letra endosatzen dugunean, endosu horrek, lehendabizi, paperaren jabetza eskualdatzen du, eta, horren ondorioz, paper edo titulu horren gaineko eskubide guztiak ere pasatzen ditu (KLTL 14.1 eta 17 artikulua).

Beraz, paperak (dokumentuak) laguntza ematen dio Zuzenbideari eta, nolabait, horren zerbitzura dago. Ondorio hori atera daiteke Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 17.1 artikulua irakurtzetik; izan ere, endosua kanbio-letra bera eskualdatzeaz gainera, haren gaineko eskubide guztiak ere eskualdatzen ditu. Era berean, arau horrek kanbio-letraren eraginkortasun egikaritzaila ere agerian uzten du, zeren eta eskualdatze-funtzioak kanbio-letrari berari bakarrik baitagokio eta ez gainerako erlazio estrakanbiarioei.

Endosua dituen ezaugarriei begira, bi motatakoak izan daitezke. Endosua Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 17. artikulutik 20.era jasotzen diren ondorioak baldin baditu, *osoko endosua* izango da, eta 21. artikulutik 22.era jasotzen direnak baldin baditu, berriz, *endosu mugatua* izango dira.

II. OSOKO ENDOSUA

1. Kontzeptua eta izaera juridikoa

Osoko endosua dela medio, endosu-emailea kanbio-letran edo haren eranskinean egindako kanbio-adierazpenaz baliatzen da kanbio-letraren eskubide guztiak hirugarren bati (endosu-hartzaileari) eskualdatzeko (KLTL 17.1 artikulua).

Endosua gainerako kanbio-adierazpenen izaera juridikoa dauka, hau da, endosua kanbio-letraren gainean eta atzealdean³ egindako sinadurarekin edo zigiluarekin

³ *Dorsoan* gazteleraz, hortik dator “en doso” izena

gauzatuko da. Endosuak oinarrian negozio-izaera izan arren, gainerako kanbio-arauen derrigorrezko izaera dela medio, borondatezko autonomia-printzipiorako aukera txikia edukiko du, bi kasutan bakarrik. Lehenengoa, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 18.1 artikuluan jasotzen da. Hau da, endosu-emaileak bermatuko ditu kanbio-letraren onarpena eta ordainketa ondoren datozen edukitzaileen aurrean dokumentuan kontrako klausularik jaso ez denean. Bigarrena, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 18.1 artikulua bigarren paragrafoan jasotzen da: “endosu-emaileak debeka dezake endosu berri bat egitea letra horren gainean. Horrelakoetan ez du ondoren datozen edukitzaileen aurrean erantzungo”.

Beraz, endosuaren izaerak borondatezko autonomia-printzipiorako aukera gutxi dauka. Hori bistan dago Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 15. artikuluan, zeinetan arauak endosu mugatua debekatu egiten duen erabat.

Paperaren jabetza eskualdatzea egintza juridiko bat denez, kanbio-adierazpena egitea soilik ez da nahikoa, eta dokumentua endosu-hartzaileari eskualdatu egin behar zaio (*titulu eta modu* teoriak agintzen duen bezala eskubide errealak eskualdatzeko (KZ 1609. eta 1095. artikulua). Beraz, endosuak, gainerako kanbio-adierazpenak bezala, emate-kontratu erreal baten izaera dauka. Hala ere, endosuak baditu lagapen arruntetik bereizten diren funtzioak; funtzio horiek Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 17. artikulutik 19. artikulura jasotzen dira, eta aurrerago zehaztuko ditugu.

Emate-kontratuak, endosu-emaileak gauzatzen duen egintzak, agindurako titulu orotan bezala, xedatze-eraginkortasuna (dispositiboa) dauka, eta, haren bidez, paperaren jabetza eskualdatu egiten du. Horrez gain, kanbio-titulua denez (zor-agiria edo txekea bezala), kontratuak agindu-izaera dauka, zeren eta kontrako klausularik ezean endosu-emaileak bermatu egiten baititu kanbio-letraren ordainketa eta onarpena (KLTL 18.1 eta 124.1 artikulua). Bestelako egoeraren aurrean aurkitzen gara berme-endosuan. Izan ere, horrek derrigorrezko ondorioak soilik sortzen ditu.

Zuzenbide komunaren arabera, endosuak eratorritako eskuratzea dakar beti. Horrek hau esan nahi du eskurapen bat beste eskualdatzaile baten laguntzaz eginez gero eskurapen hori beti eratorria izango dela.

2. Endosuaren forma

Endosua *osoa* edo *mugatua* izan badaiteke ere, kanbio-letra agindurako titulu gisa igortzen da (KLTL 14. artikulua). Horrek ez du esan nahi *agindurako klausula* espresuki jarri behar denik (MK 466.1 artikulua), baizik eta “*agindurakoa ez*” den klausula edo antzekoa ez dela dokumentuan jaso.

Demagun talde baten menpeko sozietate batek taldearen beste sozietate baten akzioak erosten dituela. Eragiketa dirutan gauzatzen ez denez, une horretan eskuratzaileak kanbio-letra bat onartzen du prezio osoagatik eta taldearen sozietate menperatzaileak bermatzen du eragiketa igortzaile bezala. Sozietate saltzaileak hartzaile-izaera hartzen du, eta bere obligazioak behar bezala bete ditzan, akzioak saldu egiten baititu,

agindurakoa ez den klausula jasoko du letran. Hori dela eta, *osoko endosuaren* funtzio bereziak ezin izango dira erabili.

Endosua kanbio-letran edo haren eranskinean idatziko da, eta endosu-emaileak sinatuko du (KLTL 16.1 artikulua). Beraz, formalki endosua kanbio-klasusula izaera dauka. Kanbio-letra zuria denean bakarrik eskatuko da endosua letraren atzealdean (*dorso*) egiteko, gainerako kasuetan letraren aurrealdean (*anverso*) egin daiteke. Atzealdean egiten denean, endosu bat dela suma daiteke, baina aurrealdean egiten denean hobe beharrez endosu-klausula dela zehaztu behar izango da.

Endosuan, igorpenean ez bezala (KLTL 1. artikulutik 7. artikulura), ez da data jarriko. Beraz, data, endosu-emailearen egoitza eta horri buruzko edozein datu ez dira beharrezkoak, nahiz eta interesgarriak izan.

Endosu-emailearen adierazpenak ez du formulazio edo forma zehatzik behar. Kanbio-letraren agindurako izaera dela medio, inpreso edo dokumentu ofizialean itsatsia duen formula ontzat ematen da: “*ordaindu ...-ari*”, Tarte horretan, kanbio-letra eskuratzen duenaren izena edo endosu-hartzailearena jarriko da. Horrela, *osoko* endosua izateaz gainera, erabat osatuta ere egongo da; hori izan ezean, endosu *zuria* litzateke.

3. Endosu zuria

Osoko endosua izateko, nahikoa du endosu-emailearen sinadura (KLTL 16. artikulua). Beraz, endosu-hartzailearen izena jartzea borondatezko baldintza izango da. Azken hori falta bada, endosua ez da deuseza izango, *zuria* baizik. Dena den, egitate juridiko hori ez da nahastu behar letra zuriarekin.

Endosu zuria, berez, osoko endosua izango da, zeinetan endosu-hartzailearen izena jartzen ez den; endosua kanbio-letraren atzealdean endosu-emailearen sinadura bakarrik eramango du, eta edukitzaileak letra zuria berriro ere endosa dezake osoko endosua erabiliz (KLTL 17.2.2 artikulua).

Lehen esan dugun bezala, endosu zuriak ez dauka zer ikusirik letra zuriarekin, jurisprudentziak eta doktrinak maiz nahastu egiten badituzte ere. Beraz, zuri endosatutako kanbio-letra bat ezin da parekatu eramailearentzako titulu batekin. Hori dela eta, KLTLaren 15. artikulua espresuki hau jasotzen du: “endosu batek, eramailearentzako egiten denean, endosu zuriaren balioa izango du”.

Era berean, endosu zuriak ez dakar berekin edukitzailea legitimaturik ez egotea KLTL 17.1 artikulua jasotzen dituen eskubideak egikartzeko edo letraren eskubide horiek ezin gauzatzea bere izena dokumentuan agertzen ez delako. Interpretazio hori ez da bat ere zuzena, eta ez dator bat KLTLren eta 17. artikulua espirituarekin.

Izan ere, edukitzaileak, letra zuria bere izenarekin endosatzean, letra zuria delako egintza juridiko horrek ondorio jakin batzuk izango ditu (KLTL 17.2.1 artikulua), baina horrek ez du esan nahi Legeak jasotzen ez duena eskatzen denik. Beraz, endosu zurian eduditzaileak bere izena ez jartzeagatik ez ditu eskualdatze-eskubideak galduko (KLTL 17.1 artikulua). Alderantziz, edukitzailea legitimaturik dago eskualdatze eskubideak

gauzatzeko, nahiz eta azken endosua zurian egon (KLTL 19.1 artikulua). Hitz batez, endosu zuria osokoa da, nahiz eta erabat osatuta ez egon.

Mende batez jurisprudentziak eta legeriak endosu zuria oker tratatu bazuten ere, endosu honek bere abantailak baditu. Horietako bat kanbio-letraren edukitzaileari anonimotasun bat ematen dio, eta horrek Kanbio Letra eta Txekari buruzko Legearen 18.1 artikulua jasotzen duen berme-betebeharrak ez erantzutea ekar dezake. Era berean, edukitzaileak banku batean eta diskrezio osoz kanbio-letra deskonta dezake berriro endosatuz.

Dena den, endosu zuriak baditu desabantailak ere. Izan ere, letraren edukitzailea babesik gabe geratzen da iruzurgile baten jokaeraren aurrean, iruzurgileak kanbio-letraren ez-bidezko eskualdaketa egin baitezake. Osoko endosua egiten denean, berriz, azken endosu-emailearen sinadura agerian dago, eta horrek letraren gaineko berme gehigarria ematen dio. Endosu zurian, iruzurgileak azken endosu-emailearen sinadura aizundu (faltsifikatu) beharko luke.

4. Osoko endosuaren funtzioak

Kanbio Letra eta Txekari buruzko Legearen 17. artikulutik 19. artikulura, Genevako ereduari jarraituz, osoko endosuaren hiru ondorioak zehazten dira:

4.1. Legitimazio-funtzioa

Kanbio-letraren edukitzailea legitimaturiko eramailea izango da, baldin eta etenik gabeko endosuak frogatzen baditu (*endosu-katea*) eta nahiz eta azkenekoa zuria izan. Hori dela eta, ezabatutako endosuak jarrita egongo ez balira bezala hartuko dira (KLTL 19.1.1 artikulua). Horrek ez du esan nahi legitimazioak endosu-kate bat eskatzen duenik, baizik eta horrelako egoera bat gertatzen denean edukitzailearen legitimazioa frogatzeko nahikoa izango dela endosuen arteko katea erregurralla izatea. Horren ondorioz ez da begiratu beharko une oro ea egindako adierazpena egiazkoa den, eta sinadura ere ez da egiaztatu beharko (KLTL 46.3.2 artikulua).

Endosu-katearen balioa Ondasun Higiezinaren Zuzenbidean Erregistroak betetzen duen papera betetzen du (Jabetza Horizontalaren Legea –JHL– 38.1 artikulua).

Beraz, kanbio-letraren edukitza beharrezko baldintza izan arren, ez da nahikoa izango eskubide horri dagokion akzioa gauzatzeko; izan ere, edukitzaileak frogatu beharko du letra-hori edukitzan duela endosu-katea dela bide.

Endosu-katea frogatetik, edukitzailearen kanbio-kredituaren titularitatea ondorioztatzen da. Edukitzaileari legezko legitimazio materialaren presuntzioa aitortzen zaio. Baina legitimazio hori, berez, formala da. Hori dela eta, edukitzaileak ez du frogatu beharko bera titularra edo kanbio-hartzekoduna denik (Prozedura Zibilaren Legea –PZL– 385. artikulua); zordunak, aldiz, endosu-katea irregularra dela frogatu beharko du. Azken hori frogatuko balitz, edukitzaileak galdu egingo luke legezko

legitimazio materialaren presuntzioa, eta berak frogatu beharko luke bere eskubideari buruzko etenik gabeko egitateak. Hala ere, edukitzaileak eten hori zuzenbide komunekeo *mortis causa* oinordetza (suzesio unibertsala) eskualdatze bat eman dela frogatuko balu, berriro ere zordunak frogatu beharko luke edukitzaileari ez dagokiola aipatutako kanbio-eskubide hori.

Edonola ere, kanbio-letraren izaera egikaritzaila dela medio, kanbio-hartzekodunak bere izaera frogatzeko dokumentua beharko du beti.

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67.2.2 artikulua edukitzailearen legitimazioa falta dela esaten duenean, jurisprudentziak edukitzailearen legitimazio aktiboa (*legitimazio ad causam*) falta dela interpretatzen du. Eta legitimazio aktiboaz ari direnean, *legitimazio formalaz* zein *materialaz* ari dira. Azken horrek bidezko jabetzarik ez izatea dakar.

Endosu-katea eteten denean, hau da, kanbio-letraren zirkulazioa estrakanbiarioa (kanbio-bidetik at) denean, nahiz eta endosu-emailea egitatezko jabetza izan, ezin da kanbio-erlaziorik berriro hasi. Horregatik, endosu-emaileak letra berriro endosatuko balu, ohiko lagapena (zesio arrunta) da⁴.

Edukitzailearen legitimazioa letrari dagokion atzerabidezko bidetik osatu behar da (KLTL 60. artikulua).

Edukitzailearen aldeko legitimazioak zordunaren alde ere egiten du; izan ere, zordunari dezentente arintzen zaio egin behar duena zorra kitatzeko kanbio-letraren edukitzailea dokumentuaren jabea dela bermatzen bazaio (KZ 1162. artikulua). Hori dela eta, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 46.3 artikulua hau esaten du: “muga-eguna iristen denean, zor-agiria ordaintzen duena zorraz liberatu egingo da, ez badu dolu edo erru larriarekin jokatu edukitzailearen legitimitatea estimatzeko garaian”. Hau da, zordunak endosu-katea formalki aztertu izanarekin nahikoa du edukitzailearen titularitate erreala frogatzeko.

Hori kontuan izanik, zordunak bere betebeharra ongi beteko badu, endosu-katearen erregularitatea aztertzeaz gainera, ordainketa eskatzen dionaren identitatea ere aztertu beharko du beti, eta ez bakarrik akats baten susmoa duenean. Era berean, irregularitate baten berri izatea ez da nahiko zorra ez ordaintzeko; horrelakoetan, berandutzan sartuko da, eta horrek geroago galerak konpentsatzea ekarriko du (KLTL 58.1.2).

4.2. Eskualdatze-funtzioa

Endosuaeren eskualdatze-funtzioa dela bide, endosua kanbio-letraren eskubide guztiak eskualdatzen ditu (KLTL 17. artikulua), baina horiek bakarrik eta ez beste batzuk

⁴ De EIZAGUIRRE, J.M., 177 or., ez dator bat ideia horrekin. Haren ustez, endosu-katea etengo balitz, edukitzailearen legitimazioa frogatzeko zailtasuna handituko litzateke, baina, horregatik, kanbio-letrak ez luke berezko izaera galduko edo ez zen beraren izaera devaluatuko. Hau da, ez litzateke *agindura ez den* letra bat izango.

(KLTL 69. artikulua). Endosuak, beraz, papera ematearekin batera, kanbio-adierazpena eskatzen du, nahiz eta, lehen esan dugun bezala, batzuetan kanbio-letra zurian joan.

Endosuaren bidez egindako eskualdatzeak kanbio-letra eskuratzen duenari babes handiagoa ematen dio, ohiko lagapenak baino. Fede oneko endosu-hartzaileak *exceptio ex iure tertii* direlakoaz babestua geratuko da; hau da, endosu-hartzaileak ez ditu igorlearen eta aurreko edukitzaileen aurka arlo estrakanbiarioan demandatuak ezar ditzakeen salbuespenak jasoko (KLTL 20 artikulua). Atzerabidezko salbuespenak, berriz, KLTL 67. artikuluan jasotzen dira.

4.3. Fede oneko eskuratze funtzioa (KLTL 19. artikulua)

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 19. artikulua fede oneko edukitzailearen alde egiten du. Izan ere, eskuratze modu berezia esleitzen dio eskualdatze-prozesuari, zeinaren bidez letra hori errebindikatzea zail samar bihurtzen duen. Hori dela eta, edukitzaile batek kanbio-letra etenik gabeko endosuen bidez eskuratu duela ziurtatzen badu, bera izango da legearentzat edukitzailea, nahiz eta azken endosua zurian jaso (legitimazio formal).

Fede oneko eskuratzaileren izaera benetako eskubidearen itxura juridikoaren printzipioak ematen dio, eta Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 19. artikulua jasotzen du, nahiz eta arauak erabiltzen duen formula Genevako eredutik aldentzen den (Lege Uniformea –LU– 16.2 artikulua). Gure aburuz, eskuratzaileren fede oneko neurria erabiltzea ontzat jo daiteke. Hau da, fede ona dela-eta benetako eskubidearen irudia eman duena geratuko da babestua, eta ez beste inor (KZ 433. artikulua). Hala ere, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 19.2 artikulua hutsune bat dauka kontu horri dagokionez, zeren eta ez baitu zehazten zer ardura (diligentzia) maila eskatu behar den fede ona dagoela esateko edo arduragabeko jarrera egon dela esateko. Hutsune hori betetzeko, kontrako egoeraren irizpideetara jo daiteke: erru larririk ez egotea eta gutxieneko ardura jarri izana izango dira ohiko neurriak itxura juridikoak ematen duen irudi okerretik ateratzeko.

Oro har, esan daiteke benetako eskubidearen itxura juridikoaren babesa jasotzen duenak Lege Uniformeak horren inguruan eskatzen duenarekin bat datorrela (LU 16.2 artikulua). Izan ere, Lege horrek eskatzen duen ardura-maila berdina da: “fede ona eta erru larririk ez izatea”. Era berean, aztertzen ari garen arauak, KLRLko 19. artikulua, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. artikulua, antzeko suposizioan, eskatzen duenarekin ere bat egiten du.

Gaiarekin jarraituz, hauek dira endosuaren eskuratze-egintza juridikoak izan ditzakeen akatsik (biziorik) esanguratsuenak:

a) Eskualdatzailearen ahalmenik eza. Ezkutuko endosu mugatuaren kasurik nabarmenena daukagu. Horrelakoetan, eskuratzaileren fede onak eta errurik ez izateak eskuratzailera babestu egingo dute.

b) Eskualdatzailearen ordezkartzarik eza. Endosuaren legitimazio formalaren funtzioarekin bat etorriz (KLTL 19.1 artikulua), eskuratzaileren akats hau (*falsus procurator*) zuzendu egingo da, eta eskuratze-egintza juridikoa baliokidetu egingo da.

Eskuratzaillearen akats hau azken endosua bere kontura egin denean edo endosua zurian egin denean sortu ohi da.

c) Eskualdatzaillearen ahalmenik eza ezgaituen kasuan. Horrelakoetan, ahalmena ezin da baliokidetu. Kontzepzio hori bat dator Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 8. artikulua ezgaituen ondarea babesteko ematen duen irtenbidearekin. Berdin gertatzen da konkurtso-kasuetan hartzekodunen ondasunak defendatzeko halabeharrezko neurriak jartzen direnean. Zeren eta konkurtso-kasuetan, ondasun horiek xedaezin bihurtzen direnean, aztertzen ari garen eskuratze hori deuseza bailitzateke konkurtsoaren atzerabidezko akzioetan.

d) Eskualdatzailleak endosua faltsifikatzen duenean, berriz, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 19. artikulua ez du egoera hori babestuko. Hala ere, fede oneko eskuratzailleak eskatzen zaion ardura jartzen badu eta endosu-emailearen identitatea ziurtatzen badu, jaso dezakeen dokumentu faltsuaren aurrean babestuta geratuko da. Izan ere, benetako eskubidearen itxura-printzipioak egoeraren aparientzia objektiboa sortu du.

4.4. Berme-funtzioa

Endosu-emaileak kanbio-letraren ordainketa eta onarpena bermatzen ditu ondorengo edukizaillearen aurrean (KLTL 18 artikulua). Beraz, endosua duen berme-funtzioak igorpenak duen bermearekin antza handia du (KLTL 11.1 artikulua). Dena den, ondorio hori gainerako kanbio-titulu guztien berme-betebeharra besterik ez da, baina ez, ordea, agindurako titulu guztiena. Hori jasotzen du Kapital Sozietateen Legearen 120. artikulua. Zeren eta artikulua horrek akzio izendunak agindurako tituluak bezala tratatu arren, akzio horiei ez zaie Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 18. artikulua aplikatuko.

Dena den, berme-betebehar hori baztertu daiteke borondatezko autonomiaren printzipioa erabiliz (KLTL 18 artikulua). Hori dela eta, endosu-emaileak “beldurrezko klausula” jar dezake, eta igortzailleak baino askatasun handiagoa izan, zeren eta Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 11. artikulua igortzailleari hori egitea debekatu egiten baitio. Aipatutako Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 18. artikulua dioenez, aldiz, endosu-emaileak endosua debekatu egin dezake “agindurako ez”, “endosatzea debekatuta” eta antzeko klausulak erabiliz. Horrelako kasuetan, endosu-emaileak ez du, klausula hori jarri denetik, ondorengo endosu-emaileen aurrean erantzungo, baina bai hurrengo endosu-emailearen aurrean, azken batean horrelako klausula jartzeko endosu bat egin behar baita.

Endosu-adierazpenak berebiziko garrantzia hartzen du berme-endosuen kasuan, zeren eta haien helburua bermatzea baita eta ez endosua egitea. Horrelakoetan, mesedeko sinadurak erabil ohi dira; haien bidez, harpidedunek kanbio-letraren kreditua indartu egin nahi dute besterik ez. Horretarako, kanbio-letraren atzealdean sinadura bat bestearen atzetik jartzen dute hurrenkera gordez, endosu-katea alegia. Baina, esan dugun bezala, ez da kanbio-letraren eskualdaketarik gertatuko, banketxearen eskuetan egongo da beti berme modura.

Sinadura horien balioa hainbat lurraldetan eztabaidagarria da, eta bestetan ez, ordea. Sinadura horiek kanbio-letraren atzealdean doazelako ez dira abalarekin nahastuko. Era

berean, endosua kanbio-adierazpena denez, endosu-emaileak aurreko sinatzaileen aurrean atzerabidezko eskubideak egikaritzeko aukera izango du (KLTL 57. eta 59. artikulua). Dena den, endosu-emaile mota honetako bat baino gehiago dagoenean, hau da, sozietate baten bazkideek bankuak emandako kreditua eskuratzen dutenean, ezin izango dituzte aipatu ditugun atzerabidezko eskubideak gauzatu, zeren eta bazkide horiek Kode Zibilararen 1145. artikulua araberako zordun solidarioak izango baitira.

III. ENDOSU MUGATUAK

1. Ahalordetze-endosua

Endosu mota hau kanbio-ahalordetza gauzatzeko era bat da (KLTL 21. artikulua). Endosu-emaileak endosu-hartzaileari kanbio-letra kobratzeko agindua ematen dio; hau da, kanbio-ahalmena ematen dio, eta horregatik deitzen da berariazko ahalordetze-endosua. Egoera hori beste adierazpen batzuen bidez ere lortzen da; besteak beste, adierazpen hauen bidez: “ordainketarako balio du”, “ahalordez balioa konpentsatzeko eta kontuan sartzeko balio du”⁵, etab. Beraz, ahalordetzeko endosua mugatua dela esan dezakegu, eta haren helburua ez da kanbio-letraren ordainketa gauzatzea edota bermea lortzea, baizik eta egintza juridiko horren ahalordetza ezartzea (errepresentazioa).

Endosu mota honen bidez, endosu-hartzaileak, ordezkaritza dela medio, kanbio-letra kobratzeaz gainera, dokumentu horren gainerako eskubide guztiak gauza ditzake, besteak beste, epailearengana joateko eskubidea. Hala ere, kanbio-kredituaren titularrak endosu-emailea denez, bera izango da legitimazio materialaren jabea. Hori dela eta, kanbio-betebeharra duten pertsonen dokumentuaren edukitzailearen aurka bakarrik endosu-emailearen aurka egikari ditzaketen salbuespenak aurkatzeko eskubidea izango dute (KLTL 21.2 artikulua). Era berean, ordezkaritza jaso duen mandatu-hartzaileak edo endosu-hartzaileak kanbio-letra endosa dezake, baina kobratzeko helburuarekin bakarrik (kobratzeko komisioa edo kobro-kudeaketa).

Ahalordetze-endosuaren forma bat ezkutuko ahalordetze-endosua da. Kasu horretan, ahalordetzak helburu berbera eduki arren, ez du Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 22. artikulua eskatutako forma gordeko. Beraz, egintzak osoko endosu baten itxura sor dezake, eta fede oneko hirugarren batek, ezkutuko kobratzaile horrengandik, dokumentua eskura dezake (KLTL 19.2 artikulua).

Atal honetan komeni da, dena den, ezkutuko endosua eta fiduzia-endosua bereiztea. Ezkutuko ahalordetze-endosuak ahalordetzarako berariazko endosuak duen kausa edo arrazoia berbera dauka, hau da, mandatu. Baina fiduzia-endosuak, gainerako negozio fiduziarioetan bezalaxe, jabetza bere osotasunean eskualdatzea du helburu.

⁵ Nazioarteko merkataritzan ondoko terminoa erabili ohi da: “value for collection”

2. Berme-endosua

Kanbio-letrak kanbio-kredituaren balio berbera ordezkatzeko du. Beraz, haren gainean prenda bat (bahitura) ezar daiteke. Zuzenbide Zibilaren arabera, horrelako kasuetan fedatario publikoaren parte-hartzea beharrezkoa bada ere (KZ 1885 artikulua), kanbio-letraren kasuan Zuzenbide Zibilaren hainbat arau ez dira aplikatuko, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 22. artikulua jasotzen duen bezala. Zuzenbide Zibilaren arau horiek, murriztapen teleologikoa erabiliz, ez dira kanbio-letraren kasuan aplikatuko. Arau horien artean hauek aipa daitezke, besteak beste: ez da paktu komisarioa debekatzen duen araua aplikatuko (KZ 1859 artikulua) ezta enkante publikoa egitea eskatzen duen araua ere (KZ 1872 artikulua).

Beraz, “berme-balorea” edo “prenda-balorea” espresioek mugatu egiten dute kanbio-eskubideak gauzatzea, endosuaren izaera mugatuz. Horrek hau esan nahi du lehendabizi betebeharrak nagusia bete egin behar dela. Hori gauzatu ondoren, kanbio-letraren jabeak endosu-emailea edo zordun pignorazioa izaten jarraituko du, eta edukitzaileak edo hartzekodun pignorazioak egindako endosua, berriz, kobratzeko bakarrik balio du (KLTL 22. artikulua, *in fine*). Horren ondorioz, berme-endosuan endosu-emaileak indartu egiten du pignoratuak kanbio-letraren kreditua.

Endosu-hartzailearen salbuespenei dagokienez, ez da ahaztu behar endosu-hartzaileak bere interesak defendatu nahi izango dituela. Horrek endosu-emailearen eta endosu-hartzailearen arteko harremanaren interesak banatzera eramaten du (KLTL 22. artikulua). Hori dela eta, kanbio-betebehardunak edukitzaileari ezin dizkio endosu-emailearekin duen erlazio pertsonalaren salbuespenak ezarri, edukitzaileak kanbio-letra jaso duenean zordunaren kaltetan jokatu ez badu bederen. Beraz, salbuespen estrakanbiarioei buruz Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 20. artikuluko eredu berbera ezartzen da hemen.

Kasu honetan, berme-helburua agerian uzten ez duen osoko endosura ere jo daiteke. Horrelakoetan, endosu-hartzaileak fede onez eskura lezake kanbio-letra, eta salbuespenen erregulazioa ez da aldatuko, zeren eta Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 22. artikulua bat egiten baitu 20. artikuluekin.

Laburbilduz, hau esan dezakegu: ahalordetze-endosua ezin da berme-endosu fiduziarioarekin nahastu.

IV. KANBIO-LETRAREN GELDIARAZPENARI BURUZKO BANKUEN ARTEKO HITZARMENA

1. Aurrerakina

Kanbio-letra ordaintzeko gauzatzeko baliabide bat denez, dokumentuaren balioa, gehienetan, bankuetan kobratzen da. Ekintza horren bidez, tituluaren kreditua mugitu egingo da, zeren eta kanbio-letra bankuetan deskontatzen denean berfinantzazio-

funtzioa ere beteko baitu. Hori dela eta, gaur egun kanbio-trafiko handiena bankuetan eta kreditu-entitateetan kokatzen da.

Dena den, kanbio-letraren ezaugarri bereziak direla medio (banako dokumentua, kobratzeko leku asko, muga-egunak, etab.), dokumentu horiek galdu egin dute lehen trafiko ekonomikoan zuten eraginkortasuna. Izan ere, kanbio-letra igortzen denetik muga-eguna iritsi arte (gehienez, 90 egun) bankuetan geldirik egoten da. Hau da, gaur egun dokumentu horiek osatzen duten banku-zirkuitua aldatu egin da. Hasiera batean, kanbio-letrak aipatutako zirkuitu horretan mugitu egiten ziren; gaur egun, aldiz, banku-zirkuituan geldirik geratu ohi dira (trunkatze-egoera delakoa).

Banku-zirkuitua bankuak kanbio-letra jasotzen duenetik kobratzera aurkezten duen arte hedatzen den bidea da. Tarte horretan beste banku batzuk ere sar daitezke berdeskontuak edo azpiko komisioak gauzatzen.

2. Banku-zirkuituko barne-mugimendua

Sistema informatikoak martxan jarri arte kanbio-letrak fisikoki manipulatzeko ziren, hau da, letra bat garraiatzen zen banku hartzailetik kobratu behar zen bankuraino, emate-kontratua gauzatzen zen, eta horrek endosu-adierazpena eskatzen zuen. Endosu hori gauzatzeko, bi sinadura behar ziren, bankuetako bi ordezkariak hain zuzen, baina iritsi zen une bat zeinean prozesuak berak oztopatzen zuten kanbio-letraren erabilera.

Horregatik, Europako Bankuetako Elkarteek (1951-1953) erabaki zuten traba hori kentzea eta endosu klausulak kendu egin ziren kanbio-letretatik. Espainiako Bankuetako Kontseilu Gorenak bere egin zuen erabaki hori 1973 urtean.

Hala ere, erabaki hori ez zen 1986ko Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Lege berrian jaso; baliteke horren arrazoiak izatea une horretan trunkatze-egoera hasi berria izana. Edonola ere, egoera berri horrek paperaren manipulazioa helbururik gabe utzi zuen.

3. Banku-zirkuituan papera ez-mugitzea

Informatikaren bidez dokumentuen datuak trukatzeko sistema osoa trunkatzera eraman zuen. Hau da, dokumentuaren lagapena (zesioa) gertatzen denean, kanbio-letra hori gelditu edo trunkatu egiten da. Sistema hori 1986. urtean jarri zen indarrean Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearekin batera.

Aurreratu dugun bezala, Bankuetako Kontseilu Gorenak (BKG) onartu egin zuen efektuak (dokumentuak) trunkatzeari buruzko akordioa, elkarteak kreditu-entitate eta banku gehienak sistemara atxikitzea nahi baitzuen, ahalik eta onura gehien lor zitzaten (1987). Sistema trunkatzeari buruzko itunak sistemaren arlo teknikoa ere jaso zuen, eta akordioa ituna sinatu zuen ororentzat loteslea da. Beraz, bete egin behar da.

Lehen Bankuetako Kontseilu Gorenak betetzen zituen funtzioak, gaur egun, Espainiako Banka Pribatuaren Elkartek betetzen ditu, hura desagertu baitzen.

Aipatu dugun ituna bankuen arteko alde anitzeko kontratua da, borondatearen autonomiaren printzipioan oinarritua (KZ 1255. artikulua). Hori dela eta, Konbenioari egokitzeko, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legea aldatu egin behar izan zen (43. eta 45. artikulua). Akordio horren ondorioz, papera ordainketara aurkezten denean, banku-zirkuitutik ez ateratzeko hitza ematen da. Era berean, dokumentua ez zaio igorpenduari emango kanbio-letra ordaintzen duenean.

Beraz, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak kanbio-letra aurkezpenera eta ordainketara aurkezten deneko arauak jasotzen dituen arren, itunari atxikitutako entitateek eta Espainiako Banku Erregistroan inskribaturiko entitateek (bankuak, kutxak, kreditu-kooperatibak, etab.) bakarrik geldiaraz dezakete kanbio-letra banku-zirkuituan.

Oinarrizko trukatze-sistemaren urratsak hauek dira:

- Kanbio-letra 18.030,6 €-tik beherakoa denean
- “Gasturik gabe” klausula eramango dute
- Kreditu-entitateak egoitza duen hirian helbideratuta egotea
- Igorpena eurotan egin izana
- Klausula hauek ez izatea: interesak sorraraztea (debengatzea) (KLTL 6. artikulua); onartzaile anitz herri desberdinetan izatea (KLTL 44. artikulua); igorleak eta igorpenduak adostu izana kanbio-letra ordaindutakoan itzultzea (KLTL 45.1 artikulua); horniduraren lagapena (KLTL 69. artikulua); igorpenak dokumentuaren ale bat baino gehiago ez izatea (KLTL 79. artikulutik 81. artikulura).
- Aurkezpenetik epe batera ordaintzeko igorri ez izana.

Banku hartzaileak edo endosu-hartzaileak kanbio-letra edo ordainagiria (efektua) jasotzen duenean, deskontatzeko edo kobratzeko aipatutako eragile horiek kanbio-letra geldiaraziko dute barneko banku-sisteman. Une horretan, ordainagiri (efektu) horri dagozkion datu guztiak baliabide telematikoen bidez pasako dira barneko banku-sistematik. Beraz, papera eskualdatu beharrean, eskualdatzen den titulua edo ordainagiria identifikatzen dituzten datuak eskualdatzen dira. Hori horrela izanik, ordainagiria aurkezten duen entitateak egunero emango dio truke-zentroari informatika-euskarri bat titulu horiei dagokien informazioarekin. Entitate aurkezleak pasatzen duen informazioaren egiazkotasunaz erantzungo du.

Truke-zentroa Espainiako Bankuan egongo da, eta jaso dituen euskarri informatiko guztiak prozesatuko ditu. Eragiketa hori egindakoan, kontuan hartuz efektu guztiak helbideraturik egongo direla igorpenduaren kontu korrontearen zenbakiarekin, titulu horien egoera kontrolpean egongo da. Entitate hartzailearen efektuak pilatuko egingo dira, eta muga-eguna iristen denean igorpenduari ordaintzeko eskatuko zaio; ordaintzen ez bada, ordaindu gabeko tituluak igortzailei itzuliko zaizkie.

Muga-eguna iritsitakoan ordaintzen bada (kompensazioa deitzen zaio), igorpenduari efektuaren ordainagiria bidaliko zaio.

V. ENDOSU BEREZIAK

1. Kanbio-letran ageri diren pertsonen endosu egitea (*erretornu edo itzultze-endosua*)

Endosua bai igorpenduaren alde (berdin letra onartu badu edo ez), igortzailearen alde edo letran behartuta dagoen edonoren alde egin daiteke (KLTL 14.3 artikulua). Hori dela eta, kanbio-letran agertzen diren pertsonen alderako erretornu bidea ematen da (itzultze-endosua). Dena den, endosuaren ohiko bidea beste bat da, endosuan parte hartu ez dutenen alde egitea alegia (KLTL 14. artikulua).

Aipatu dugunaren lehenengo ondorioa hau da, itzultze-endosuaren hartzaileak kanbio-letrari buruzko eskubideak jasoko dituela baina bakarrik letra berriro endosatzeko helburuarekin (KLTL artikulua 17.1 artikulua).

- Dena den, itzultze-endosuaren hartzaileak ezin ditu endosua gauzatu baino lehen zegozkion eskubideak baino gehiago eskatu. Hau da, ez du izango endosua egikaritu baino lehen zituen baino zordun gehiago. Izan ere, horrela balitz Zuzenbideko gehiegikeriaz arituko ginateke (KZ 7. artikulua). Horregatik, kasu hori gertatzen denean, “itzultze-endosuaren hartzailearen eskubideak gelditzeaz” hitz egiten da. Kanbio-letra betebehardunen zirkulutik ateratzen denean, hau da, dokumentua hirugarren batek eskuratzen duenean, eskubideak gelditzeko prozesua eten egiten da, eta berriro eskuratzen dira lehengo eskubideak. Muga-eguna iristen denean, pertsona bera denean kanbio-hartzekoduna (azken endosu-emailea) eta zordun nagusia (onartzailea), kanbio-konfusioaren bidez desagertu egiten da kanbio-betebeharra (KZ 1192. artikulua).

Igorlea _____ Endosu-emaile1 _____ Endosu-emaile2 _____ *Onartzailea* (muga-egunean)

- Gainerako itzultze-endosu hartzaileek, fede oneko hartzekodunak diren aldetik (KZ 7.1 artikulua), aurreko endosu-hartzaileen aurka ezin izango dute jardun, baina endosu-emaile horien aurrean kanbio-erantzukizuna izango dute. Beraz, igorleak onartzailearen aurka soilik ezar dezake akzioa. Itzultze-endosuaren hartzaileak, berriz, igorlearen, onartzailearen eta aurreko endosugileen aurka ezar dezake akzioa.

Igorlea _____ End1 _____ *End2* _____ End3 _____ End4 _____ *End2* _____ Onartzailea

Kasu horretan, 2. endosu-emaileak ezar dezake akzioa End 1, igorlearen eta onartzailearen aurka, baina ez End 3ren eta End 4ren aurka; hori bai, haien aurrean, bere aldeko endosua dela eta, behartuta dago.

- Igorpenduak kanbio-letra onartzen ez duenean eta endosu-emaile egiten denean, atzerabidezko bidean betebehardun guztien kontra ezar dezake akzioa, bere kontrako protestua altxatu gabe. Betebehar horrek ez dauka oinarririk.

Igorlea _____ Endosu-emaile1 _____ Endosu-emaile2 _____ End3 _____ Igorpendua

Horrelako egoera batean, igorpenduak, kanbio-betebeharrik hartu ez duenez, igorlearen aurka jo dezake eta baita endosu-emaile 2ren eta 3ren aurka ere.

2. “Agindurako ez den” endosua edo endosu zuzena

Kanbio-letraren izaera, esan ohi dugun bezala, *agindurako titulu batena* da (KLTL 14. artikulua). Izaera hori dela eta, titulua igortzen denean eta “agindurako ez” klausula edo “endosu debekatua” adierazpena jasotzen denean, tituluak zuzeneko titulu bihurtzen da, eta eskualdatzea mugatu egiten zaio (KLTL 18.2 artikulua).

Horrelakoetan, titulua bakarrik eskualda daiteke lagapen arruntaren bidez (KLTL 14.2 artikulua). Beraz, endosu-klausula erabili arren, ondorioak beti ohiko lagapenarenak izango dira.

3. Protestoaren osteko endosua

Kanbio-letraren muga-eguna iritsitakoan, gerta liteke letra ordainduta ez egotea, baina horrek ez du esan nahi ordainduko ez denik. Bakarrik *protestoa* altxatzen denean edo antzeko adierazpenen bat eginda egongo da titulua eskasian (*notleidend*), zeren eta orduan geratzen baita agerian betebeharra ez dela aintzat hartu.

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 23. artikulua, horren inguruan, bi egoera sailkatzen ditu. Batetik, protestua gertatzen denean (hori ez du onartzaileak egingo, jakina), hartzailearentzat endosuaren ezaugarri guztiek balio dute. Baina igorpenduak arduraz aintzat hartu ez duen letra bat hartzen duenean, haren arriskua igo egiten da, eta endosua eman dezakeen babesak ez dio balio. Horren ondorioz, eskualdatzeak izango dituen ondorioak lagapen arruntarenak izango dira.

Endosu estu hori noiz egin den jakiterik ez dagoenean (ez baita jarri data), hartzailearen aldeko presuntzio bat egongo da (KLTL 24.2 artikulua).

VI. KANBIO-KREDITUAREN LAGAPENA

1. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 24. artikulua alferrikako izaera

Endosua da kanbio-eskubideak eskualdatzeko forma bakarra (KLTL 14. artikulua); bestela, kanbio-letrak zuzeneko tituluaren izaera hartuko du eta lagapen arrunta bezala erregulatu da.

Kreditu-lagapena Kode Zibilak erregulatzen du (1256. artikuluan eta ondokoetan). Era berean, merkataritzako kreditu endosaezinak Merkataritza Kodeko 347. artikulutik 348. artikulura erregulatzen dira. Beraz, erregulazioa bikoiztuta dago, eta, aditu batzuen iritziz, horrek interpretazio-arazoak ematen ditu. .

1985.eko legegileak, Genevako Lege Uniformea zela-eta, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 24. artikulua jaso zuen aipatutako nazioarteko lege hori barne-

ordenamendura behar bezala egokitzeko. Hala ere, jokaera horrek ez zuen ezer konpondu; alderantziz, ordezkotuturrien artean nahasketa handiagoa sortu zuen, zeren eta gai hori zuzenbide komunean erabat araututa baitago.

2. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 24. artikulua Legebiltzarreko eztabaidetan

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 24. artikulua, Legebiltzarreko eztabaiden ondorioz, lagapenaren arauekin bat dator, zuzenbide komunaren erregulazioarekin alegia.

3. Lagatze desderdinak kasu bakoitzeko

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 24.2 artikulua arabera, kanbio-letra ematea ez da lagapenaren baldintza. Izan ere, lagapen-hartzaileak kanbio-letra emateko eskubidea baldin badauka, horrek esan nahi du lagapena onartu egin duela. Beraz, benetako arazoa hau zehaztea da: ea adostutako lagapena egokia den gerta daitezkeen endosu-kasu guztietarako.

Lagapen arrunta edo kreditu-eskubideak lagatzeko arauak oso egokiak dira kanbio-letrak “agindurako ez” klausula duenean edo letra kaltetua denean. Kasu bi horietan, igorlearen borondateak edo legegilearen erabakiak kanbio-letra zuzeneko titulutzat hartzerantz jotzen dute. Beraz, eskubidea gauzatzeko, titulua behar da, baina dokumentua ez da behar eskubide hori eskualdatzeko. Horretarako ez da paperik behar, alegia. Baina gainerako kasuetan, hau da, kanbio-letrek eta zor-agiriekin agindurako titulu berezien ezaugarriak dituztenean, *aparentzia* dituen ondorioak sortzen jarraitzen dutenez, dokumentua eman edo entregatu egin beharko da, (modu eta tituluaren teoriaren arabera –KZ 609. eta 1095. artikulua). Ez da nahikoa izango adostutako eskualdatzearen eraginarekin.

Esan dugunaren arabera, kanbio-letrek “agindurako ez” edo “kaltetuak ez” adierazpenak ez daramatzatenean, dokumentua lagapen-hartzaileari eman behar zaizkio beti. Hori, adostasunaz gainera, negozio juridikoaren baldintza eratzailerak da. Hori egin ezean, fede oneko hirugarrenen aurrean egia ez den zerbait heda daiteke (*aparentzia*).

4. Lagapenaren ondorioak

Aurreko puntuan aztertutut den lagapenaren formari buruzko berezitasunaz gainera, kanbio-letra baten eskubideen eskualdaketak, oro har, lagapen arruntaren ezaugarri eta ondorio berberak ditu.

Esan den bezala, eskubidea eskualdatzeko titulua ematea eskatzen denez, lagapen-hartzaileaz gainera hirugarren batek ezin izango du titulua jaso. Beraz, itxura (aparientzia) juridikoa errealtatearekin bat etorriko da beti.

BIBLIOGRAFIA

DE EIZAGUIRRE, J.M., *Derecho de los Títulos Valores*, Civitas, Madril, 2003.

KANBIO-LETRAREN ENDOSUA – PRAKTIKA I ⁶

BEIRA, S.A. (Arkaute Poligonoa, 18, Gasteiz) enpresaren objektu soziala beirak egitea eta saltzea da, merkatuan kokatzeko. Objektu sozial hori egikaritzeko, ISPILU, S.L. (Bolueta, 48, Bilbo) enpresari beira egiteko beharrezkoa den materiala erosten dio hilero. Bien arteko merkataritzako harremanak erraztu nahian, erabaki dute ordainketak kanbio-letra bidez egitea. Luzaroan merkataritzako harremanak izanak bien artean konfiantzako giroa sortu du. Hori dela eta, igorpenduak letrak onartzen ditu zenbatekoa jarri gabe. Hala ere, esan dugun bezala, badaki ISPILU, S.L. enpresak hilero fakturatutako kopuruaz beteko dituela.

Gauzak horrela, 2009ko urriaren 5ean BEIRA, S.A. enpresak hiru hilabeteko muga-eguna zuen kanbio-letra onartu zuen “gasturik gabe” klausularekin eta ISPILU, S.L. enpresari igorri zion, ohi zenez, azken horrek hilabete horretan fakturatutako kopuruaz beranduago betetzeko. Urriko zenbateko hori 6000 € zen, baina ISPILU, S.L. enpresaren langile batek akats bat izan zuen konturatu gabe, eta kanbio-letraren zenbatekoa betetzean 8000 € idatzi zuen.

ISPILU, S.L. enpresak kanbio-letra hori Julia Etxebeste (Foruen kalea, 68, Eibar) andreari (“Etxebeste Tresnak” dendaren jabeari) entregatu zion, berarekin zuen zenbateko horren zor bat ordaintzeko asmoz. Zehazki, lehenengoak bigarrenari makina bat erosi zion eta, makina ordaintzeko, letra eman zion. Hala ere, eragiketa onartzeko, Etxebeste andreak eskatu zuen ISPILU, S.L. enpresaren administratzaileak, Mikel Lizarraga jaunak (Poza Lizentiatua, 148, Bilbao), ordezkatzeko zuen sozietatearen kanbio-adierazpena pertsonalki abalatzeko, eta eskaera bere horretan bete zen.

Azkenik, Etxebeste andreak BBVA bankuan (Eibarko sukurtsalean) deskontatu zuen letra. Ordurako, ISPILU, S.L. enpresa konturatuta zegoen Etxebeste andreak entregatu

⁶ Praktika hau UPV-EHUko Zuzenbide Fakultateko Merkataritzako Atalak irakaskuntzan erabilitako ereduetan oinarritzen da.

zior makina ez zebilela ondo. Kanbio-letraren muga-eguna iritsi eta hurrengo egunean, BBVA bankuak letra ordainketara aurkeztu zuen, baina BEIRA, S.A. enpresak ez zuen ordaindu. Horren ondorioz, BBVA bankuak, protesta altxatu gabe, Julia Etxebeste andreak itzuli zion letra, eta azken horren zenbatekoa eta itzulpenaren gastuak Julia Etxebesteren kontu korrontetik kendu zituen. Egoera horren aurrean, Julia Etxebeste andreak ISPILU, S.L. enpresaren aurka kanbio-akzioa ezartzea erabaki du kanbio-judizio prozedura bereziari jarraituz.

1. Bete ezazu kanbio-letra emandako datuekin, auzia jartzean izango duen itxurarekin.
2. Idatzi eta kalifikatu ISPILU, S.L. enpresak Julia Etxebeste andreaki jar diezazkiokeen salbuespenak ordainketa aurkaratuz.
3. Etxebeste andreak erabakiko balu Mikel Lizarraga jaunaren aurka demanda bat jartzea, horrek salbuespenen bat aurkaratzerik izango al du? Eta demandatua BEIRA, S.A. enpresa izango balitz, azken horrek Etxebeste andreaki salbuespen bat aurkaratu ahal izango lioke?
4. ISPILU, S.L. enpresak BEIRA, S.A. enpresaren aurka demanda ezarri balu, azken horrek salbuespenen bat ezartzerik izango al zuen?
5. Zer gertatuko litzateke kanbio-adierazpen batean ordezkari gisa beste baten izenean jarduteko botererik ez duen batek sinatuko balu?
6. Julia Etxebeste andreak, letra deskontatu beharrean, endosu zuria egin bazuen, zer adieraziko zuen horrek? Eta zer ondorio ditu?
7. Julia Etxebeste andreak BBVA bankuari “kobratzerako endosua” egin izan balio, muga-eguna iritsitakoan nork aurkeztu beharko zuen letra? Nori aurkeztu beharko zion titulua? Zer ondorio ekarriko zuen azken horrek letra ordaindu ez balu?

IGORPEN-LEKUA		ZENBATEKOA	<div style="border: 1px solid black; padding: 10px; width: fit-content; margin: auto;">1.50 €</div>
IGORPEN-EGUNA		MUGA-EGUNA	
KANBIO-LETRA honen ordezt, adierazitako muga-egunean ordainduko diozu honako honi:			
honako kopuru hau (letraz): ----- ----- -----			10.000 €-tik 20.000 €-ra L 102865 L
Pertsona edo entitatea: Helbidea edo bulegoa: Herria:		ordainketa honako egoitza honetan: bezeroaren kontu-kodea (BKK)	
ONARTZEN DITUT	klausulak: Eguna: IGORPENDUA (sinadura) Izena: Egoitza: Herria: PK: Probintzia:	IGORTZAILEA (sinadura, izena eta egoitza)	
Ez erabili tarte hau, imprimaketa magnetikoa egiteko baita.			

Ez erabili goiko tarte, imprimaketa magnetikoa egiteko baita

Honen	Ordain bekio honi.....	
abalaz.....	
.....:	
.....	
.....	Egoitza.honetan	
	
Data	
	
	Lekua eta data	
Abal-emailearen izena eta egoitza	
<i>(sinadura)</i>eko.....aren...	
	
	.	
	Endosatzailearen izena eta	
	egoitza	
	
	
	

6. KAPITULUA

KANBIO-BETEBEHARRAREN BETETZEA

I. MUGA-EGUNA

Kanbio-letraren muga-eguna Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 38. artikuluan ezarritako lau formen arabera zehaz daiteke: «Kanbio-letra honako kasu hauetan igorri ahal izango da: data zehatz batean, datatik zenbatutako epe zehatz batean, ikustean eta ikustetik zenbatutako epe zehatz batean. Beste muga-egun batzuk (gabonetan) edo ondoz ondoko muga-egunak (lean, zortzian edo hamabian) adierazten dituzten kanbio-letrak baliogabeak izango dira». Forma horiek laburbilduz, jarraian aipatuko ditugu:

a) Data zehatz batean: hau da, egutegitik egun zehatza seinalatuz.

b) Datatik zenbatutako epe zehatz batean: ordaindu beharra dago igortzen denetik zenbatutako epe zehatza igarotzen denean. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 41. artikulua ezartzen du epea zenbatzeko modua, hilabetetan eta egunetan: «Beren datatik hilabetera edo hainbat hilabetera igorritako kanbio-letretan haien muga-eguna hilabeteak dataz data zenbatuz zehaztuko da. Muga-eguna barnean hartzen duen hilabetean zenbaketaren hasierako egunaren egun baliokiderik ez dagoenean, epea hilabeteak azken egunean bukatzen dela ulertuko da. Zenbaketan ez dira egun baliogabeak baztertuko, baina muga-eguna egun baliogabea baldin bada, letra hurrengo egun baliodunean iraungitzen dela ulertuko da».

c) Ikustean: Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 39. artikulua dioenez: «Ikustean ordaintzeko kanbio-letra aurkeztu ondoren ordainduko da». Aurkezpen hori, datatik urtebeteko epean egin beharko da. Hala ere, legez ezarritako epe horri dagokionez, aipatutako artikulua horrek igorleari uzten dion xedapen-marjina handia da, eta endosatzaileei uzten zaiona txikiagoa da: «Igorleak epe hori laburtu edo luzeago bat zehaztu ahal izango du. Endosatzaileek epe horiek laburtu ahal izango dituzte». Gainera, «Igorleak ikustean ordaintzeko kanbio-letra bat egun zehatz baten ondoren ordaintzeko aurkeztu behar dela, ezarri ahal izango du. Kasu horretan, aurkezteko epea egun horretatik aurrera zenbatuko da».

d) Ikustetik zenbatutako epe zehatz batean: ikustetik epe zehatz baterako kanbio-letra baten muga-eguna onarpen-dataren arabera zehaztuko da. Onarpenik ez badago, protestoaren edo adierazpen baliokidearen arabera zehaztuko da (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 40. artikulua). Onarpenak datarik izan ezean, ulertuko da data hori onarpenera aurkezteko ezarritako dagoen epearen azken eguna dela; epe hori 27. artikuluan ezartzen da, esaten denean: «Ikustetik epe zehatz baterako kanbio-letrak onarpenera aurkeztu beharko dira beren egunetik zenbatuta urtebeteren buruan. Igorleak azken epe hori laburtu edo luzeago bat zehaztu ahal izango du. Endosatzaileek epe horiek laburtu ahal izango dituzte».

II. LUZAPENA

Muga-egunaren aipamenak, seinalatutako lau kasuetatik edozein aukeratuta, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1 artikuluan ezarritako kanbio-letraren laugarren baldintza formala osatzen du: «Kanbio-letrak honako hauek barnean hartu beharko ditu: muga-egunaren adierazpena». Hala ere, kanbio-betebeharraren elementu hori alda daiteke, haren data zehatza denean, data horretatik epe zehatzarekin edo eperik gabe, onartzailearen arazo ekonomiko igarokorrak kontuan harturik. Kasu horietan, kanbio-letraren bukaera ona edo ordainketa arrunta lortu ahal izateko, jarraian aipatzen diren modalitateak erabil daitezke:

a) Muga-eguna luzatzea: muga-egunaren luzapenaz hitz egin behar da zordunaren eta hartzekodunaren artean akordioa dagoenean alderdien artean kanbio-letran agerrarazten denaren osteko muga-eguna ezartzeko. Horrela, zordunak ez du muga-egunean ordaindu behar, baizik eta adostutako geroko momentuan. Ituna hitzartzen duen hartzekodunak, entrega-kontratuan alderdia izan ezik, zordunaren kanbio-adierazpenaren eraketarekin ez du zerikusirik izango; horregatik, ituna ez betetzeak kanbio-arlotik kanpoko salbuespenari bidea ematen dio (itun partikularretan oinarrituta), Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 20. eta 67.1 artikuluen komunikazio erregimenaren menpean.

b) Muga-eguna aldatzea: aipatutako hipotesiaren aurrean desberdina eta maizago ematen dena, «luzapen kalifikatua» delakoa, muga-egunaren aldaketa da. Modalitate hau ematen da kanbio-letraren testuan muga-egun berria adierazten denean. Aipamen zehatz hori dela-eta, pentsa daiteke betetzen ez bada salbuespen dokumentalari bidea ematen diola. Kontuan izanik aldaketa horrek atzerabidezko zordun guztien onespina behar duela —bestela, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 93. artikulua faltsutzeari buruzko araua aplikatuko da—, salbuespen dokumentalari bidea emateko, gutxienez aldatetaren ondoan igorlearen sinadura jaso behar da eta, hala denean, ondorengo endosatzaileena ere bai. Bestela, aldatetak kanbio-arlotik kanpoko salbuespenari bidea ematen dio, *supra a)-n* aipatutako salbuespen berberari, luzapen-modalitate hori onartu duenaren aurrean.

III. KANBIO-BERRIZTAPENA

a) Kanbio-berriztapenaren aurrean gaude, baldin eta zordunak, luzapena onartzen duen hartzekodunari, bigarren kanbio-letra bat ematen badio letra horren muga-eguna lehenengo letraren ondorengo izanik (zenbateko berdinarekin, hala denean, gastuak eta korrituak gehituta, sinadurak berdintsuak izanik eta izenpetze-ordena berberari jarraituz). Letra horiek, ale berdina ez bezala, desberdinak dira beren artean. Hala eta guztiz ere, bien artean kausazko elkarrekiko lotura dago, azpiko harreman berdina betetzea baitute helburu⁷.

Bigarren kanbio-letrari berriztapen-letra deritza, eta lehenengoari, berriz, letra berritu. Kontuan harturik berriztapen-letrak bere muga-eguna duela, doktrinarentzat ezin da

⁷ Arabako Probintzia Auzitegiaren Epaia, 2000ko maiatzaren 30ean, LA LEY 111373/2000; Pontevedrako Probintzia Auzitegiaren Epaia, 2008ko martxoaren 12an, LA LEY 44676/2008; Asturiaseko Probintzia Auzitegiaren Epaia, 2001eko apirilaren 30ean, LA LEY 87901/2001.

suposizio horretan luzapenez hitz egin. Hala ere, esan daiteke berriztapena kanbio-betebeharraren muga-egunaren luzapenean sartzen dela, bere ikuspegi orokorrean bada ere.

b) Berriztapenak eragiten duen oinarrizko arazoa da kanbio-letra bi batera existitzea, eta, ondorioz, kanbio-kreditu desberdinak izatea. Egoera horrek zordunaren eta hartzekodunaren interes kontrajarrien oreka lortzea oztopatzen du. Hala, zordunak azpiko zor bakar bati dagokion erreklamazio bikoitzaren aurrean babestua izan behar du, eta hartzekodunari, berriz —jatorrizko kanbio-harremana berriztea onartu duenari, alegia—, letra berrituan eskainitako bermeak berriztapen-letran gutxituak ez izateko eskubidea onartu behar zaio. Jokoan dauden interesentzat irtenbide egokia aurkitzeko, baloratu beharreko datua da letra berrituaren eta berriztapen-letraren elementu subjektiboen bat-etortze osoa edo, hala denean, dibergentzia.

aa) Bat-etortze subjektiboaren kasuan, ez dago eragozpenik letra berritua zordunari bueltatzeko, hartzekodunak jatorrizko posiziotik ez duelako murriztapenik jasango (jatorrizko betebeharraren berritze azkentzailea ematen da). Horrela, derrigorrezkoa kontsideratzen da zordunari letra berritua bueltatzea, *datio pro soluto* ondorioekin, erreklamazio bikoitzaren arriskuaren aurrean erremedio eraginkorrena delakoan.

bb) Alderantzizko kasuan, letra berrituaren eta berriztapen-letraren artean dibergentzia subjektiboa egonez gero, arazoa sortuko litzateke letra berrituak berriztapen-letra baino kanbio-betebehar (edo berme) gehiago jasoko balitu. Kasu horretan, hartzekodunak bermeak ez galtzean duen interes legitimoak justifikatzen du horrek letra berritua bere eskuetan mantentzea, berritze azkentzailea gertatzeko arriskurik gabe (letra berritua hartzekodunaren eskuetan gelditzea presuntzio nahikoa da berritze azkentzailea ez dela gertatu pentsatzeko). Dena den, zordunaren interesak erreklamazio bikoitzaren aurrean babesteko, beharrezkoa da, bere aldetik, hartzekodunak bere eskuetan dituen kanbio-letrak, azpiko harreman berberari dagozkionak, elkarren txandan erabiltzea eta ez metatuta. Letra berrituak ibilgetua gelditu behar du, jasotako berriztapen-letraren bukaera onaren zain. Bere muga-egunean berriztapen-letra ez bada ordaintzen, hartzekodunak letra berritutik eratorritako akzioak erabil ditzake⁸. Aldiz, hartzekodunak zorduna demandatzen badu letra berrituz baliatuz, berriztapen-letraren muga-eguna errespetatu gabe, zordunak baliozkotasun-salbuespen bat izango du (hau da, kanbio-arlokoa eta ez kanbio-arlotik kanpokoak). Bere aldetik, eskualdatze-kasuan, berriztapen-itunari dagokionez, hirugarrenaren babesaren muga erru larrian kokatzen da (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. eta 19.1 artikulua) eta ez doloan (Lege berean 20. artikulua).

IV. ORDAINKETARAKO AURKEZPENEA

A) Kontzeptua eta aurkezpene egiteko moduak

Balore-titulu guztiak bezala, kanbio-letra aurkezpen-titulua da; alegia, kanbio-letratik

⁸ Pontevedrako Probintzia Auzitegiaren Epaia, 2008ko martxoaren 12an, LA LEY 44676/2008.

eratorritako eskubidea erabiltzeko, kanbio-letraren edukitzaileak igorpenduari aurkeztu behar dio bere muga-egunean, jasotzen den zenbatekoa ordain dezan. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 43.1 artikuluan ezartzen denez: «Egun zehatz batean edo datatik edo ikustetik zenbatu beharreko epe zehatz batean ordaintzeko kanbio-letra baten edukitzaileak ordainketarako kanbio-letra aurkeztu beharko du muga-egunean edo hurrengo bi egun baliodunetako batean». Beraz, aurkezpena, zentzu tekniko-juridikoan, zama bat da, hau da, edukitzaileari legeak inposatzen dion egintza bat, bete behar duena letraren zenbatekoa kobratzeko eta zenbait kalte saihesteko [atzerabidezko obligaziodunen aurkako akzioen galera, tituluan ezarritako zenbatekoa igorpenduak ordaintzen ez badu, 63.1.c) artikulua] dioenez: «Edukitzaileak bere kanbio-akzio guztiak galduko ditu, endosatzaile, igorle eta gainerako obligaziodunen aurrean — onartzailea eta haren abal-emailea alde batera utzita—honako kasu hauetan: “gasturik gabeko” itzulketa erabaki denean, ordaintzeko letra epearen barnean aurkeztu ez duenean»].

Kanbio-letra aurkezpen-titulu gisa konfiguratzek posible egiten du igorpenduarentzat edukitzailearen legitimazioa ikustea (agiriaren izaera zirkulatzailerik kontuan harturik, igorpenduak ez daki nor den kanbio-hartzekoduna), liberatuta gelditzeko baldintza. 46.3 artikulua honela dio: «Muga-egunean ordaintzen duena liberatuta geratuko da, edukitzailearen legitimazioa hautematean doloa edo erru larria erakutsi ezean. Ondore horretarako, endosuen segidaren erregulartasuna egiaztatzeraz behartuta egongo da, baina ez endosatzaileen sinaduraren egiazkotasuna egiaztatzeraz». Obligazioen zuzenbide komuna jarraituz (Kode Zibileko 1171.3 artikulua), kanbio-zorrak behartzen du hartzekoduna zordunaren aurrean aurkeztea eta ez alderantziz.

Aurreko erregela hori, igorpenduari ordainketarako aurkeztea titulua erakusketa material gisa ulertzen duena, indargabe geratzen da zenbait kasutan kreditu-erakundeen mesedetan:

a) Kreditu-erakundearen zabalduko kontu batean helbideratutako kanbio-letra bat denean, Ganbera edo konpentsazio-sistema batean aurkeztea eta ordainketarako aurkeztea baliokideak izango dira (43.2 artikulua).

b) Kanbio-letra kreditu-erakunde baten eskuetan dagoenean, igorleari muga-egunaren behar bezalako aurrerapenarekin abisua bidaliz aurkeztu ahal izango da ordainketara; abisu horrek letra identifikatzeko beharrezko datu guztiak bilduko ditu, ordaintzeko jarraibideak adieraz daitezkeen (43.3 artikulua). Azken finean, epemuga-abisua da, fotokopia baten bitartez igorpenduaren egoitzara bidaltzen dena, ordainketarako aurkezpenaren ondoreak dituen.

B) Aurkezpenaren inguruabarrak

a) Legitimazio aktiboa eta pasiboa: ordainketara aurkezteko legitimazio aktiboa duena kanbio-letraren edukitzaile legitimoa da, kanbio-letraren lehen hartzailea izango dena, edo, titulua zirkulazio kasuan, azken endosu-hartzailea, edo haietariko edozeinen ordezkaria. Ordainketarako aurkezpena igorpenduari egin behar zaio, letraren onartzaile izan edo ez, edo, hala denean, helbideratze-hartzaileari. Bi igorpendu edo gehiagoren

aurka igorritako kanbio-letra onartzaileei aurkeztu beharko zaie muga-egunean, haietako edozeinek ordain dezan. Letrak onartzailerik ez badauka, igorpenduetako edozeini aurkeztu ahal izango zaio. Onartzaile guztiek edo igorpenduetako batek, letra onartu gabe dagoenean, letra ez ordaintzea nahikoa izango da edukitzaileari Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legean letra ordaintzen ez den kasurako ezarritako akzioak esleitzeko (44.1 eta 3 artikulua).

b) Aurkezpena egiteko unea: egun zehatz batean edo datatik edo ikustetik zenbatu beharreko epe zehatz batean ordaintzeko diren kanbio-letretan, ordainketarako aurkeztu beharko dira muga-egunean edo hurrengo bi egun baliodunetako batean. Ikustean ordaintzeko diren kanbio-letrak, berriz, ordainketarako aurkeztu beharko dira datatik urtebeteko epean, igorleak edo endosatzaileek epe hori Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 39. artikuluan ezarritako forman aldatzen ez badute behintzat.

C) Aurkezpenik ezaren ondoreak

Aurrerago aipatu dugun bezala —*supra A*)— epearen barnean kanbio-letra ordainketara aurkezteko betebeharra igorlearen eta atzerabidean dauden gainerako obligaziodunen interesean ezartzen da. Horregatik, betebeharrak hori ez betetzeak endosatzaileen, igorlearen eta beraren abal-emaileen askatzea dakar [63.1.c) artikulua]. Ostera, ez betetze horrek onartzailearen eta, hala denean, beraren abal-emailearen erantzukizuna ez du aldatzen (63.1 artikulua). Hori horrela da, onartzaileak oso ondo baitaki zorra ez duela ordaindu, eta abal-emaileak, dakigunez, abaldunaren erantzukizun berdina du. Bestalde, aurkezpenik ezak, eragozten du onartzailea eta, hala denean, bere abal-emailea berandutzan jartzea; haiei ezingo zaie berandutza-korrituak erreklamatu (58.1.3º artikulua), aurkezpena egin arte. Horretarako, hartzekodunak onartzailearen aurkako kanbio-akzioak duen preskripzio-epea izango du: hiru urte, muga-egunetik aurrera zenbatuta (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 88.1 artikulua). Dena dela, onartzailearen aurkako kanbio-akzioarekin batera kanbio-letra bera bidali behar da; beraz, ordainketarako errekerimendu judizialak aurkezpenaren ondoreak ditu.

Kanbio-letraren aurkezpenik ezak zordunarengan kalteak sor ez ditzan, legearen arabera zorduna edozein momentuan bere kanbio-betebeharretik liberatua gera daiteke, letraren zenbatekoa edukitzailearen eskuetan dagoen gordailuan gordez, bere kontura eta menturara, bai epai bidez, bai kreditu-erakunde, notario edo agente bitartekari elkargokide baten bidez (48. artikulua).

V. ORDAINKETA

A) Ordainketarako moduak

Kanbio-letran ezartzen den ordainketa-agindua igorpenduari zuzenduta dagoenez, igorpenduak egindako ordainketari “ordainketa arrunta” deitzen zaio, eta letraren edozein sinatzailek egindakoari “ezohiko ordainketa”. Bestalde, ordainketa letraren edukitzailearen errekerimendu soil baten atzetik egiten bada, “borondatezko” kalifikatzen da; berriz, edukitzaileari dagozkion kanbio-akzioak erabiltzeagatik lortzen

denean, “nahitaezko” ordainketaz hitz egiten da.

B) Ordainketaren froga

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 45.1 artikulua arabera, kanbio-letra ordaindutzat joko da, muga-egunaren ondoren letra igorpenduaren edo helbideratze-hartzailearen eskuetan dagoenean. Presuntzio berdina ezartzen da atzerabidean dauden obligaziodunen mesedetan, eta ordainketa egitean paperaren jabetza errekueratzen dute, atzerabidean ordaintze-eskubidea erabili ahal izateko. Hala ere, segurtasuna bermatzeko, kanbio-letra ordaintzean igorpenduak eskatu ahal izango du letra hori eramailearen hartu izanaren adierazpenarekin batera emateko, eramailea kreditu-erakundea izan ezean. Izan ere, kasu horretan kreditu-erakundeak, jatorrizko letraren orde, letra behar bezala identifikatzen duen ordainketaren egiaztagiria eman ahal izango du, igorlearen eta igorpenduaren artean bestelakorik itundu ezean. Agiri horrek igorpenduarentzat erabateko askatasun-balioa izango du, edozein kanbio-hartzekodunen aurrean, eta letra daukan erakundea letra ordaintzeko berriro eskatuztik ondoriozta daitezkeen kalte-galera guztien erantzulea izango da, bai igorpenduaren aurrean, bai gainerako kanbio-obligaziodunen aurrean.

C) Ordainketarekin lotuta dauden suposizio bereziak

a) Ordainketa partziala: Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak atzerabidean dauden obligaziodunen mesedetan ezartzen du eramaileak ezin izango duela ukatu ordainketa partzialik. Horrela, ordainketa hori onartu beharko du eta letraren protesta egin gainerakoarengatik atzerabidezko akzioa mantentzeko. Ordainketa partziala egitekotan, igorpenduak ordainketa hori letran agertzeko eta horren ordainagiria emateko eskatu ahal izango du (45.3 artikulua).

b) Aldez aurretik egindako ordainketa: muga-eguna baino lehen ordainketa egiteko aukerari dagokionez, 46. artikulua agindu garrantzitsu bi ezartzen ditu: alde batetik, esaten da «kanbio-letra baten eramailea ezin izango dela behartu ordainketa muga-egunaren aurretik jasotzera»; agindu hori ulergarria da literaltasunaren printzipioaren arabera. Bestalde, esaten da «muga-egunaren aurretik ordaintzen duen igorpenduak bere kontura eta menturara egingo duela». Kasu horretan, aipatutako 46. artikulua horrek, hirugarren paragrafoan, muga-egunean ordainketa egiten duenarentzat aurrekusten duen fede onaren babes faltako litzateke: «Muga-egunean ordaintzen duena liberatuta geratuko da, edukitzailearen legitimazioa hautematean doloa edo erru larria erakutsi ezean. Ondore horretarako, endosuen segidaren erregulartasuna egiaztatzea behartuta egongo da, baina ez endosatzaileen sinaduraren egiazkotasuna egiaztatzea». Muga-egunaren aurretik ordaintzen duen igorpendua ez da kontsideratzen fede oneko ordaintzaile; beraz, ez zaizkio aplikatuko itxura juridikoaren babes-arauak (liberatuta gelditzea, bereziki).

c) Ordainketaren luzapena: ordainketaren luzapenak kanbio-hartzekodunaren eta kanbio-zordunaren arteko akordioa dakar, adostuz muga-egunean ordaindua ez den letraren ordainketa ondorengo batean galdatuko dela. Alderdi horien arteko kanbio-

betebeharraren galdagarritasuna atzeratu egiten da; atzerapena, hala denean, gainerako kanbio-betebehardunen aurrean interesik ez duena. Kanbio-arlotik kanpoko itun baten aurrean gaude.

d) Atzerriko monetan ordaintzea: kanbio-letraren ordainketa eurotan edo kotizazio ofizialean onartzen den atzerriko moneta bihurtzeko egin behar da (1.2 artikuluan).

D) Ordainketaren ondoreak

Kanbio-letraren ordainketa arrunta izanez gero (igorpenduak egindakoa), borondatez zein nahitaez, ordainketa erabat liberatorioa da, kanbio-kreditua iraungi egiten delako eta letran agertzen diren betebehardun guztiak liberatuta geratuko direlako, aldi berean kausazko akzioa ere iraungiz. Xede horretarako, berdin dio ordainketa kanbio-letraren muga-egunean borondatez egin den edo bide judizialek kanbio-akzio baten erabileraren ondorioz egin den, hau da, horrek ez du interesik.

Ordea, ordainketa ezohikoa denean (igorpendua ez den beste edozeinek eginda), borondatez zein nahitaez, ondorioak ordaintzen duenak letran duen posizioaren arabera egongo dira. Ordaintzailea endosatzaile bat bada, haren ondorengo endosatzaileen (eta, hala denean, haren abal-emaileen) kanbio-betebeharrak iraungi egiten dira, nahiz eta aurreko endosatzaileenak, igorlearenak, onartzailearenak eta, hala denean, haren abal-emaileenak mantendu. Ordaintzailea igorlea bada, endosatzaile guztiak eta haien abal-emaileak liberatuta geratuko dira; horregatik, igorleak onartzailea eta haren abal-emailearen aurka soilik jo dezake (onartu gabeko letretan kanbio-betebehar guztiak iraungita geratuko lirateke).

Kanbio-letra ordaindu duenak, bere aurrean kanbio-betebehardunen bat izango balu, hari honako hauek erreklamatu ahal izango dizkio: ordaindu duen diru kopuru osoa, diru kopuru horren interesak, ordainketa-egunetik aurrera sortutakoak, eta egin dituen gastuak (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 59. artikulua).

E) Letraren nahitaezko ordainketa

Muga-egunean letra ordainketarako aurkezten bada eta igorpenduak ez badu borondatez ordaintzen, letraren literaltasunak hartzekodunari ematen dion eskubidea bertan behera geratuko da. Hori horrela izanda, ase gabeko hartzekodunak letraren ordainketa judizio bidetik eskatzeko aukera dauka; borondatez bete ez den prestazioa, nahitaez lortzeko aukera ematen duten bideei jarraituz.

Letraren ordainketa judizio bidetik kanbio-arlokoak diren prozeduren bitartez (kanbio-akzioak) lor daiteke. Kanbio-akzioak bi motatakoak izan daitezke: zuzena, onartzailearen eta, hala denean, abal-emailearen aurka jartzen dena; eta atzerabidezkoa, igorlearen, endosatzaileen eta haien abal-emaileen aurka jartzen dena (hau da, kanbio-letran sinatzen duen edozeinen aurka, onartzailearen aurka izan ezik). Akzio zuzena

ordainketarik ezaren kasuan jar daiteke, eta ez dago baldintzarik betetzearen menpean [adibidez, protesta egitea, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 49.2 artikulua dioenez: «Ordaindu ezean, edukitzaileak (igorlea bera bada ere) kanbio-letratik ondorioztatutako zuzeneko akzioa izango du onartzailearen eta haren abal-emailearen aurka, protestoaren beharrik gabe 58. eta 59. artikuluetan ezarritakoa erreklamatzeko, bai bide arruntetik, bai kanbio-agiriei buruzko prozesu berezitik»]. Atzerabidezko akzioa, berriz, kanbio-letraren eramaileari egozten zaio, hark arreta-betebehar bat betez gero: letraren onarpen edo ordainketarik ezagatik protesta edo adierazpen baliokidea egitea, emankorra izan ez den aurkezpenaren ondoren. Ardura hori beteta, hartzekodunak atzerabidean jo dezake, bereizi gabe edo batera, edozein kanbio-betebehardunen aurka, guztiak lotzen dituen solidaritate bereziaren arabera (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 50.1 eta 57. artikulua).

Kanbio-arlokoak diren prozedura horietaz gain, kontuan harturik kanbio-letrak diruzko betebehar bat gorpuzten duela eta jatorria letratik kanpo dagoen negozio batean duela, hartzekodunak badu aukera azpiko harreman horretatik eratorritako eskubideak zordunari erreklamatzeko. Xede horretarako, hartzekodunak azpiko harreman horren alderdia izan beharko luke edo harreman horretatik eratorritako eskubideen lagapen-hartzailea izan (aldeztatik egindako hornidura-lagapenaren arabera; 69.1 artikulua ezartzen duenez: «Letran txertatutako klausularen bidez, igorleak hornidurari buruz dituen eskubideak lagatzen dituela adierazten badu, eskubide horiek edukitzailearen eskuetan geratuko dira»). “Kausazko akzioa” delakoaren aurrean gaude, kanbio-arlokoa baino prozedura motelagoa eta ez hain segurua, non zorduna zorrotasun gutxiagorekin tratatua den.

Azkenik, eta muturreko erremedio gisa, legeak “aberaste-akzioa” delakoa arautzen du, kanbio-akzioa eta kausazko akzioa galdu dituen hartzekodunari egozten zaiona, letra kaltetuaren zenbatekoa erreklamatzeko bide gisa, modu bidegabean aberastu denaren aurka beraren kanbio-betebeharra desagertzearen ondorioz (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 65. artikulua).

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Alonso Soto, R., «El pago de la letra de cambio», *Derecho Cambiario. Estudios sobre la Ley cambiaria y del cheque*, op. cit., 609. or. eta hurrengoak.

Muñoz-Planas, J. M., «La renovación cambiaria», *Estudios jurídicos en homenaje a Joaquín Garrigues*, I, 1971, 221-270 or.

Quijano González, J., «Aproximación a la renovación cambiaria: concepto y naturaleza», *Estudios jurídicos en homenaje al profesor Aurelio Menéndez*, I, 1996, 1321-1358. or.

Santos, V., «Vencimiento y pago de la letra», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 23, 1986, 616. or. eta hurrengoak.

—«El lugar del pago de la letra de cambio», *Estudios jurídicos en homenaje al profesor Aurelio Menéndez*, op. cit., 1359-1388 or.

KASU PRAKTIKOA

- 1) Señala itzazu Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak aipatzen dituen egintzak, ordainketarako aurkezpenarekin baliokideak direnak.
- 2) Kanbio-letraren edukitzaileak muga-eguna baino lehen zuregana jotzen du kontu hauek argitu nahian: Nori aurkeztu behar dio letra ordainketarako, letrak hiru igorpendu baditu? Zein da aurkezpeneko epe orokorra? Ordainketa partziala onartu behar dago?
- 3) Egun batzuk geroago, berriz ere zuregana jotzen du, oso kezkatu, zeren eta eman zenizkion argibideak emanda ere, letra ordainketarako aurkezteko epea pasatu egin zitzaiolako. Zein dira epe kanpo aurkeztearen ondoreak?
- 4) Kanbio-letra igorpenduak ordaintzearen ondoreak zein dira? Kontuan hartu ordainketa judizio bidetik kanbio-akzio bat ezartzearen ondorioz egin duela.

7. KAPITULUA

TUTELA PROZESALA. KANBIO-JUDIZIOARI AIPAMEN BEREZIA

I. AIPAMEN OROKORRAK

Kanbio-judizioa, merkataritzako kanbio-agiri batean oinarritutako kreditua babesteko deklarazioko prozesu berezia dugu, 1881eko Prozedura Zibilaren Legearen judizio betearazlearen ordezkoa. Prozedura ordezte horrek berritasun handietan pentsaraztera eramán dezake. Hala ere, indargabetutako judizio betearazlearen eta kanbio-judizio berriaren arteko desberdintasunak formalak dira gehienbat, oinarritzko egiturak partekatzen baitituzte. Gainera, batak eta besteak, kanbio-kredituaren babes-maila berdina ezartzen dute, zeren eta 2000ko urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilaren Legean, zioen azalpenean ezartzen denez: «Horrela, eragingarritasun bera dute lege honetako kanbio-kredituaren jurisdikzio-babesaren sistemak eta indargabetutako legeriaren sistemak».

Kanbio-judizioaren ordezk hartzekodunak prozesu monitoriora jo dezake, Prozedura Zibilaren Legearen 812.1 artikulua ezartzen duen zabaltasuna kontuan hartuta, kanbio-errekamazioak 30.050, 60 euro gainditzen ez baditu. Dena den, bide honek eragozpen bat planteatzen du: zorduna aurka jartzen baldin bada, gaia behin betiko ebatziko da kasuan kasuko epaiketari: epaiketa arruntean, 3.005,06 eurotik gorako munta duten errekamazioak direnean, edo, hitzezko epaiketari, zenbateko horretatik beheragoko munta dutenen kasuan.

II. KANBIO-JUDIZIOA NOIZ DEN BIDEZKOA

Kanbio-judizioa bidezkoa izango da, soil-soilik, epaiketa hastean Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legean ezarritako baldintzak dituen kanbio-letra, txekia edo zor-agiria aurkeztu bada (Prozedura Zibilaren Legearen 819. artikulua). Baldintza horiek dira kanbio-letrarentzat 1. eta 2. artikuluetan ezartzen direnak, zor-agiriarentzat 94. eta 95. artikuluetan ezarriak, eta txekearientzat 106. eta 107. artikuluetan ezarriak.

III. ESKUMENA

Kanbio-judizioan eskumen objektiboa Lehen Auzialdiko Epaitegiari dagokio, eta lurralde-eskumena demandatuaren egoitzako epaitegiari. Tituluaren edukitzaileak zordun bat baino gehiago demandatzen badu eta zordunen betebeharra titulu beretik sortzen bada (egitate posiblea kanbio-tituluen igorgarritasuna eta haien betebeharren solidaritatea kontuan harturik), eskuduna izango da haietako edozeinen egoitzako lehen auzialdiko epaitegia. Zenbait zordun batera demandatuak direnean, epaiketari ager daitezke ordezkari independenteekin.

IV. DEMANDA ETA HAREN KONTROLA

Kanbio-judizioa demanda laburrekin hasiko da; horrekin batera, kanbio-titulua ekarriko du. Auzitegiak, auto bitartez, kanbio-tituluaren forma-egokitasuna aztertuko du. Lehendabizi, aztertu beharko du aurkeztutako agiriek Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legean aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten, kanbio-letra, zor-agiri edo txeke moduan kontsideratzeko, zeren eta kontrako kasuan ezingo baitaa hasi kanbio-epaiketarik. Ondoren, aztertu beharko du ea dagokion kanbio-akzioaren erabilera justifikatzen duten baldintzak betetzen diren. Akzio zuzena jartzen bada onartzailearen eta haren abal-emailearen aurka, aztertu beharko du onarpena, eta, hala denean, abala, forma aldetik egokiak direla eta preskripzio epea ez dela igaro. Atzerabidezko akzioa jartzen bada endosatzaileen, igorlearen eta gainerako betebehardunen aurka, igorlearen, endosatzaileen eta, hala denean, abal-emaileen adierazpenaren forma-egokitasuna eta preskripzio-epea ez dela igaro aztertzeaz gainera, begiratu beharko du protesta egina dagoen edo, hala denean, adierazpen baliokidea, ezinbestekoa denean.

Zalantzak sortu dira ezartzean epaileak zerga-ordainketaren betetzea ere aztertu behar duela. Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen 37. artikulua ezartzen du zerga hori ordaindu behar dela eta ordaindu ezean kanbio-letrak bere betearazte-eraginkortasuna galtzen duela. Prozedura Zibilaren Lege berriarekin, kanbio-letra berezko betearazte-titulua ez denez, baldintza fiskalaren iraupena zalantzan jarri da. Hala ere, baldintza horrek analogiaz aplikagarria izaten jarraitzen du, zeren eta, Zioen Azalpenean bertan ezartzen denez, lege berriak ezartzen duen kanbio-kredituaren babes-sistemaren eraginkortasuna indargabetutako 1881eko Prozedura Zibilaren Legearenaren baliokidea baita.

V. ORDAINKETA AGINDEIA ETA PREBENTZIOZKO ENBARGOA

Adierazi dugun bezala (*supra*, IV), Auzitegiak, auto bitartez, kanbio-tituluaren forma-egokitasuna aztertuko du, eta, egokia bada, besterik gabe hartuko ditu honako neurri hauek:

- 1) Zordunari agindeia egitea, hamar eguneko epean ordain dezan.
- 2) Zordunaren ondasunen berehalako prebentziozko enbargoa agintzea, betearazte-tituluan jasotako kopurukoa ("betearazte-titulua"-ren adierazpena erabiltzea aurreko araudian erabilitako izendapenak eragindako akatsa da), baita atzerapen-korrituei, gastuei eta kostuei aurre egiteko kopuruari dagokiona ere, ordainketa-agindeia betetzen ez denerako.

Auzitegiak agintzen duen enbargoa benetako kautelazko neurria da, epaiketaren azken emaitza aseguratu nahian. Enbargo horren aginduan, edozein kautelazko neurri hartzeko ezinbestekoak diren baldintza bi biltzen dira: benetako eskubidearen itxura, tituluaren existentzia hutsetik legeak ondorioztatzen duena, eta *periculum mora*. Beraz, benetako eskubidearen itxura desagertuz gero, normala da auzitegiak agindutako enbargoa desagitea. Gai hori Prozedura Zibilaren Legearen 823. artikuluan aurreikusten da: «Zorduna bere kabuz edo ordezkariaren bitartez bertaratzen bada, ordaintzeko agindeia

egin zaionetik bost eguneko epean, eta bere sinaduraren egiazkotasuna oso-osorik ukatzen badu edo erabateko ordezkariarik eza alegatzen badu, auzitegiak agindutako enbargoak desegin ditzake, kasuan kasuko inguruabarrak eta ekarritako agiriak kontuan hartuta. Halakoetan, auzitegiak kausioa edo berme egokia eska dezake, hori komenigarritzat joz gero».

Hala ere, sinaduraren egiazkotasuna edo besteren ordezkariaren gisa sinatu zuenaren ordezkariaren egiazkotasuna ulertuz gero, enbargoa ez da desegin honako kasu hauetan:

- 1) Merkataritzako artekari elkargokideak (egun, notarioa) igorpenean, onarpenean, abalean edo endosuan esku hartu badu, data adieraziz, edo notarioak kasuan kasuko sinadurak legitimatzen baditu letran bertan.
- 2) Kanbio-zordunak protestoan edo notario bidezko ordainketa agindeian oso-osorik ukatu ez badu tituluan jasotako bere sinaduraren egiazkotasuna edo alegatu ez badu erabateko ordezkariarik eza.
- 3) Kanbio-betebehardunak bere sinadura aitortzen badu epaiketan edo agiri publikoan.

VI. NEURRIAK HARTZEA UKATZEN DUEN AUTOAREN AURREAN

Aldiz, kontrola egiaztatuta epaileak tituluaren forma-egokitasunari dagokionez akatsak ikusten baditu, demanda ez du onartuko, eta demandatzaileak Prozedura Zibilaren Legearen 552.2 artikuluan aipatutako errekursoak jar ditzake aurreko neurriak hartzea ukatu duen autoaren aurka.

VII. IZAPIDETZA AURKA-JARTZERIK GABE: ORDAINKETA EDO AURKA EZ JARTZEA

A) Ordainketa

Gauzatutako akzioari bukaera emateko, ordainketa-tituluan agertzen den zenbatekoa, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 58. eta 59. artikuluetan esaten denarekin konforme kalkulaturako korrituak eta gastuak (protestoa eta komunikazioak barne) osatu behar dute. Kanbio-zordunak ordainketa agindeia ezarritako kopuruan betetzen badu, auzitegiak diru-kopuru hori demandatzailearen esku jarriko du; demandatuari egindako ordainketaren ziurtagiria emango zaio, eta kanbio-epaiketa amaitutzat joko da.

Kostuei dagokienez, eta zordunak agindeia jasotzean ordaindu arren, Prozedura Zibilaren Legearen 583. artikuluan ezarritako arau orokorraren ordezkariaren, espresuki agintzen da kanbio-zordunaren kontura izango direla sortutako kostu guztiak.

B) Aurka ez jartzearen ondoreak

Zordunak ezarritako epean (ordainketa-agindeia egin eta hurrengo hamar egunetan) aurka jartzeko demandarik aurkezten ez badu, eta ordaintzen ez badu, erreklamaturako kopuruak betearaztea aginduko da eta enbargoa trabatuko da, hori aldez aurretik ezin izan bada gauzatu, edo, Prozedura Zibilaren Legearen 823. artikuluan ezarritakoaren arabera, hori desegin bada.

Betearaztea agintzen duen autoa demandatzaileak eskatutako diru-kopurua ordaintzera zigortzen duen ebazpena da, eta benetako betearazte-titulua izango litzateke, Prozedura Zibilaren Legearen 825.2 artikuluan ezartzen denez: «Kasu horretan, agindutako betearazpena gauzatu da, lege horretan epaiak eta ebazpen judizialak nahiz tartekaritza-ebazpenak betearazteko ezarritakoaren arabera».

VIII. AURKA-JARTZE KANBIARIOA

A) Kanbio-epaiketaren aurka jartzeko demanda

Zordunak kanbio-epaiketaren aurka jartzeko demanda aurkez dezake, ordainketa-agindeia egin eta hurrengo hamar egunetan (824.1 artikulua). Demanda horretan zordunak, formari dagokionez, demandatzailearen papera hartzen du, hartzekodunak egiten duen hasierako alegazioaren aurrean (forma egokiarekin letra, zor-agiria edo txeke baten aurkezpena baino ez dena balore-titulu batean gorpuztutako kreditu-eskubide baten edukitzaile legitimo bilakatzen duena), eta egitateak argudiatu eta frogatu behar ditu.

B) Aurka jartzeko arrazoiak

Aurka jartzeak demandaren forma izango du. Kanbio-zordunak letraren, txekearen edo zor-agiriaren edukitzaileari aurka jar diezazkioke Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikuluan aurka jartzeko ezarritako arrazoi edo zio guztiak. Artikulu horrek honela dio:

«I. Kanbio-zordunak edukitzaileari aurre egin ahal izango dio elkarrekiko harremanetan oinarritutako salbuespenekin. Aurreko edukitzaileen aurrean dituen salbuespen pertsonalak ere erabili ahal izango ditu, baldin eta, letra eskuratzean, edukitzaileak zordunaren kalterako nahita jokatu badu.

II. Era berean, kanbio-demandatuak honako salbuespen hauekin aurre egin ahal izango du: 1) Haren kanbio-adierazpenik ez egotea edo baliogabea izatea, sinaduraren faltsutasuna barne; 2) Edukitzailearen legitimaziorik eza edo kanbio-letraren beharrezko formalitateak ez egotea, Lege honetan xedatutakoaren arabera; eta 3) Demandatuari betetzeko eskatzen zaion kanbio-kredituaren iraungipena.

III. Kanbio-akzioa gauzatzearen aurka, artikulua honetan aipatutako salbuespenak bakarrik onartuko dira».

Azken finean, demandatuak gorpuztutako kredituaren eragozpen, iraungitze eta baztertzaila den egitate oro argudia dezake.

C) Aurka-jartze kanbiarioa gauzatzea

Zordunak aurka jartzeko idazkia aurkeztu ondoren, idazki hori hartzekodunari helarazi eta ikustaldirako zitazioa egingo zaio hitzezko epaiketetarako, Prozedura Zibilaren Legearen 440. artikulua lehenengo paragrafoan xedatutakoaren arabera. Ikustaldia 443. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, alderdi biak agertzen baldin badira (zorduna aurka jartzeko idazkian ezarritakoa berretsiz hasiko da; jarraian, hartzekodunak bere eskubideei dagozkien alegazioak aurkez ditzake; ondoren, zordunak, prozesu-salbuespenak alegatu baditu, auzitegiak bidezkoa dena ebatziko du, eta, epaiketarekin jarraitzea agintzen badu, zordunak eska dezake bere desadostasuna aktan jasotzea, eman litekeen epaiaren aurka gora jotzeko ondoretarako). Zorduna agertzen ez bada, auzitegiak ulertuko du aurka jartzean atzera egin duela eta betearaztea agintzeko autoa emango du. Alderantziz, hartzekoduna bada agertzen ez dena, auzitegiak aurka jartzearen inguruan ebazpena emango du, hartzekodunari entzun gabe.

D) Aurka jartzeari buruzko epaia

Ikustaldia amaitu eta hurrengo hamar eguneko epean, auzitegiak epaia emango du, aurka-jartzearen inguruan ebazpena emanez. Aurka-jartzea gaitzesten duen epaiaren kasuan, auzitegiak zordunaren uzia ondorerik gabe utziko du, eta hartzekodunari eman beharreko kopuru zurrak zehaztuko du. Epai horri errekurtsioa jartzen bazaio ere, epaia behin-behinean betearaziko da, Prozedura Zibilaren Legean xedatutakoaren arabera. Berriz, aurka-jartzeari on iritzi dion epaiaren kasuan, auzitegiak berehala aginduko du prebentziozko enbargoa desgitea, salbu hartzekodun errekurtsogileak neurriari eustea eskatu duenean eta errekurritutako ebazpenaren berrespen-kasurako kalte-ordainari eta printzipalari aurre egiteko kauzioa eman duenean.

Epaiaren ondorei dagokienez, kanbio-judizioan emandako epai irmoak gauza epaituaren ondoreak sortuko ditu, epaiketa horretan alega eta eztabaida zitezkeen arazoei dagokienez. Gainerako arazoak kasuan kasuko epaiketari aurkez daitezke (Prozedura Zibilaren Legearen 827.3 artikulua). Dena den, aurreikuspen hori zehaztu egin behar da, zeren eta Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua hartzekodun demandatzailearen helburuaren ahultze-egitate oro alegatzea baimentzen duenez, ez da gelditzen arazorik kasuan kasuko epaiketari aurkez daitezkeenik. Beraz, kanbio-judizioetan emandako epaiak ia gauza epaituaren ondoreak sortzen dituzte, epaiketa arruntetan emandako epaiak bezala.

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Bonet Navarro, J., *El proceso cambiario*, Madril, 2000.

Cortés Domínguez, V., *La nueva Ley de Enjuiciamiento Civil. Los procesos especiales y los ordinarios con especialidades*, V. Liburukia, Madril, 2000.

Illescas Rus/López Pérez, *Comentarios a la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, III. Liburukia (819-827 artikulua), Bartzelona, 2000.

Paz Ares, C., "Las excepciones cambiarias", en *Derecho Cambiario, Estudios sobre la Ley Cambiaria y del Cheque*, op. cit., 251. or. eta hurrengoak.

Rodríguez Merino, *Comentarios a la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, IV. Liburukia (819-827 artikulua), Valladolid, 2000.

8. KAPITULUA

KANBIO-AKZIOAK ETA KANBIO-ARLOTIK KANPOKO AKZIOAK

I. KANBIO-AKZIOAK

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak jaramonik egiten ez zaion letraren edukitzaileari kanbio-akzio bi ematen dizkio, betebehardunei bere zenbatekoaren ordainketa judizialki eskatzeko: kanbio-akzioa zuzena izan daiteke, onartzailearen edo haren abal-emaileen aurka, baita atzerabidezkoa ere, beste edozein betebehardunen aurka (49.1 artikulua).

A) Akzio zuzena

Akzio zuzenak behar duen baldintza bakarra igorpenduak letra onartzea da. Beraz, akzio hori gauzatzeko, ez da beharrezkoa une egokian letra ordainketarako aurkeztea, ezta protestorik edo adierazpen baliokiderik egitea, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 49.2 artikulua dioenez: «Ordaindu ezean, edukitzaileak (igorlea bera bada ere) kanbio-letratik ondorioztatutako zuzeneko akzioa izango du, onartzailearen eta haren abal-emailearen aurka, protestoaren beharrik gabe 58. eta 59. artikuluetan ezarritakoa erreklamatzeko, bai bide arruntetik, bai kanbio-agiriei buruzko prozesu berezitik». Horrek esan nahi du akzio zuzena preskripzio-epearen menpe baino ez dagoela. Gainera, ez da pentsatu behar zuzeneko akzioa azken endosu-hartzaileak soilik gauza dezakeenik, baita atzerabidezko edozein betebehardunak ere, igorlea eta haren abal-emaileak barne, letraren zenbatekoa ordaindu dutenean. Era berean, zuzeneko akzioa onartzailearen eta haren abal-emailearen aurka gauzatzeaz gainera, ordezkari faltsuaren eta ahalordean gehiegikeriaz jokatu duen ordezkariaren aurka ere (kasu honetan, gainditutako eremuan) jar daiteke.

B) Atzerabidezko akzioa

Atzerabidezko akzioa gauza daiteke mugaegunaren aurretik zein ostean. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 50. artikulua ezartzen duenez: «Letra mugaeguneratu ondoren, edukitzaileak (eta letra ordaindu duen edozein sinatzailek, igorlea eta onartzailearen abal-emailek izan ezik), bere atzerabidezko akzioa gauzatu ahal izango du endosu-emaileen, igorlearen eta gainerako betebehardunen aurka, ordainketa egin ez bada. Akzio hori berori muga-egunaren aurretik ere gauzatu ahal izango da, honako kasu hauetan:

- a) Onarpena erabat edo zati batean ukatu denean.
 - b) Onartzailea izanda zein ez, igorpendua konkurtsoan dagoenean edo haren ondasunen embargo emaitzarik gabekoa izan denean.
 - c) Kanbio-letra bat onarpenera aurkeztea debekatu ondoren, letraren igorlea konkurtsoan dagoenean.
- b) eta c) paragrafoetako kasuetan, epaileak ordaintzeko beste epe bat eman ahal izango die mandatuei; dena den, epe hori letraren muga-egunean amaituko da, gehienez».

Kontuan hartu behar da letraren eramaileak eskubidea izango duela pertsona horien guztien aurka banan-banan edo batera judizialki jarduteko, beren burua behartu duten ordena bete beharrik gabe. Eta edozein betebehardunen aurka egiten saiatu den akzioak ez du eragotziko besteen aurka jardutea, nahiz eta, lehenengo demandatuaren aldean, gerokoak izan (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 57. artikulua).

Atzerabidezko akzioa gauzatzeko, kasuan kasuko beharrezko baldintzak honako hauek dira:

1. Atzerabidean jardutea onarpenik ezagatik denean: kanbio-letra onarpenera aurkeztea epe eta forma egokian, onarpena erabat edo zati batean ukatua izatea, eta, ezinbestekoa izanik, onarpenik ezagatik protestoa edo adierazpen baliokidea egitea.
2. Atzerabidean jardutea ordainketarik ezagatik denean: ezinbestekoa den kasuetan (“onarpen bidez” edo ikustetik epe zehatz batera jaulkitako kanbio-letretan), letra onarpenera aurkeztea epe eta forma egokian, edozelan ere bere unean ordainketara aurkeztea, ordaindua ez izatea eta, ezinbestekoa izanik, ordainketarik ezagatik protestoa edo adierazpen baliokidea egitea.
3. Atzerabidean jardutea igorpenduaren (onartzaile izan edo ez) eta onarpenera aurkeztea debekatzen duen igorlearen konkurtsoagatik denean: konkurtsoaren adierazpen-autoa aurkeztea.
4. Atzerabidean jardutea igorpenduaren ondasunen enbargoa emaitzarik gabekoa izateagatik denean (hau da, garatu den betearazte-prozesuak hartzekodunen kredituak ez dituenen asetu): betearazte-autoaren bitartez egoera hori frogatzea.

C) Protestoa

a) Kontzeptua eta funtzioak

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen aurretik, protestoa honela definitzen zen: Notario-egintza, edukitzaileak kanbio-letraren ordainketa edo onarpena gauzatzen saiatzearen legezko betebeharra emaitzarik gabe bete duelako fedea ematen duena. Gainera, notario-egintza horrek hiru funtzio betetzen zituen, protestoa ezartzean:

1. Igorpenduaren edo onartzailearen ezezko jarreraren (letraren onarpena edo ordainketa saihestea) frogabidea izatea.
2. Protestoaren unean letraren egoera zehazteko, eta ondorioz pertsona betebehardunak zehazteko, frogabidea izatea.
3. Zuzenak zein atzerabidezko kanbio-akzioei eusteko legezko baldintza izatea.

Kontzeptu horrek eta aipatutako funtzio horiek baliozkoak izaten jarraitzen dute; hala ere, esan behar da 1885eko Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak, lehen ezarri dugunez, ez duela eskatzen zuzeneko akzioa gauzatzeko protestorik formalizatzea, eta,

arruntekin batera, “protesto bereziak” deiturikoak arautzen dituela, adierazpen baliokidearekin eta baztertze-suposizioekin batera.

b) Protesto motak

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearekin, protestoaren kontzeptua handitu egiten da. Horrela, onarpenik ezagatik [edo letraren testuan onarpenak sartutako aldaketagatik: «Onarpena garbia eta sinplea izango da, baina igorpenduak diru kopuruaren zati batera murriztu ahal izango du. Onarpenak kanbio-letraren testuan sartutako beste edozein aldaketa onarpenaren ukoaren baliokidea izango da. Dena den, onartzailea behartuta geratuko da, bere onarpenaren baldintzen arabera»], edo ordainketarik ezagatik (51. artikulua dioenez: «onarpen edo ordainketarik eza protestoaren bidez agerrarazi beharko da») ohiko protestoaz gainera, *sui generis* beste protesto-suposizio batzuk sartzen dira:

1. 29. artikulua suposizioa: ikustetik epe zehatz batera edo epe zehatz batean onarpena aurkeztu behar diren letratan, onarpenean adierazi beharko da zer egunetan hartu den, eramaileak aurkezpen-eguna ezartzeko eskatu ezean. Datarik gabe, letraren eramaileak ez-egite hori agerraraziko du, bere eskubideak endosu-emaileen eta igorlearen aurka gordetzeko.

2. 81. artikulua suposizioa: letraren aleetako bat onarpena bidaltzen denean, onartzaileak beste ale baten legezko eramaileari eman beharko dio, hala eskatzen dionean. Hori egiteari uko egiten badio, eramaileak, bere atzerabidezko akzioa gauzatzeko, protestoaren bidez agerraraziko du onarpena bidali den alea ez zaiola itzuli, hori eskatu duen arren, eta ez duela lortu onarpena ezta ordainketa ere beste ale baten bidez.

3. 83. artikulua suposizioa: kanbio-letraren kopiak egiten direnean, jatorrizko titulua edukitzaileak titulu hori kopiaren legezko eramaileari eman beharko dio. Hori egiteari uko egiten badio, edukitzaileak kopia endosatu edo bermatu duten pertsonen aurka bere atzerabidezko akzioa gauzatzeko, protestoaren bidez agerraraziko du jatorrizko titulua eskatu duen arren, ez zaiola eman.

c) Protestoaren ordezte eta baztertze-suposizioak

Protestoaren gastuak eta izapideak saihesteko, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 51.2 artikulua honako hau dio: «Bai letran bertan agertzen den adierazpenak, igorpenduaren sinadura eta data daramatzanak eta onarpena edo ordainketa ukatzen duenak, bai helbideratze-hartzailearen edo, hala denean, Konpentsazio-ganberaren mota bereko adierazpenak, ordainketa ukatzen duenak, protestoaren kanbio-ondore guztiak sortuko dituzte, letran —araudi aplikagarriak hautazko klausuletarako uzten duen lekuan, hain zuzen— igorleak notario-protestoa egiteko beren-beregi eskatu ezean. Nolanahi ere, igorpenduaren, helbideratze-hartzailearen edo Konpentsazio-ganberaren adierazpena hurrengo artikuluan notario-protestorako ezarritako epeen barruan egin beharko da».

Ez protestoa, ez adierazpen baliokidea, ez dira beharrezkoak izango hurrengo suposizioetan:

-Onarpenik ezagatik notario-protestoa egiten denean, zeren eta, kasu horretan, onarpenik ezagatiko protestoak letraren edukitzailea ordainketara aurkeztetik edo ordainketarik ezagatiko protestotik salbuetsiko baitu (51.5 artikulua).

-Igorpendua —onartu duen ala ez kontuan hartu gabe—, edo onarpenik behar ez duen kanbio-letra baten igorlea konkurtsoan badago, nahikoa izango da konkurtsoa adierazten duen autoa aurkeztea, eramaileak bere atzerabidezko akzioak gauzatzeko aukera izan dezan (51.6 artikulua).

-Kanbio-letran “Gasturik gabe” klausula idatziz gero: Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 56. artikulua arabera: «“Gasturik gabeko itzulketa-klausularen”, “protestorik gabekoaren” edo tituluan idatzi eta sinatutako beste edozein adierazpen baliokideren bidez, igorleak, endosu-emaileak edo haren abal-emaileak edukitzaileari barkatu ahal izango diote onarpen edo ordainketarik ezagatiko protestoa eginaraztea, bide arruntetik zein betearazte-bidetik bere atzerabidezko akzioak gauzatu ahal izateko. Klausula horrek ez dio edukitzaileari barkatuko letra bidezko epeetan aurkeztu beharra, ezta eman beharreko jakinarazpenik ere. Epeak ez betetzearen froga edukitzailearen aurka hori alegatzen duenari egokituko zaio. Klausula igorleak idazten badu, sinatzaile guztiei dagokienez sortuko ditu bere ondoreak; endosu-emaile edo abal-emaile batek idazten badu, berriz, haiei dagokienez baino ez ditu sortuko ondoreak.

d) Protestoaren epea eta forma

Epeari dagokionez, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak bereizten du protestoa onarpenik ezagatik edo ordainketarik ezagatik denean:

-Onarpenik ezagatik denean, notario-protestoa onarpenera aurkezteko ezarritako epeen edo hurrengo zortzi egun baliioduneko epearen barruan egin beharko da (51.3 artikulua).

-Egun jakin batean edo datatik edo ikustetik zenbatu beharreko epe jakin batera ordaintzeko kanbio-letra baten ordainketarik ezagatiko protestoa kanbio-letraren muga-egunera iritsi eta hurrengo zortzi egun baliiodunetako batean egin beharko da. Ikustean ordaintzeko letra bada, protestoa aurreko paragrafoan onarpenik ezagatiko protestorako adierazi den epean egin beharko da (51.4 artikulua).

Hasiera batean, ezinbesteko kasuak ez du salbuetsiko letraren edukitzailea protestoa egitetik, ezinbesteko kasua amaitu ondoren edukitzaileak letra onarpenera edo ordainketara aurkeztu beharko baitu, berandutu gabe, eta, egokia bada, protestoa egin. Muga-egunetik aurrera zenbatuta hogeita hamar eguneko epearen ondoren oraindik ezinbesteko kasuak jarraitzen badu, atzerabidezko akzioak gauzatu ahal izango dira, aurkezpenaren eta protestoaren beharrik gabe (64. artikulua).

Formari dagokionez, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak (52. artikulutik 54. artikulura bitartean) protestoa zentzu hertsian, haren jakinarazpena eta ondorengo jokabideak aipatzen ditu: Letra protestatua geratzeko adierazpena notarioaren aurrean

gingo da letra kopiatu edo errepikatzen duen aktaren bidez, 51. artikuluan ezarritako epeen barruan. Hurrengo bi egun baliodunen barnean, notarioak protestoa jakinaraziko dio igorpenduari, paper arruntean egindako zedula baten bidez; bertan, notarioaren izena, abizenak eta bulegoko helbidea adieraziko dira. Zedulan letra kopiatu edo errepikatuko da, eta igorpenduari adieraziko zaio notariotzan gordeta dagoen jatorrizko agiria aztertzeke zer epe daukan, 53. artikuluaaren arabera, kasuan kasu letra onartu edo ordaintzeko edo protestoarekin bat datozen adierazpenak egiteko.

Notarioak, edo notarioak lan horretarako hautatzen duenak, jakinarazpen-zedula emango die igorpenduari, haren mendeko edo senideei edo haren helbidean dagoen edozein pertsonari. Haietako bat ere aurkitu gabe, jakinarazpena modu baliozkoan egin dela ulertuko da, helbide horretako edozein auzokori emanda. Zedula jasotzeari uko egiteak ez dio eragingo jakinarazpenaren baliotasunari. Hori guztia protesto-aktan agerraraziko da, diligentsia bidez. Helbideratutako letretan, jakinarazpena helbideratze-hartzaileari egingo zaio. Horregatik, kreditu-erakundeak behartuta daude bi egun balioduneko epean igorpenduari helbideratutako kanbio-letren ordainketarik ezagatik protestoaren jakinarazpen-zedula bidaltzera.

Jakinarazpena eginda, notarioak letra gordeko du, eta ez dio edukitzaileari emango, ez letra bera, ez protestoaren inolako testigantzarik, jakinarazi eta hurrengo bigarren egun balioduneko eguerdiko ordu biak arte. Denbora horretan eta bulego-orduetan, interesdunek notariotzan letra azertu, eta protestoarekin bat datozen adierazpenak egin ahal izango dituzte. Protestoa ordainketarik ezagatik egiten bada eta ordaintzailea epe horren barnean zenbatekoa eta protestoaren gastuak ordaintzeko bertaraten bada, notarioak ordainketa onartuko du, eta letra emango dio. Bertan eta aktan letra ordaindu dela eta protesta baliogabetu dela adierazi beharko da. Era berean, protesta onarpenik ezagatik egiten bada, azkenean, letra onartuz gero, protestoaren baliogabetzea aktan idatziko da. Ezarritako epea (jakinarazi eta hurrengo bigarren egun balioduneko eguerdiko ordu biak) iraungi eta hurrengo bost egun balioduneko epearen barruan, notarioak letra itzuliko dio edukitzaileari, protestoaren aktaren kopia batekin batera. Hala ere, edukitzaileak agiri horiek jaso ahal izango ditu, ezarritako epea iraungitzen den unetik beretik.

Protestoa egiteaz gainera, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 55. artikulua ezartzen du edukitzaileak onarpen edo ordainketarik eza jakinarazi beharko diela bere endosu-emaileari eta igorleari, zortzi egun balioduneko epearen barnean. Epe hori honela zenbatuko da: 1) Notario-protestoaren kasuan, protestoaren egunetik aurrera; 2) Adierazpen baliokidearen kasuan, bertan adierazten den egunetik aurrera; 3) “Gasturik gabeko” itzulketak-klausularen kasuan, letra aurkezten den egunetik aurrera.

Jakinarazpenaren betebeharra badagokie endosu-emaileei ere. Horrela, endosu-emaileak, jakinarazpena jaso duen egunaren ondorengo bi egun balioduneko epearen barnean, bere endosu-emaileari jakinarazi beharko dio, aurreko jakinarazpenak eman dituzten izenak eta helbideak adierazita. Betebehar berdina egokituko zaie endosu-emaile guztiei, igorlearenganaino heldu arte. Aipatutako epeak aurreko jakinarazpena jasotzen den unetik beretik zenbatuko dira. Letraren sinatzaile bati egindako edozein

jakinarazpen haren abal-emaileari ere egin beharko zaio, epe beraren barnean. Jakinarazpena aurretik adierazitako epearen barnean egiten ez duenak bere akzioa gordeko du, baina bere axolagabekeriak eragindako kaltearen erantzulea izango da, horrelakorik sortuz gero. Hala ere, kalte-galerengatik eskatutako zenbatekoa ezin izango da kanbio-letrarena baino handiagoa izan.

D) Kanbio-akzioen eduki ekonomikoa

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 58. eta 59. artikuluek aipatzen dute kanbio-akzioen bitartez edukitzaileak zer erreklamatu ahal izango duen. Lehenengoak —asegabeko edukitzaileak zuzeneko edo atzerabidezko akzioa gauzatzean aplikatuko dena— ezartzen du edukitzaileak onartu edo ordaindu gabeko kanbio-letraren zenbatekoa, diru kopuru horren interesak, letraren muga-egunetik sortutakoak, bi puntu gehitutako diruaren legezko interes-tasa erabiliz kalkulaturik, eta gainerako gastuak, protestoarenak eta jakinarazpenenak barne, erreklamatu ahal izango dizkiola bere akzioa gauzatzearen ondorioa jasotzen duen pertsonari. Akzioa muga-egunaren aurretik gauzatuko balitz, bidezko deskontua kenduko litzateke letraren zenbatekotik. Deskontu hori akzioa gauzatzen den egunean indarrean dagoen eta bi puntu gehitzen den diruaren legezko interesa erabiliz kalkulaturik da.

Aipatutako bigarren artikulua ezartzen du kanbio-letra ordaindu duenak honako hauek erreklamatu ahal izango dizkiela haren aurrean erantzuleak diren pertsonari (bera baino lehenago letra sinatu dutenei): ordaindu duen diru kopuru osoa, diru kopuru horren interesak, ordainketa egunetik aurrera sortutakoak, diruaren legezko interesa bi puntu gehituz kalkulaturik, eta, azkenik, egin dituen gastuak.

E) Kanbio-akzioen preskripzioa

Merkataritzako Kodea indarrean zegoen bitartean, akzio guztientzat preskripzio-epe orokor bat ezartzen zen —hiru urte letraren muga-egunetik aurrera. Berriz, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legeak epe desberdinak ezartzen ditu: onartzailearen aurkako kanbio-akzioak hiru urtera preskribatuko dira, muga-egunetik aurrera zenbatuta. Edukitzaileak endosu-emaileen eta igorlearen aurka dituen akzioak urtebetera preskribatuko dira, denbora baliozkoan egindako protestoaren edo adierazpen baliokidearen egunetik edo «gasturik gabeko» klausulak dituzten letren muga-egunetik zenbatuta. Endosu-emaile batzuek besteen eta igorlearen aurka dituzten akzioak sei hilabetera preskribatuko dira, endosu-emaileak letra ordaindu duen egunetik edo haren aurka aurkeztutako demanda jakinarazi zaion egunetik aurrera zenbatuta. Gainera, preskripzioa eteteko kausak izango dira Kode Zibilaren 1973. artikuluan ezarritakoak eta ez Merkataritzako Kodearen 944. artikuluan ezarritakoak, zeren eta, bestela, «hartzekodunaren judizioz kanpoko erreklamazioa» ez bailitzateke ulertuko preskripzioa eteteko kausatzat.

II. ESKU-HARTZEAGATIKO ORDAINKETA

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 74. artikulua ezartzen duenez: «Esku-

hartzeagatiko ordainketa edukitzaileak atzerabidea gauzatzeko eskubidea daukan guztietan egin daiteke, letraren muga-egunaren aurretik zein ondoren. Esku-hartzea eragiten duen pertsonak ordaindu beharreko diru kopuru osoa barnean hartu beharko du eta, asko jota, ordainketarik ezagatiko protesta egiteko baimendutako azken egunaren hurrengo egunean egin beharko da». Esku-hartzeagatiko ordainketa ukatzen duen edukitzaileak bere akzioak galduko ditu, ordainketa onartuz gero liberatuko ziren kanbio-betebehardun guztien aurka. Egia esan, Betebeharren Zuzenbide Orokorrean aurreikusten den hirugarren batek egindako ordainketaren modalitate bat besterik ez da (Kode Zibilaren 1158. artikulua: «Ordainketa edozein pertsonak egin dezake, pertsona horrek betebeharraren betetzean interesa izan zein ez, zordunak hori jakin eta onartu nahiz hori jakin ez»).

Esku-hartzeagatiko ordainketak esku-hartzea eragiten duen pertsonaren ondorengo sinatzaile guztiak liberatuko ditu. Hori egiten duen pertsonak letratik ondorioztatutako eskubide guztiak eskuratuko ditu, esku-hartzea eragin duen kanbio-betebehardunaren aurka eta haren aurrean erantzuten duten guztien aurka. Hala ere, letra ordaintzen duen esku-hartzaileak ezin izango du berriro endosatu.

III. KANBIO-ARLOTIK KANPOKO AKZIOAK

Aurreko kanbio-akzioekin batera, kausazko akzioa eta aberaste-akzioa ditugu. Azken akzio horiek, bata letraren igorpena edota dagokion kanbio-adierazpena eragiten duen negozio juridikoan oinarritzen da, eta bestea, besteren kaltean bidegabe inor ezin dela aberastu ezartzen duen printzipioan.

A) Kausazko akzioa

Kanbio-edukitzaileak zordun jakin baten aurka honako akzio hauek ditu: kanbio-akzioa, titulutik sortzen dena, eta kausazko akzioa, azpiko negoziotik sortzen dena. Haien artean konkurrentzia-harremana gertatzen da, biek letraren ordainketa lortu nahi dutelako, baina baita alternantzia-harremana ere, kanbio-kreditua asez gero akzio baten bitartez beste akzioa iraugitzen delako. Gure ordenamenduak kausazko akzioa aipatzen du Kode Zibilaren 1170. artikuluan, ezartzen duenean: «Agindurako zor-agiriak edo kanbio-letrak nahiz merkataritzako beste edozein agiri emateak ordainketaren ondoreak sortuko ditu, agiriok diru bihurtzen direnean edo hartzekodunaren erruz kalteturik gertatzen direnean. Bien bitartean, jatorrizko betebeharrak eratorritako akzioa etenda geratuko da». Artikulu horretatik eratortzen da letra kalteturik geratuz gero atzerabidezko kanbio-akzioez gainera kausazko akzioa ere iraugi egiten dela. Horregatik, edukitzaileak azken akzio hori gauza dezan, ezinbestekoa da muga-eguna iristen denean letra ordainketara aurkeztea eta, ezinbestekoa izanik, protesta edo adierazpen baliokidea egitea. Eskuarki, kanbio-akzioa gauzatuko da, eta ez kausazkoa, betearazte-bideak bide arruntaren aurrean duen abantaila kontuan harturik.

a) Kanbio-salbuespenak kausazko akzioaren aurrean

1) Letra ematea: Kode Zibilaren 1170. artikulutik eratortzen da zorra ordaintzeko lehentasuna ematen zaiola kanbio-letraren bitartez egiten den asetzeari. Beraz, kausazko

uzia gauzatzen bada, haren aurrean zordunak aurkara dezake letra ematearen salbuespena. Kausazko akzioa gauzatzeko unea izango da zordunak emandako letrarekin itxarondako asetzea eskuratzen ez denean: muga-egunean letraren borondatezko ordainketa lortzen ez denean, edo muga-egunaren aurretik onarpena ukatzen denean, edo igorlearen edo igorpenduaren segurtasun faltagatik (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 50.2 artikulua).

2) Letra ematearen kontra soilik ordainketa egitea: nahiz eta kausazko akzioa gauzatzeko unea heldu, horrek ez du esan nahi besterik gabe hartzekodunak zordunari dagokion betebeharra betetzea erreklama diezaiokeenik. Zordunak eskubidea du, aldi berean, emandako kanbio-letra berreskuratzeko, erreskate-titulu izaera baitu.

3) Letra ordaintzearen salbuespena: hau da, letra igorpendu hutsak edo onartzaileak ordaintzen duenean. Egintza horrek kanbio-kreditua iraungitzen du, eta gainerako betebeharrak guztiak liberatuta geratuko dira. Horrela, letra eta kausazko uziaren arteko lotura kontuan harturik, letraren ordainketak kausazko uzia iraungitzen du. Kausazko hartzekodunak *ex causa* jardungo balu, kausazko zordunak aurkara dezake salbuespen gisa letra ordaindu duela igorle edo onartzaile bezala.

4) Letra kaltetuaren salbuespena: letra kaltetzen denean, galera garrantzitsu bat gertatzen da, zeren eta edukitzailearen kanbio-zordunen taldea (kanbio-letra igorri, onartu, endosatu edo bermatu dutenak) letraren onartzailera eta, hala denean, haren abal-emailerara murrizten delako. Edukitzailearen (igorlea ez ezik) posizioaren hondatze hori da adierazi nahi dena «letra kaltetua» adierazpenarekin. Gertakizun horrek, kanbio-arlokoa erabat, kausazko uziaren iraungipena eragiten du. Zordunak daukan betebeharra betetzeko letra bat entregatu badu, letra horren edukitzaileak letra kaltetzen utzi badu, bien arteko kausazko lotura hura mantentzeak ez luke zentzurik izango.

Dena den, esan behar da letraren kalteak ez duela azpiko kausazko betebeharrak guztien iraungipena eragiten. Horrela, adibidez, onartzailearen kausazko betebeharra ez da iraungitzen, haren aurka kanbio-uzia mantentzen delako (Kanbio-eta Txeke-Legearen 63.1 artikulua). Hain zuzen, letraren edukitzailea eta onartzailea kanbio-obligaziodun gisa jarraitzen badute, haien kausazko lotura ere jarraituko du (edukitzaileak onartzailearen aurka kausazko akzioa gauzatu ahal izango luke, aurretik biak kausazko harreman bateko alderdiak izango balira).

B) Aberaste-akzioa

Akzio hau gauzatzeko, ezinbestekoa da edukitzaileak obligaziodun guztien aurka kanbio-akzioak zein kausazkoak galdu izana. Horrela, edukitzaileak kanbio-akzioa galdu duenean obligaziodun guztien aurka eta haien aurka akzio kausalak gauzatu ezin dituztenean, igorle, onartzaile edo endosu-emaile bati aurka egin ahal izango dio eta haren kalterako modu bidegabean eskuratu duten diru kopurua ordaintzeko eskatuko die, titulutik sortutako eskubideak gordetzeko Legeak eskatzen dituen ekintzak ez egiteagatik kanbio-obligazioa desagertzearen ondorioz. Edukitzailearen aldeko aberaste-

akzioa kanbio-akzioa iraungitzen denetik hiru urtera preskribatuko da.

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Eizaguirre, J. M^a., «Prescripción cambiaria y acción causal», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 34, 1989, 241. or. eta hurrengoak.

García-Cruces, J.A., *Letra de cambio perjudicada y ejercicio de la acción causal*, Madril, 1992.

Jiménez Sánchez, G., «Acción causal y acción de enriquecimiento», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 25, 1987, 7. or. eta hurrengoak.

Pérez de la Cruz, A., «Las acciones cambiarias», *Derecho cambiario*, op. cit., 663. or. eta hurrengoak.

Paz-Ares, C., «La responsabilidad cambiaria derivada de una letra perjudicada», *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 549, 1982, 429. or. eta hurrengoak.

KASU PRAKTIKOA

1) Letraren muga-eguna heltzen da eta bere edukitzaileak (E) onartzaileari ordainketara aurkezten dio. Horrek ordainketa ukatu egiten du; beraz, letraren edukitzaileak zuregana jotzen du honako hau jakin nahi duelako: zein akzio gauza dezakeen eta gauzatze horretarako zer baldintza bete behar diren; zer den protestoa eta “gasturik gabeko” klausula ezartzearen ondorioak.

2) Edukitzaileak, onarpenerako aurkezpen-epea duen letra onarpenera aurkezten du. Epean aurkezten du, eta igorpenduak onartu egiten du, onarpen-data ezartzen ez den arren. Zer egin behar du edukitzaileak endosatzaileen eta igorlearen aurka eskubideak gordetzeko? Zergatik?

3) Edukitzaileak onartzailearen aurka zuzeneko akzioa gauzatzeko asmoa du. Zer kopuru erreklamatu du?

4) Segidan, onartzailea kaudimengabea denez, letraren edukitzaileak bere aurreko endosatzaileari eskatzen dio ordainketa. Azken horrek ere ez duenez ordaindu nahi, haren aurka atzerabidezko akzioa ezartzen du. Zer kopuru erreklamatu du?

5) Kontua da endosatzaile hori ere kaudimengabea dela. Orduan, letraren edukitzaileak aurreko beste endosatzaile bati eskatzen dio ordainketa, eta horrek bai, ordaindu egiten du. Ordaintzaile horrek igorleari erreklamatu dio ordainketa, baina igorleak ez du ordaindu nahi. Haren aurka atzerabidezko akzioa ezartzen du. Zer kopuru erreklamatu du?

6) Letraren edukitzaileak (E) ez du legezko epean protestoa egiten, eta zuk esaten diozu arazo handia duela, letra onartu gabe baitago eta kaltetuta geratu delako. E-k galdetzen dizu: zer den kaltea, akzio kausala ez ote duen gordetzen, eta nola defenda dezakeen bere eskubidea.

9. KAPITULUA

KANBIO-LETRARI BURUZKO SALBUESPENEN ARAUAK

I. SALBUESPENEI BURUZKO DOKTRINAREN KOKAERA SISTEMATIKOA

Salbuespenen adierazpenak kanbio-bide judizialean egiten direnez, doktrinak salbuespenak atzerabidezko akzioekin batera aztertzen ditu; hau da, Kanbio Zuzenbideari dagokion auzien jurisdikzioan.

Salbuespenak ez dira ezartzen Kanbio-Zuzenbideak ematen dituen eskubideak egikaritzeko. Izan ere, salbuespenek kanbio-eskubidearen alde negatiboa erakutsiko digute, alderdi positiboa dokumentuak berak agerian uzten duen eskubidea baita. Legegileak kanbio-letran parte-hartzen duten alderdien arteko interesak kontuan hartuz (letraren jabea, zorduna eta trafiko ekonomikoa), tresna juridiko erabilgarri bat eratu nahi izan du. Hori dela eta, kanbio-letraren dokumentua kanbio-eskubidearen euskarria da, eta agiria Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikulua araberatzen ez bada, salbuespenak ezartzeko aukera egongo da (KLTL 2. artikulua).

II. SALBUESPENEN AURREBALDINTZAK

Salbuespenen garrantzia ordenamendu juridiko batek atzerabidezko akzioak aurkaratzeko edo ez-aurkaratzeko aukeran datza.

Salbuespenen oinarriak Kanbio Zuzenbidearen araudi osoan aurkitzen dira. Beraz, legeria berezi horretan leku garrantzitsua hartzen dute.

Salbuespenak legegileak kanbio-zordunari eman nahi izan dizkion defentsa-baliabideak dira. Baliabide juridiko horiek hartzekodunaren eskubideari kalte egin diezaiokete. Horren ondorioz, bi baldintza hauek hartu beharko dira kontuan:

- Salbuespenen forma bat egingo du legegileak salbuespenak arautzean eman dituen irizpideekin, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen arauekin alegia.

- Salbuespen araudiak oinarri juridiko argi eta gutxi batzuk izango ditu, nahasketarako

biderik eman ez dezaten. Interpretazio-lana doktrinari egokituko zaio.

III. KANBIO-LETRA ETA TXEKEARI BURUZKO LEGEAREN 67. ARTIKULUAREN ARAUDIA

1. Arauaren sorrera

Genevako Lege Uniformeak salbuespenei buruzko arau bakarra dauka, 17.a, Europako zenbait lurraldetan (Alemanian, Frantzia, eta abarretan) arau hori garatu egin zuten beren ordenamendu juridikoetan.

Espainako legegileak, aldiz, bi bide hartu zituen prezeptua egokitzeko barne-araudira. Batetik, jurisprudenzia interpretatzeko bidea (KZ 1.6 artikulua); bestetik, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 20. artikulua osaketa Lege Uniformearen 17. artikulutik egindako transkripzioaren bidez. Horren ondorioz, Lege Uniformearen artikulua Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 20. artikulura mimetikoki pasatu zen. Egokitze-prozeduraren bi arlo horiek, jurisprudenziaren interpretazioa eta Lege Uniformearen barneratzea, akatsak izan arren, nahiko ondo egokitu ziren Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen araudira, araudi horren 67. artikulua hori ahalbideratzen baitzuen.

2. Salbuespen guztien aipamenaren ezintasuna

Aipatu dugun bezala, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikuluko salbuespenen araudiak bi zailtasun zituen. Batetik, Espainiako Zuzenbideak salbuespen arloan zuen tradizio falta; bestetik, 67. artikulua indarrean jartzeko alde aurretiko eztabaidarik egin ez izana, Genevan ez bezala.

Dena den, azkenean aurretiko eztabaida hori *a posteriori* egin behar izan zen, zeren eta 67. artikulua esanahia zehazteko beste modurik ez baitzegoen.

3. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua akatsak

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua indarrean jartzea zaila izan zenez, haren azterketak leku berezia izango du ondoko lerroetan.

IV. SALBUESPENEN LEGEZKO KATALOGOA: KANBIO-LETRA ETA TXEKEARI BURUZKO LEGEAREN 67. ARTIKULUAREN AZTERKETA

1. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua eraketa osagabea

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 20. artikulua Genevako Lege Uniformearen 17. artikulua testua bere horretan jaso zuen, arau hori barne-araudira egokituz.

Aurreratu dugun bezala, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua, berriz, salbuespenak jasotzen ditu, *numerus clausus* teknika erabiliz: “Kanbio-akzio baten aurrean artikulua honetan jasotzen diren salbuespenak soilik aurkara daitezke”.

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua honen bidez legegileak ordenamendu juridikoaren gainerako arauekin koherentea izan nahi bazuen ere, azkenean orekarik ez zuen lortu, zeren eta ordenamenduaren hainbat salbuespen kanpoan geratu baitziren. Haien artean, hauek aipa ditzakegu: onartzaileari, interdikzio judizialaren bidez, ezar daitekeen luzamenduzko ordainketaren salbuespena (KLTL 85.3 artikulua), faltutze-salbuespena (KLTL 93 artikulua), kanbio-judizioari dakioken *pluspetitio*-salbuespena ezartzea (Prozedura Zibilararen Legearen 818.1 artikulua), prozesuaren salbuespenak (eskumenik eza —PZL 63.1 artikulua—, gauza epaitua eta

litispendentzia —PZL 416.1 artikulua—, gaitasunari edo ordezkartzari dagozkion akatsak —PZL 418.1 artikulua—).

Aipatu ditugun salbuespen horietaz gain, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua dokumentu bidezko froga guztien salbuespenak kanpo utzi zituen: kanbio-eskubidea egikaritzeko salatzen duten salbuespenak [dekadentzia- edo kalte-salbuespena (KLTL 63 artikulua)], erantzukizuna ekiditeko klausuletatik eratorritako salbuespenak (KLTL 11.2, 18.1 eta 2 artikulua), eskubidearen edukia salatzen duten salbuespenak, hau da, eskaera-edukiaren eta letra-testuaren arteko desberdintasunak salatzen duten salbuespenak. Horren adibidea hau izan daiteke: kanbio-letra batek ordainketa partziala jasotzen duenean idatzirik, *pluspetitioaren* salbuespena adierazpen horretan oinarritu daiteke. Luzamenduzko salbuespena, berriz, kanbio-letrak hasierako muga-egunaren luzapena jasotzen duenean aurkaratu daiteke.

Edonola ere, Kanbio-Zuzenbidearen eta Zuzenbide pribatuaren arteko koherentziak eskatzen du Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulutik kanpo geratu diren salbuespenak aintzat hartzea arauak interpretatzeko (salbuespenak *aliunde* osatzea). Beraz, esan dezakegu ordenamendu juridiko pribatuak eskatzen duen osotasuna gorago dagoela Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67.3 artikulua jasotzen duen *numerus clausus* agindua baino. Esan beharra dago Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen hitzaurreak eta jurisprudentziak bat egiten dutela 67. artikulua salbuespenen osaketaz.

2. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua salbuespenen sailkapena

Bestalde, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua jasotzen duen sailkapenak zalantzak sortu ditu adituen artean.

Alde batetik, kontzepzio tradizionala eratzen duten adituak daude. Haien defendatzen dute Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67.1 artikulua salbuespen pertsonalak eta 2. paragrafoak salbuespen errealak jasotzen dituela.

Salbuespen pertsonalak zordunak hartzekodun baten edo jakin batzuen aurrean aurkara daitezke, *in personam* alegia. Salbuespen errealak (absolutuak eta objektiboak), aldiz, edozein hartzekodunen aurrean aurkara daitezke (*erga omnes, in rem*).

Ikuspegi tradizionalak duen balio sistematikoa alde batera utzirik, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua ez dator bat doktrina horrek proposatutakoarekin. Izan ere, kanbio-letraren harpidedun batek baliorik gabeko adierazpen bat egingo balu, demagun kanbio-letrak adostasun-akatsa izatea, haien ustez araudiak onartu egingo luke fede oneko hirugarren edukitzaile baten aurrean abusuzko salbuespena aurkaratzea. Baina Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. artikulua ez du horrelakorik onartzen. Artikulu horrek jasotzen duenaren arabera, fede oneko hirugarrenen aurrean ezin da kanbio-letraren abusuzko klausularen salbuespena aurkaratu.

Beraz, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikuluaen paragrafoen arteko parekotasun horrek fede oneko hirugarrenen eskubideak urratzen ditu. Horren ondorioz, esan daiteke Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67.1 artikulua *salbuespen estrakanbiarioak* jasotzen dituela, eta 2. paragrafoak, berriz, kanbio-salbuespenak; azken horiek pertsonalak eta errealak izan daitezke.

V. SALBUESPENEN SISTEMATIZAZIOA

1. Doktrina tradizionalak egindako salbuespen-sailkapenaren erabilgarritasunik eza

Aztertzen ari garen arazo honen gakoa hau da: ea hartzekodunak salbuespen baten aurrean babes kartularra duen ala ez, ea *salbuespen-esklusioa* duen ala ez alegia.

Salbuespenen aurkako babes (*immunitatea*) egoera jakin batean baino ez da gertatuko: hirugarren batek, dokumentuaren lehenengo hartzailea ez den batek, papera hartzen duenean. Beraz, dokumentua eskualdatu ez denean, ezin da Legeak eskualdatzeari ematen dion babes aplikatu. Horrelakoetan, aldierrdien artean Kontratu Zuzenbidearen arau orokorrak aplikatuko dira (KZ 1261. artikulua eta ondokoak). Beraz, *inter partes* ez da gertatuko salbuespenen eskusiorik.

Dena den, hirugarrenen aldeko salbuespen-esklusio osorik ez da inoiz izango (KLTL 20. eta 67. artikulua). Beraz, aztertzen ari garen arazoak ez dauka irtenbide errazik, eta dokumentuaren jabetzak bi bide ditu eskusioaren aurrean. Batetik, baztergarriak diren salbuespenak aurkaratzea; haien hirugarrena babestuko dute. Eta, bestetik, baztergarriak ez diren salbuespenak aurkaratzea. Salbuespen horiek ez dira eraginkorrak, eta, horren ondorioz, fede oneko hirugarrena ez da babestuko.

Esan dugun bezala, KLTLko 67. artikulua egiten duen salbuespenen sailkapena ez dator bat doktrina klasikoak egindakoarekin; izan ere, korrante horrek salbuespen pertsonalak eta errealak soilik bereizten ditu.

Horretaz gain, sailkapen tradizionalak salbuespenen erabileraren ondorioei egiten die kasu, baina ez du irizpiderik ematen jakiteko salbuespen bat zergatik den eraginkorra hartzekodun baten aurrean. Bi arrazoi horiek kontuan hartuz, doktrina tradizionalaren sailkapena baztertu egingo dugu.

2. Salbuespenen sailkapena salbuespenek duten emaitzaren arabera

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua erabiltzen duen salbuespen-sailkapenak (kanbio-salbuespenak eta salbuespen estrakanbiarioak), irizpide materiala ematen digun neurrian, balio digu salbuespen bat onartzeko edo baztertzeko.

Baina ez dugu ahaztu behar kanbio-letraren eskubideak eta salbuespenak txanpon bereko bi aurpegiak direla. Horren ondorioz, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67. artikulua zordunaren betebeharren oinarri dogmatikoak hartzen ditu kontuan salbuespen jakin bat baloratzean, salbuespenen iturriak zordunari aurkaratzen zaion eskubide-eskaera akastuna baitu oinarri.

a) Kanbio-salbuespenak

Esanak esan, kanbio-salbuespenek (KLTL 67.2 artikulua) esan nahi dute kanbio-betebeharra oker eratu dela. Hala ere, salbuespen horiek oinarri desberdina izango dute eraketaren arabera, alegia *inter partes* edo *inter tertios* eratu diren ere kontuan hartu beharko da. Horrek esan nahi du talde horretan salbuespen multzo bi ditugula.

Batetik, kanbio-harremanaren alderdien arteko kanbio-salbuespenak: igorlea/onartzailea, hartzailea/igorlea, endosu-hartzailea/endosu-emailea. Kasu horietan guztietan, kanbio-betebeharra alderdien artean gertatzen da, emate-kontratua dela medio. Hori dela eta, betebehar hori eratzean (emate-kontratua) gerta daitezkeen akats guztiak aurkaragarriak izango dira alderdien artean. Salbuespen horiei baliozko salbuespenak deituko diegu, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67.2.1 artikulua izendatzen dituen modura.

Emate-kontratuak baliozko akatsak dituenetan eta dokumentua eskuratzen duen hirugarren batek akats horiek ezagutzen ez dituenetan, kanbio-betebeharra eta erantzukizuna dokumentu horrek sortzen duen itxura juridikoan oinarrituko da, zeren eta kanbio-letra harpidetzen duenak bere borondatez ematen baitu adostasuna (sinadura). Horren ondorioz, fede oneko hirugarren baten aurrean kanbio-letraren eraketa akastuna salatzen dituzten salbuespenak ezin dira aurkaratu.

Beraz, kanbio-salbuespen mota bi ditugu, eta biak bereizi egin behar dira. Batetik, baliozko salbuespenak; salbuespen horiek fede oneko hirugarrenaren aurrean ezin dira aurkaratu. Izan ere, fede oneko hirugarrena salbuespen horiek sortu dituen kanbio-harremanetik kanpo geratzen da, salbuespen horietatik salbuetsita dago alegia. Eta bestetik, ez baliozko kanbio-salbuespenak; salbuespen horiek fede oneko hirugarrenaren aurrean aurkara daitezke.

b) Salbuespen estrakanbiarioak

Salbuespen estrakanbiarioak, aldiz, kausazko lotura dute oinarri, eta horri erreparatzen diote. Adibidez, kausazko harremana deuseza izateari, erlazioaren iraungipena ez-betezeari, eta abarri. Oro har, salbuespen horiek hartzekodunaren aurrean bakarrik aurkara daitezke, baldin eta salbuespen hori hartzekodun horrekiko harreman pertsonalean oinarritzen bada.

Kausazko erlazioa falta denean, mesede-letran alegia, aurrez ikusitako salbuespenek mesede-itunean izango dute oinarri.

Kausazko harremana emate-kontratua sinatu duten alderdien arteko betebeharretan oinarritzen da. Zordunari, salbuespenen bidez, kausazko erlazio hori aurkaratzeko mugagabeko aukera bat ematen zaio, kanbio-betebeharretik at. Horregatik deitzen zaie salbuespen-estranbiarioak. Era berean, paperaren eskubidetik kanpo eratzen den betebeharra oinarri izanagatik hirugarrenaren aurrean aurkaratzeko aukera izateko, lehendabizi hirugarren horren ez-bidezko jokaera (doloso) eskatuko da (KLTL 20. eta 67.1 artikulua).

BIBLIOGRAFIA

DE EIZAGUIRRE, J.M., *Derecho de los Títulos Valores*, Civitas, Madril, 2003.

SALBUESPENAK - PRAKTIKA I⁹

ARANGOITI ARGITALETXEA, S.L. (Dato kalea, 36, Gasteiz) egoera ekonomiko larrian zegoen, baina, bere jarduerarekin jarraitzeko (liburuak argitaratzea), PAPERGINTZA, S.A. enpresari (Tolosa Hiribidea, 110, Donostia) 70.000 euroko paper sorta bat erosi nahi zion. Likideziarik ez zeukanez, ARANGOITI ARGITALETXEA, S.L. enpresak PAPERGINTZA, S.A. enpresari kanbio-letra bat igortzea proposatu zion. Hark, aldiz, eragiketa bermatzeko, ARANGOITI ARGITALETXEA, S.L. enpresak titulua sinatzeaz gainera, beste batek sinatzea ere erantzun zion.

Hori zela eta, ARANGOITI ARGITALETXEA, S.L. enpresak bazkide baten laguna zen Carlos González jaunari (Arana Kalea, 26, Gasteiz) letra onar zezala eskatu zion, eta, horretarako, kanbio-letraren muga-eguna iritsi baino lehen ordainketa egiteko diru kopurua emango ziola esan zion. Azkenean, esan bezala egin zen, eta Carlos González jaunak 2009ko irailaren 14an igorri zitzaion letra onartu zuen, tituluaren muga-eguna igorpen-datatik hiru hilabetera izanik. ARANGOITI ARGITALETXEA, S.L. enpresak igorri zuen kanbio-letra PAPERGINTZA, S.A. enpresak jaso zuen.

PAPERGINTZA, S.A. enpresak, aldiz, BBVA bankuko bulegoan deskontatu zuen (Donostiako Hernani kaleko bulegoan, hain zuen), baina, deskontua gauzatzeko, bankuak PAPERGINTZA, S.A. enpresari hau eskatu zion: enpresak tituluaren jasotako kanbio-adierazpenen artean abal bat ere jasotzea. Beraz, sozietatearen administratzaileak, Javier Álvarezek (Gasteiz hiribidea, 24, Donostia), abala eman zuen, bankuak kanbio-letraren ordainketa ahalik eta ondoen bermatu nahi baitzuen.

Bestalde, kanbio-letra bankuaren esku zegoenean, ARANGOITI ARGITALETXEA, S.L. enpresa konturatu zen PAPERGINTZA, S.A. enpresak saldu zion paperak ez zituela aurretik adostutako kalitatea eta ezaugarriak, ez zela erabilgarria liburuak argitaratzeko alegia.

Muga-eguna iritsitakoan, BBVA bankuak Carlos González jaunari kanbio-letra aurkeztu zion ordainketara, baina hark ez zion titulua ordaindu. Bankuak egoera hori ez zuen ez protestoan, ezta baliokidea izan zitekeen kanbio-adierazpen batean jaso. BBVA bankuak, kanbio-judizioaren bidez, PAPERGINTZA, S.A. enpresaren aurkako kanbio-akzioa ezarri du.

⁹ Praktika hau UPV-EHUko Zuzenbide Fakultateko Merkataritzako Atalak irakaskuntzan erabilitako ereduetan oinarritzen da.

1. Bete ezazu kanbio-letra emandako ereduaren arabera
2. BBVA bankua Javier Álvarez jaunaren aurka abiatu izan balitz, azken horrek salbuespenen bat aurkaratzerik izango al zuen?
3. BBVA bankuak Carlos González jauna salatu izan balu, azken horrek salbuespenen bat aurkaratzerik izango al zuen?
4. ARGITALETXEA, S.L. enpresa Carlos González jaunaren aurka abiatu izan balitz, azken horrek salbuespen bat aurkaratzerik izango al zuen?

IGORPEN-LEKUA		ZENBATEKOA	<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; width: fit-content; margin: 0 auto;">2.50 €</div> 10.000 €-tik 80.000 €-ra L 102865 L
IGORPEN-EGUNA		MUGA-EGUNA	
KANBIO LETRA honen ordezt, adierazitako muga-egunean ordainduko diozu honako honi:			
honako kopuru hau (letraz): ----- -----			
Pertsona edo entitatea: Helbidea edo bulegoa: Herria:		Ordainketa honako egoitza honetan: bezeroaren kontu-kodea	
ONARTZEN DITUT	klausulak:	IGORTZAILEA	
Eguna: (sinadura)	IGORPENDUA Izena: Egoitza: Herria: PK: Probintzia:	(sinadura, izena eta egoitza)	
Ez erabili tarte hau, inprimaketa magnetikoa egiteko baita.			

Ez erabili goiko tartea, imprimaketa magnetikoa egiteko baita

<p>Ez erabili goiko tartea, imprimaketa magnetikoa egiteko baita</p>		
<p>Honen abalaz.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>Ordain bekio honi.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Egoitza-honetan</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Lekua eta data</p> <p>.....</p> <p>.....eko.....aren...</p> <p>.....</p>	
<p>Data</p> <p>Abal-emailearen izena eta egoitza (<i>sinadura</i>)</p>	<p>Endosatzailearen izena eta egoitza</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	

10. KAPITULUA

SALBUESPENEN KANBIO-ARAUBIDEA

I. KONTZEPTUA ETA LEGEZKO ERREGULAZIOA

Kanbio-letra baten sinatzailearen eskura dauden babes-neurriei «salbuespenak» esaten zaie, hura letraren zenbatekoa ordaintzera behartuta ez dagoela frogatu ahal izateko, edota egonda ere, ordaintzea barkatu egiten zaiola frogatzeko. Salbuespenen legezko diziplina, funtsean, honako manu hauetan jasotzen da: Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 20. eta 67. artikuluetan (lehenengoa, zentzu negatiboan idatzia; bigarrena, berriz, zentzu positiboan). 20. artikulua testua honako hau da: «Kanbio-akzio batengatik demandatua izan denak ezin izango dio edukitzaileari aurka egin —igorlearekiko edo aurreko edukitzaileekiko harreman pertsonaletan oinarritutako salbuespenekin—, letra eskuratzean edukitzaileak nahita zordunaren kalterako jokatu ezean». Eta 67. artikulua edukia honako hau da: «Kanbio-zordunak edukitzaileari aurre egin ahal izango dio, elkarrekiko harremanetan oinarritutako salbuespenekin. Aurreko edukitzaileen aurrean dituen salbuespen pertsonalak ere erabili ahal izango ditu, baldin eta, letra eskuratzean, edukitzaileak zordunaren kalterako nahita jokatu badu. Era berean, kanbio-demandatuak honako salbuespen hauekin aurre egin ahal izango du:

1. Haren kanbio-adierazpenik ez egotea, edo adierazpena baliogabea bada, sinaduraren faltsutasuna barne.
2. Edukitzailearen legitimaziorik eza edo kanbio-letraren beharrezko formalitaterik ez egotea, Lege honetan xedatutakoaren arabera.
3. Demandatuari betetzeko eskatzen zaion kanbio-kredituaren iraungipena.

Kanbio-akzioa gauzatzearen aurka, artikulua honetan aipatutako salbuespenak bakarrik onartuko dira».

Legezko araubide horri, eta batez ere 67. artikuluari, kritika zorrotza egin zaio. Kritika horiek honela labur daitezke:

- 1) Lehen paragrafoa alferrikakoa da; izan ere, 20. artikulua edukia (baita hitzak ere) errepikatzen du, ezer berririk erantsi gabe.
- 2) Bigarren paragrafoari dagokionez, alferrikakoa eta osatugabea dela esan dute. Alferrikakoa, hain zuzen, salbuespen gisa kontuan hartzen dituen arrazoiak dagoeneko Legeak deuseztasun-kausatzat aitortu dituelako. Horrela, 67.2 artikulua «kanbio-letraren beharrezko formalitaterik ez egotean» oinarritzen diren salbuespenak aipatzen ditu. Dakigunez, kasu horretan, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 2. artikulua arabera, letra deuseza da. Aipatutako xedapen horrek aginduko ez balu ere, edozein edukitzailek erabili ahalko luke letraren deuseztasuna, salbuespen gisa.

Bestalde, osatugabea dela esaten da, izan litezkeen salbuespen guztiak ez dituelako aipatzen. Adibidez, ez du aipatzen zurizko letraren gehiegizko betetze-salbuespena (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. artikulua), edo faltsutze-salbuespena (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 93. artikulua).

3) Aurreko egoera horrek ez luke garrantzi handiagorik, ez balitz 67. artikulua hiruugarren paragrafoan ezartzen denarengatik: «Kanbio-akzioa gauzatzearen aurka, artikulua honetan aipatutako salbuespenak bakarrik onartuko dira». Xedapen horren aurrean, bi aukera ditugu: bata, hitzez hitzeko zentzuan ulertzea, eta 67. artikuluan sartu ez diren salbuespenak kanbio-akzioaren aurrean erabili ezinekotzat jotzea; eta bestea, manuan ezarritako *numerus clausus* adierazpenak eraginkortasunik ez duela pentsatzea. Dударik gabe, azken hori da irtenbide egokiena, Legearen xedapenei zentzurik ez kentzeko eta ezein interes babesgarri ez urratzeko.

II. SALBUESPENEN SAILKAPENA

Doktrinaren barnean eztabaidatzen da 67. artikulua jasotzen duen sailkapena eta sistematika. Sánchez Calerok esaten du artikulua horretan tradiziozko bereizketa jasotzen dela; alde batetik, salbuespen pertsonalak (letra eragiten duen azpiko harremanean parte den edukitzailearen aurrean soilik erabil daitezkeenak) eta, bestetik, salbuespen errealak (zordunak letraren edozein hartzekodunen edo edukitzailearen aurka erabil ditzakeenak). Hala ere, beste autore batzuen iritziz (Paz-Ares), artikulua horretan kanbio eta kanbio-erlotik kanpoko salbuespenak bereizten dira. Bigarren horiek ez dute zalantzan jartzen kanbio-betebeharraren baliozkotasuna, baizik eta hura betetzeko posibilitatea. Lehenengok, berriz, zalantzan jartzen dute kanbio-betebeharraren beraren izatea (entrega-kontratuan akatsak egoteagatik zein kanbio-letra eratzeko itxurazko egitate formalak akastunak izateagatik). Azken sailkapen hori Alemaniako doktrinaren irizpideei hurbiltzen zaie, kanbio-salbuespenen gaian, ordena jartzea lortzeaz gainera, gaia azaltzea lortzen baitu.

Aipatutako doktrina hori Paz-Ares irakasleak sartu du gure ordenamenduan. Ezarritako sailkapenaren arabera, edukitzailearen aurrean kanbio-betebehardunak erabil ditzakeen salbuespenen jatorria honako arazo hauetan egon daiteke: a) kanbio-erlotik kanpoko harremanei kalte egitea; b) letraren entrega-kontratuari kalte egitea; eta c) letraren sinaduraren egintza juridikoak eragindako itxura-egoerari kalte egitea.

Lehen taldeko salbuespenak [a] *inter partes* eta doloarekin (kanbio-betebehardunari eragiten dion kaltea jakinik) letra eskuratu duen hiruugarrenaren aurka soilik erabil daitezke (kanbio-erlotik kanpoko salbuespenak). Bigarren taldeko salbuespenak [b] entrega-kontratuaren alderdien artean erabil daitezke, baina ez itxuran oinarrituta eskuratzen duten hiruugarrenen aurrean (kanbio-salbuespen erlatiboak edo baliozkotasunezkoak). Hirugarren taldeko salbuespenak [c] guztien aurka erabil daitezke, hirugarrenek ez baitute babesik izango itxurazko egitate formala akastuna denean (kanbio-salbuespen absolutuak).

Arrazoi sistematikoengatik, irizpide material batean oinarrituta dagoen aurreko sailkapen horren ordez ondoreetan oinarrituta dagoen irizpide formal batean ezarritako sailkapena ezarriko bagenu, salbuespen bazterrezin eta baztergarrien sailkapen proposatura iritsiko ginateke.

III. PROPOSATUTAKO SAILKAPENA

A) SALBUESPEN BAZTERREZINAK

Gogoan izan behar da hirugarrena salbuespenen aurrean babesteko erreklamazioa ez dela entrega-kontratuaren araberakoa, letraren sinaduraren egintza juridikoak sortutako itxuraren araberakoa baizik. Horregatik, hirugarrenak, nahiz eta fede onekoa izan, ezingo ditu mugatu edo baztertu itxurazko egitate formala akastuna edo osatugabea dela salatzen duten salbuespenak.

Honako hauek dira itxurazko egitate formalaren konfigurazio-baldintzak:

- a) Kanbio-hirugarren bat egotea; hau da, negozio baten bitartez kanbio-letra eskuratu duen pertsona bat.
- b) Itxura-egoera objektibo bat. Kanbio-arloan letraren agiria bera izango litzateke; modu horretan kreditu-eskubide baten edukia gorpuztean gai izango baita hirugarrenen konfiantza sorrarazteko.
- c) Itxura-egoera objektiboaren eta zordunaren arteko egozte-lotura bat, agiria izenpetzearen egintza juridikoan gauzatzen dena.
- d) Hirugarrenaren fede ona; errealitate dokumentala eta dokumentuz kanpoko errealitatea bat ez etortzea edukitzailearen ezjakintasuntzat hartzen da —zabarkeria larriagatik eragiten ez dena—.

Salbuespen bazterrezinak hiru taldetan sailkatzen dira, suntsitzen duten itxuraren elementuaren arabera:

1.— Kanbio-trafikoko salbuespenak. Trafiko horren baldintzaren bat ez betetzea salatzen dute. Baldintzak honako hauek dira: 1) Zentzu ekonomikoan trafikoa egon dadila, eskualdatzailea eta eskuratzzailea pertsona ezberdinak eta autonomoak izanik, beren interesen mailan. 2) Trafiko hori kanbio-arlokoa izan dadila; hau da, endosua edo titulua entregatze hutsaren bitartez bidera dadila. 3) Eskualdatzea kostu bidez egin dadila, bi alderdientzat ondare-abantaila bat emanez.

Inguruabar horiek betetzen ez badira, eskuratzzailea ez da kanbio-hirugarrena izango, itxura babesteko oinarriak desagertu egingo dira, eta, ondorioz, baita salbuespenen mugatze-onura ere.

- a) Zentzu ekonomikoan trafikorik eza oinarri duten salbuespenen barnean, honako hauek azpimarra daitezke: 1. “Kobrantsa-komisioan” egiten diren endosua (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 21.2 artikulua); kasu horietan, berdintasun

juridikoa gertatzen da letra eskualdatzen parte hartzen dutenen artean. “Bermetarako” egiten diren endosuetan, berriz, ordenamenduak eremu juridiko ezberdinak aitortzen ditu endosu-emailearen eta endosu-hartzailearen artean (22.2 artikulua). Bermatutako kredituaren zenbatekoak adierazten du eskualdatzea kostu bidez egiten dela; hau da, endosu-hartzailearen interes ekonomikoa erakusten du. Hala ere, endosu pignorazio horietan, letraren zenbatekoa bermatutako zorraren gainetik dagoen zatiari dagokionez, ez da existituko trafiko-negoziarik. 2. Endosu fiduziarioak, eskualdatzailearen interes esklusiboarekin bat datozenak¹⁰.

b) Kanbio-trafikorik eza oinarritzat duten salbuespenen barnean daude lagapen arrunta (Kambio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 24. artikulua ezartzen duenez «Letraren lagapen arruntak lagatzailearen eskubide guztiak eskualdatuko dizkio lagapen-hartzaileari»), eta teknikoa ez den endosuaren kasuak: «agindurako ez» letra (14. artikulua: «Igorleak kanbio-letran “agindurako ez” hitzak idatzi dituenean, titulua bakarrik eskualdatu ahal izango da lagapen arruntaren forman edo ondoreak sortuta»), eta ordainketarik ezagatiko protestoen edo adierazpen baliokidearen edo protesta egiteko ezarritako epearen muga-egunaren ondorengo endosua (23. artikulua: endosu horrek lagapen arrunt baten ondore berdinak sortuko ditu).

c) Doako trafikoa oinarritzat duten salbuespenek salatzen dute kanbio-zuzenbideak letraren kostu bidezko trafikoa soilik babesten duela; beraz, hirugarrenak salbuespenen aurrean ez dauka babesik letra doan hartu duenean.

2.— Dokumentuzko salbuespenak. Tituluak sortutako itxura suntsitzen duten salbuespenak dira. Kategoria honen barnean bereiz daitezke:

a) Letran gorpuztutako eskubidearen edukiari buruzko salbuespenak, agiriaren edukiaren eta edukitzailearen uziaren arteko dibergentzian oinarritutakoak. Salbuespen horien barnean, toki berezia dute nahibadako klausuletan oinarritzen direnek: «agindurako ez» klausula (Kambio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 14.2 artikulua), «nire erantzukizunik gabe» klausularekin egiten den endosua (18.1 eta 2 artikulua), onarpen partzialaren klausula (30.1 artikulua), abal partzialaren klausula (35.1 artikulua), eta bestelako inguruabar batzuek agirian jasotakoak (adibidez, muga-eguna luzatzea).

b) Letran gorpuztutako eskubidearen erabilerari buruzko salbuespenak, kanbio-akzioa gauzatzeko oinarririk eza salatzen dutenak. Azpitalde horretan daude kalte-salbuespena (Kambio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 63. artikulua) eta preskripzio-salbuespena (88. artikulua). Bi kasu horietan, salbuespenaren izatezko egintzak denboraren joatea kalkulatzeko eskatzen du, letrak ematen dituen datuetatik aurrera.

c) Letraren formari buruzko salbuespenak, itxuraren egoera objektiboaren eraketa akastunagatik kanbio-betebeharraren deuseztasuna salatzen dutenak. Lehendabizi,

¹⁰ Madrilgo Probintzia Auzitegiaren Epaia, 1994ko maiatzaren 24an, LA LEY 8675/1994.

letraren deuseztasuna eragiten duten akatsak izango genituzke, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikuluan ezarritako formazko baldintzak (2. artikulua ez ditu osatzen) agirian gaizki ezartzeagatik edo ez ezartzeagatik. Horiez gain, dagokion kanbio-adierazpenaren deuseztasuna eragiten duten akatsak ditugu: endosu partziala (15.2 artikulua), baldintzapeko onarpena (15.2 artikulua) edo bereizitako agirian dagoen abala (36.4 artikulua). Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 8. artikulua arabera, adierazpen horiek deusezteak ez dio beste adierazpenei kalte egiten.

3.—Egozgarritasunezko salbuespenak. Salbuespen hauek itxuraren egoera objektiboa (egozgarria ez delako) eta mandatatuaren erantzukizuna banantzen dituzten inguruabarrak salatzen dituzte. Inguruabar horiek ikusten hasi aurretik, interesgarria da jakitea zein diren baldintzak itxura-egoera jakin bat pertsona bati egozteko:

1) Egiletzaren edo egiazkotasunaren lokarria (agiria sinatzen denean). Sinadurak benetakoa eta borondatezkoa izan behar du.

2) Zentzu hertsian, egozgarritasunezko lokarria, letra baten sinatzaileak beste agiri baten sinatzailearekiko sortzen duen arrisku gehituan oinarritua. Horrek esan nahi du erantzun beharko duela (hau da, bere jokabidea egotziko zaiola) arriskua (faltsutzea, lapurreta) sinatzaileak mendera dezakeenean.

3) Sinatzailearen gaitasuna; izan ere, ordenamenduak lehentasuna ematen dio ezgaiaren babesari, trafikoaren babesaren aurrean.

a) Egiletzaren lokarririk ezagatik, honako egozgarritasunezko salbuespen hauen aurrean gaude:

1. Ordezkaritza-ahalmenik eza: ordezkeri faltsua izango da kanbio-betebeharduna (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 10. artikulua: «Pertsona baten izenean jarduteko ahalorderik ez badauka ere, pertsona horren ordezkeri gisa kanbio-letra batean sinadura jartzen duena behartuta geratuko da, letra betez. Hori ordaintzen badu, ustezko ordezkatuak izango lituzkeen eskubide berak izango ditu»). Suposizio horretan sartu behar da ahalordea gainditzea ere, egozgarritasunezko salbuespen gisa gainditutakoan (aipatutako 10. artikulua: «Gauza bera ulertuko da bere ahalordea gainditu duen ordezkeriari buruz, ordezkatuak ahalordearen mugen barnean duen kanbio-erantzukizunaren kalterik gabe»).

2. Sinadura faltsutzea: faltsutzaileak izango du kanbio-erantzukizuna.

b) Zentzu hertsian, egozgarritasunezko lokarririk ezagatik, kanbio-betebehardunak salbuespen hauek jar ditzake demanda aurkaratzeko:

1. Faltsutzearen salbuespena: sinatzaileak kanbio-letra bat era egokian igortzen badu, ezingo du menderatu ondoren letra horren testua aldatua izateko arriskua. Horregatik, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 93. artikulua honako hau ezartzen du: «Kanbio-letraren testua aldatzen bada, haren geroko sinatzaileak behartuta geratuko

dira, aldatutako testuak zehaztu bezala. Aurreko sinatzaileak, berriz, behartuta egongo dira, jatorrizko testuak adierazi bezala». Beste kasu bat litzateke sinatzaileak faltsutzeko posibilitatea erraztea; adibidez, letraren zenbatekoa zenbakietan soilik idatziz, eta ez letretan. Horrek faltsutze-arriskua sortuko luke, eta hirugarrenen aurrean jasan beharko luke.

2. Kanbio-adierazpena egin duenaren kontzientziarik ezaren salbuespena: sinatzaileak sinatutako papera eta gero ordainketarako aurkeztu zaiona kanbio-letra gisa, zegoen moduan, ezin bazen onartu.

c) Sinatzailearen gaitasunik ezagatik, egozgarritasunezko salbuespenen barnean, adingabekoaren eta ezgaituaren sinadura azpimarratzen da.

Aipatutako horiek izan ezik, hirugarrenek bazter ditzakete gainerako salbuespen guztiak, lege ezarritako baldintzak betetzen badituzte behintzat.

B) SALBUESPEN BAZTERGARRIAK

Salbuespen baztergarriak, bere aldetik, bi talde handitan sailkatzen dira:

1. Baliozkotasunezko salbuespenak. Kanbio-salbuespen hauek entrega-kontratutik eratorritako betebeharraren baliozkotasuna salatzen dute. Dakigunez, entrega-kontratua *inter partes* den kanbio-betebeharraren oinarria da. Beraz, salbuespen hauek hirugarrenen aurka ezin jartzearen funtsa itxura juridikoan dago. Dena den, ezin jartze horrek muga garrantzitsu bat dauka; fede gaiztoa edo erru larria, alegia. Honela dio Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. artikulua: «Igortzeko orduan osagabea zen kanbio-letra hartutako erabakien aurka osatu denean, edukitzailearen aurka ezin izango da alegatu erabaki horiek ez betetzea, hark letra fede gaiztoan edo erru larritz eskuratu ezean». Fede onaren eredu hori, hirugarrena babesten duena, entrega-kontratuari dagokion akatsa ez ezagutzean datza. Horregatik, baieztatu daitezkeenak salbuespenek (zabarrak diren hirugarrenen aurka alega daitezkeenak) tarteko lekua hartzen dutela salbuespen bazterrezinen (fede oneko hirugarrenen aurka ere alega daitezkeenak) eta kanbio-arlotik kanpoko salbuespenen artean (dolzko hirugarrenen aurka soilik alega daitezkeenak).

Salbuespen talde hori Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67.2. artikulua lehenera eta hirugarren zenbakietan inkardinatzen da. Hiru talde bereizten dira haren barnean:

1) Salbuespen eragozgarriak. Oinarritzen dira entrega-kontratuen gabezia (nahi gabeko igorpena, lapurreta edo galtzea), entrega-kontratuaren deuseztasunean edo deuseztagarritasunean, adostasun-akatsengatik (doloa, errakuntza).

2) Abusuzko osaketaren salbuespena eta ahaidetutako suposizioak. Bigarren talde honetan sartzen dira zurizko letraren eta letra osagabearen suposizioak. Zurizko letraren salbuespena (hau da, osaketa-itunean ezarritakoaren aurka betea), dudarik gabe

baliozkotasunezko salbuespen bat da (aipatutako 12. artikulua ezartzen duenez), baina ezin da alegatu fede oneko hirugarrenen aurka. Duda gehiago sortzen ditu letra osagabearen osaketa arbitrarioaren suposizioak: autore batzuek pentsatzen dute faltsutze-suposizio bat dela, eta, egozgarritasunezko salbuespen bat izanik, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 93. artikuluan sar daitekeela; *erga omnes*, baita fede oneko hirugarrenen aurrean ere. Hala ere, egokiagoa da baliozkotasunezko salbuespentzat jotzea, *inter partes* alega daitekeena, baina ez itxuraren oinarrian erreklamatzeko duten fede oneko hirugarrenen aurrean; izan ere, sinatzaileak, erregularra ez den forma batean letra zirkulazioan jartzean, faltsutze-arrisku gehitua sortzen du, eta berak jasan beharko du.

3) Salbuespen azkentuak. Dokumentuzkoak izango dira, beraz, errealak eta *erga omnes* jar daitezkeenak, agirian ezarrita badaude edo agiritik eratortzen badira. Bestela, baliozkotasunezko salbuespenak izango dira. Haien artean, ordainketaren, konpentsazioaren, barkatzearen edo berritzearen salbuespenak nabarmentzen dira.

2. Kanbio-erloteko kanpoko salbuespenak. Salbuespen horiek harreman pertsonaletan oinarritzen dira, hau da, kanbio-letraren edukitzailea eta zorduna lotzen dituen edozein motatako harreman juridikoan. Horrela ezartzen dute Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 20. eta 67.1 artikuluek. Artikulu horiek onartzen dute letraren hirugarrena den edukitzaileak bazter ditzan salbuespen horiek, doloarekin ez jokatzeko baldintza bakarrarekin (20. artikulua: «Kanbio-akzio batengatik demandatua izan denak ezin izango dio edukitzaileari aurka egin, igorlearekiko edo aurreko edukitzaileekiko harreman pertsonaletan oinarritutako salbuespenekin, letra eskuratzean, edukitzaileak nahita zordunaren kalterako jokatu ezean»). Horregatik, salbuespen horiekin aurka egin ezin izana ezin da justifikatu itxuraren printzipioan oinarrituz (salbuespena ez jakitea galdetzen duena), abstrakzio pertsonalaren irizpidean oinarrituz baizik.

Abstrakzio pertsonala suntsitzeko —kanbio-betebehardunaren eta aurreko edukitzaileen arteko kanbio-erloteko kanpoko harremanetatik eratorritako salbuespenetatik hirugarrena babesten duena—, zordunak *exceptio dolis*ekin egin diezaioke aurka edukitzaileari —aparteko erremedio bat, letraren edukitzailearen jokabide lizunagatik hura babesik gabe geratzen den kasuetan salbuespen pertsonalak erabili ezin izanaren erregela suntsitzeko—.

“Edukitzaileak nahita zordunaren kalterako jokatu” adierazpen horren zentzua bateratzea lortu ez denez, jurisprudentziak ere ez du mantendu irizpide bateraturik. Epai batzuetan ulertu da nahikoa dela hirugarren edukitzaileak salbuespena jakitea, eskuarki, egoera horretan letra eskuratzen duenak zordunari kalte egiteko asmoa izaten baitu. Besteetan, berriz, ulertu da beharrezkoa dela eskuratzailearen kontzientzia, letra eskuratzearekin zordunari kalte egiten baitaio.

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Paz-Ares, C., «Las excepciones cambiarias», en *Derecho cambiario*, op. cit., 251. or. eta hurrengoak.

—«El sistema de las excepciones cambiarias», *Revista de Derecho Mercantil*, 175-176, 1985, 713. or. eta hurrengoak.

Pérez Valenzuela, J., «Las excepciones en el Anteproyecto de Ley cambiaria», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 16, 1984, 737. or. eta hurrengoak.

Sánchez Calero, F., «Las excepciones cambiarias», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 32, 1988, 7. or. eta hurrengoak.

Vara de Paz, N., «En torno a la “exceptio doli” cambiaria», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 14, 1984, 435. or. eta hurrengoak.

—«En torno a la “exceptio doli” cambiaria (Sentencia de la Audiencia Territorial de Barcelona, de 19 de enero de 1983)», *Comentarios a Jurisprudencia de Derecho Bancario y Cambiario*/coord. Francisco Sánchez Calero, Juan Sánchez-Calero, 1. Liburukia, 1993, 375-388. or.

KASU PRAKTIKOA

Kontuan harturik kanbio-harremana A-ren, B-ren, C-ren, D-ren eta E-ren artean dela, erantzun arazo hauei:

- 1) D-k E-ri kanbio-letra endosatzen dio “kobrantza-komisioan”. Zer salbuespen erabil ditzake C-k E-ren aurka?
- 2) D-k E-ri kanbio-letra endosatzen dio “bermetarako“. Letraren zenbatekoa 1000 euro dira, eta zorraren zenbatekoa, muga-egunera letra baino lehen iristen dena, 700 euro. D-k ez du zorra ordaintzen. Letra muga-egunera iritsita, C-k zer salbuespen erabil ditzake E-ren aurka ordainketa erreklamatzeko badio?
- 3) C-k D-ri letra endosatzen dio «nire erantzukizunik gabe» klausularekin. Muga-egunera iristean E-k C-ri erreklamatu gero, C-k letra ordaindu behar du?
- 4) E-k epe kanpo aurkeztu du letra ordainketarako. B-k ordaintzen ez duenez, atzerabidezko akzioa erabiltzea erabakitzen du, D-tik hasita. D-k zer salbuespen erabili ahal izango du demandaren aurka? D-ren aurka kausazko akzioa gordetzen du?
- 5) B-ren sinadura faltsutzen bada, kanbio-arloan erantzukizunik al dauka? Zer salbuespen alega dezake? E-k zer aukera izango du bere kreditua asetzeko?
- 6) E-k egiten duen ordainketarako aurkezpenaren aurrean, B-k erantzuten du ez duela ordainduko, igorlearekin egindako osaketa-itunean ezarritakoaren aurka osatu delako letra. Zer salbuespen mota da? Zuzena al da haren alegazioa?
- 7) B-k honako hau esaten dizu: igorlearekin iritsitako akordioaren arabera ordainketa ez zaiola erreklamatu muga-egunetik hilabete igaro arte. E-k lehenago erreklamatu balio, zein motatako salbuespena izango luke? Zuzena izango litzateke E-ren aurka alegatzea?

11. KAPITULUA

KANBIO-LETRAREN IGORPENAREN INGURUKO GORABEHERAK

I. KANBIO-LETRA FALTSUTZEA ETA KANBIO-LETRAREN FALTSIFIKAZIOA

1. Kanbio-letra faltsutzea eta kanbio-letraren faltsifikazioa

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 67.2.1 artikulua arabera kanbio-letra faltsutzeak demandatuak sinadura faltsifikatu izana eskatzen du. Hau da, letra sinatu duenak beste baten sinadura asmatu edo imitatu egin du. Beraz, kanbio-letra sinatu duenak autoreak ez den baten ordezkari sinatu du. Horregatik dauka paperak izaera faltsua, kanbio-letraren autoreak baimendu izan balu, ordezkari itzaz institutuaren bidez, egindako sinadura zilegi izango litzateke.

Sinadura faltsifikatu egin zaionari ezin zaio erantzukizunik eskatu, eta faltsutasun egoera horretan dagoen kaltetuak egozpen-salbuespena tarteka dezake. Faltsutzaileak, berriz, *falsus procurator* bezala erantzun beharko du (KLTL 10. artikulua).

Era berean, kanbio-letraren sinadura faltsutzeak ondorio prozesalak ditu. Izan ere prebentziozko enbargo-kasuetan epaileak zordunari enbargoa altxa diezaioke, baldin eta zordunak bere sinadura faltsutua izan dela edo kanbio-letra sinatu duenak ordezkari bezala ez zuela frogatzen badu (Prozedura Zibilaren Legea –PZL- 823.1 artikulua).

2. Faltsifikazioa

Kanbio-letra faltsifikatzea, berriz, jatorriko dokumentuko testuan egiten den edozein aldaketa izan daiteke (KLTL 93. artikulua). Beraz, aurreko paragrafoan esan dena kontuan hartuz, sinaduraren edozein aldaketak kanbio-letraren faltsutzea ekarriko du, eta kanbio-letraren edukiaren edozein aldaketak, aldiz, faltsifikazioa.

Faltsifikazioaren gaia edo kanbio-letraren testuaren aldaketa Legeak konpontzen du 93. artikuluan, zeinetan benetako eskubidearen itxura juridikoaren printzipioa erabiliz arazoari konponbidea ematen dion. Printzipio horren arabera, faltsifikazioa gauzatu ondoren sinatzen duten guztiek aldatua izan den testuagatik erantzungo dute. Aurrekoek, aldiz, egozpen-salbuespena izango dute ez-bidezko eskaerari aurre egiteko eta erantzukizuna ekiditeko, aurreko horiek jatorriko kanbio-letraren testuagatik soilik erantzungo baitute.

Dena den, letraren igorleak faltsifikazioa bultzatu badu, letra osatugabe bat igorri edo harpidetu, dokumentu horiek ohi duten baino arrisku handiagoa sortzen du jokaera horrekin. Beraz, fede oneko hirugarren baten aurrean erantzun egin beharko du arauaren murriztapen teleologikoa (erabiliz (KLTL 93. artikulua).

Era berean, kanbio-letra bete zuen harpidedunak, letraren testua geroago aldatzen badu edo oinarrizko neurriak hartzen ez baditu, erantzun egin beharko du. Demagun kopurua ez duela letratan jasotzen baizik eta zenbakitan bakarrik jasotzen duela, edo letren arteko neurrigabeko espazio zabalak uzten dituela. Horrelako arduragabeko jokaeretan harpidedunak, esan bezala, erantzun egin beharko du.

II. KANBIO-LETRA ZURIA

1. Arazoa planteatzea

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. artikulua letra zuriaren arazoa jasotzen du letra osagabearen problematikaren barruan.

Kanbio-letra osagabeetan dokumentuaren jarraipen kronologikoa aldatu egiten da. Hau da, kanbio-letra bat (zor-agiri bat edo txeke bat) igortzen denean, lehendabizi dokumentuaren edukia idazten da eta, geroago, sinatu egiten da; gehienetan, igorleak berak sinatzen du. Igorleak sinatutakoan, ondoko betebehartun guztiek sinatuko dute. Hala ere, hainbatetan ohiko jarraipen kronologiko hori alderantzizkoa da, zeren eta, lehendabizi, letra sinatu egiten baita eta, geroago, dokumentua eskualdatzean paperak dituen hutsuneak bete egiten baitira, beti ere aurretik hartutako akordioen arabera. Hutsune horiek ez ditu lehenengo harpidedunak betetzen, baizik eta ondoan datozen beste batzuek. Beraz, kasu horretan, kanbio-letra osagabeen dokumentuen esparruan sartzen gara. Horiek guztiek ezaugarri komun bat dute, igortzen diren unean ez daudela erabat idatzirik alegia.

Kanbio-letra mota honen adibiderik esanguratsuena berme-letrak dira. Dokumentu horien arabera, merkantziak jaso eta ordaindu ez dituen zordun batek hornitzaileari letra osagabe bat ematen dio merkantziak jasotzen jarraitzeko. Letrak daraman datu bakarra onartzailearen sinadura da. Geroago, bai onartzaileak bai zordunak adostu egiten dute —batzuetan, idatziz—, letra hori nola bete beharko den. Hori dela eta, zordunak ordaintzeko aurreikusitako epea betetzen ez badu, onartzaileak Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikulua eskatzen dituen aipamen guztiak gehi zorraren azken kopurua bete ditzake. Horrez gain, muga-eguna nahi duen forman zehatz dezake, letra ere beste hirugarren baten alde igor dezake, dokumentua zirkulazioan jarritz.

2. Kanbio-letra informala

Kanbio-letra informalak, berriz, bestelako izaera dauka, zeren eta, kanbio-letra mota hori ordaintzera aurkezten denean, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikulua jasotzen dituen eskakizunen bat falta baitzaio, besteak beste, nori ordaindu behar zaion jartzen ez denean (KLTL 6.1 artikulua). Aipatu den arazo hori maiz gertatzen da letra informaletan, baina, batzuetan, interpretazio-lan baten bidez arazo hori gaindi daiteke. Eta horrelakoetan interpretazioak arazoa konponduko du, baldin eta autointegrazioaren bideari ekiten badio. Hau da, dokumentuaren hartzailearen izena lehenengo endosatzailearena izango da, eta tituluari ez dagozkion gainerako elementuak baztertu egingo dira.

Epaileak, ofizioz, ez du horrelako kanbio-letrarik onartuko, eta Prozedura Zibilaren Legearen 82.1.2 artikulua jasotzen dituen neurrien arabera, epaileak auto bat eman beharko du kanbio-letra hori gaitzetsiz. Bestalde, demandatuak kanbio-letraren deuseztasun-salbuespen ekidinezina aurkaratzeko aukera izango du (KLTL 67.2.2 artikulua).

3. Letra zuria: letraren abusuzko osaketa

Esan dugun bezala, kanbio-letra zuria da igortzeko unean Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikulua baldintza guztiak jasotzen ez dituen. Dena den, kanbio-letra hori osa daiteke aurrerago, alderdiek adostu dutenaren arabera (osatze-ituna), eta beti ere dokumentua ordainketara aurkeztu baino lehen.

Kanbio-letra osagabeak, kanbio-letra zuriak ez bezala, ez du osatzeko akordiorik izango. Kanbio-letra informala, aldiz, ordainketarako aurkezten denean erabat osatuta aurkeztuko da.

Letra zuriari dagokion osatze-ituna Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. artikulua jasotzen du. Itun horren bidez, bi alderdiek zehaztu egiten dute nola bete behar diren dokumentuan zurian azaltzen diren hutsuneak. Hori dela eta, kanbio-letraren edukitzaileak dokumentua adostutako itunaren arabera betetzeko baimena jasoko du. Halaber, osatze-itun horrek emate-kontratuaren edukia eratzen du. Beraz, osaketa gauzatzeak kontratu hori perfektionatzea dakar.

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. artikulua letrak jaso behar dituen gutxieneko eskakizunak zehazten ez dituen arren, elementu horiek Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1.1 artikulua aurreikusten ditu. Gutxieneko eskakizunak hauek dira: batetik, kanbio-letrak alderdi baten izen-deitura jaso beharko du; bestetik, alderdi horren sinadura. Izan ere, dokumentuan baten batek hartu behar du bere gain obligazioa.

Letra zuria erabat osatu arte ez du kanbio-letra baten izaerarik izango (KLTL 2.1 artikulua). Hori dela eta, dokumentu mota horren kasuan, kanbio-betebeharra denboraren poderioz eratzen da. Lehenik, dokumentua ematen denean adostasuna sortuko da; bigarrenik, forma-betebeharra kanbio-letra osatzen denean perfektionatuko da. Dokumentua behin osatuta, kanbio-letran azaltzen diren adierazpenak hasiera-hasieratik idatzita egon izan balira bezala hartuko dira. Hau da, eragiketa horri atzerabidezko egintza eraginkorraren izaera aitortuko zaio.

Dokumentu hori eskualdatzeko, berriz, kanbio-letra zuriak kanbio-bidetik eskualdatuko da, hau da, endosua bidez eskualdatuko da (KLTL 17.1 artikulua). Beti ere hartzailearen adierazpena osatuta badago edo kanbio-letra zuria norberaren izenean igorrita badago. Kontrako kasuetan, kanbio-letra horren eskualdaketak ohiko lagapenaren bidez egingo dira, eta ohiko lagapenaren ondorioak izango ditu.

Kanbio-letra harpidedunaren eta hartzailearen osatze-itunak (KLTL 12. artikulua) jasotzen dituen baldintzen arabera osatzen ez bada, akordio hori ez betetzeak ezin izango da erabili kanbio-letra baten edukitzaile (hirugarren) baten aurka, azken hori fede

txarreko hirugarren baten kasuetan izan ezik edo kanbio-letra ez-bidezko jokaera batez hartua izan den kasuetan salbu.

Kanbio-letra osatze-itunaren aurka eratzten bada, harpidedunak abusuzko osaketaren salbuespena izango du jokaera hori aurkaratzeko. Beraz, baliozkotasun salbuespen bat eratzten da edukitzailearen alde. Abusuzko osaketaren salbuespenaren bidez, fede oneko hirugarrena babestua suertatzen da, eta, horrez gain, nahi izanez gero, salbuespen hori baztertu egin dezake, salbuespen hori baztergarria baita.

Aurreratu dugun bezala, fede oneko hirugarren hartzaile batek ere babes berbera jasoko du letra zuri osagabea jasotzen duenean (KLTL 12. artikulua). Dena den, letra zuria izanik, hartzaileari hobe beharrez eskatzen zaion ardura bakarra hau da: kanbio-letraren *tradens* delakoari edo dokumentua eskualdatu dionari galdetzea letra nola osatu behar duen. Hitz batez, osatze-ituna zein den jakitea.

Era berean, arau horren arabera hirugarrenak ez du baliozkotasun-salbuespenik izango baldin badaki kanbio-letra abusuz osatua izan zela, kasu horretan ez bailitzateke fede oneko hirugarrena izango. Beraz, erru-larria dela-eta, abusuzko osaketa hori aurkaratzeko ere ez luke eskubiderik izango.

4. Letra osagabearen osaketa arbitrarioa

Kanbio-letra osagabea da letra igortzen den unean Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1 artikulua baldintza formal guztiak jasotzen ez dituen dokumentua, baina gabezia hori kanbio-letra ordainketara aurkezten denerako zuzenduta dago, eta falta zaizkion hutsune horiek beteak ditu.

Kasu horretan ez dago *inter partes* kanbio-betebeharririk; izan ere, ez dago letra osatzeko itunik. Horregatik, harpidedunak, bai kontrako alderdiaren aurka, bai itun hori ez dagoela ezagutu behar zuen hirugarrenen aurka, letraren osaketa arbitrarioaren salbuespena izango du.

Horrelakoetan, arazoa fede oneko hirugarrena babesteko baliabideak aurkitzea da. Lehen doktrinak kanbio-letran egindako testuaren aldaketa faltsifikatze-kasu gisa tratatzen zuen. Horrelakoetan, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 93. artikulua kaltetuta atera den zordunari egozgarritasun-salbuespena (ez-baztergarria) ematen dio, *erga omnes* aurkaragarri.

Baina gaur egungo doktrinak egoera horri beste trataera bat, egokiagoa, ematen dio, gure ustez hobea. Izan ere, benetako itxura juridikoaren teorian oinarrituta, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 12. artikulua fede oneko hirugarrenei ematen dien babes berbera emango dio fede oneko harpidedunari.

Trataera desberdinaren arrazoiak zerikusirik dauka harpidedunaren jokaerarekin. Hori dela eta, harpidedunak kanbio-letra osatu baten faltsifikazioa erabat saihesterik ez duenez, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 93. artikulua ematen dituen babesa eta salbuespena izango ditu. Hau da, harpidedunari egozgarritasun-salbuespen bat (ez-baztergarria) emango zaio.

Kanbio-letra osagabe baten falsifikazioa ekiditeko, berriz, harpidedunak berebiziko ardua jarri behar du, horrelako kanbio-letra batek bere arriskua baitu. Beraz, harpidedunak jarri beharreko ardua edo diligenza lotuta egongo da kanbio-letra mota horren izaera arriskutsuarekin. Azken batean, ordenamendu juridikoak baliozkogarritasun-salbuespen baztergarri bat besterik ez dio esleituko bere babeserako. Salbuespen hori aurkako alderdiaren kontra edo fede txarreko hirugarren baten aurka soilik ezar ditzake. Hitz batez, ordenamendu juridikoak babes apalagoa ematen dio.

III. LETRAREN ANIZKETA ETA AMORTIZAZIOA

Eskuarki kanbio-letraren ale bakarra igortzen da. Arau horrek zor-agiriarentzat ere balio du. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 96. artikulua orokorrean ez du ale anitzen igorpenik onartzen (KLTL 79. artikulatik 81. artikulura). Gainerako ordenamendu juridikoetan agindu berbera jasotzen da, besteak beste, Alemaniako ordenamendu juridikoan zor-agiriari *Solawechsel* (letra bakarra) izendatzen zaio. Dena den, bai kanbio-letraren bai zor-agiriaren kopiak egin daitezke.

1. Kanbio-letra bikoiztuak: kontzeptua

Kanbio-letra baten ale berdinak izateak dokumentu hori bikoiztu egin dela esan nahi du. Horietako ale bakoitzak deklarazio-adierazpen guztiak jasotzeko aukera dauka. Ale guztien artean kanbio-letra bakarra osatzen dute. Horregatik, ale guztiak zenbatuta egongo dira (KLTL 79.1 artikulua). Zenbaki hori jasotzen ez bada, ale bakoitza kanbio-letra desberdin bat izango da (KLTL 79.2 artikulua).

Edozein edukitzailek bere kontura kanbio-letra baten ale guztiak igor daitezela eska dezake. Horrelakoetan, dokumentuan ezin izango da jaso letra bakarra igorri denik (KLTL 79.3 artikulua).

Bikoizte-ohitura hori merkataritzan igorlea eta igorpendua bata bestearengandik oso urruti zeuden garaikoa da. Kanbio-letra bikoiztuz gero, igorpenduak bi ale izango ditu, bata letra deskontatzeko eta bestea onarpena jasotzeko (KLTL 79. artikulatik 81. artikulura).

Esan beharra dago igorpen aniztunak bere arriskuak ere badituela. Izan ere, gerta daiteke batek baino gehiagok ale desberdinak jasotzea. Horrek kanbio-bide desberdinak izatera bultzatzen du, eta kanbio-kreditu bakarrak erantzukizun metatua sor dezake.

Nahiz eta Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 80.1 artikulua jaso horietako letra-ale bat ordainduz gero gainerako aleen eskubide guztiak iraungi egingo direla, prezeptu horrek bi salbuespen onartzen ditu: batetik, igorpenduak erantzun behar duenean itzuli ez zaion ale bakoitzagatik (KLTL 80.1 artikulua); bestetik, endosatzaile batek aleak eskualdatu dituenan, zeren eta bai berak bai ondoko endosatzaileek erantzun egin beharko baitute haien sinadurak daramatzaten eta itzuli ez diren ale guztiengatik.

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 80.1 artikulua edukia bat dator kanbio-letraren erreskate-tituluaren izaerarekin.

2. Kopia

Kopia, dokumentu bikoiztuak ez bezala, ez dira kanbio-letraren benetako aleak (KLTL 82. eta 83. artikulua). Gaur egun dokumentuak erreproduzitzeko dauden baliabideak ez zeuden garaian agertu ziren. Kopia endosatua eta abalatu izan daiteke. Beraz, jatorriko harpidetzak izan ditzake. Onarpena, berriz, ezin da kopia batean jaso (KLTL 82.2 artikulua).

Gai honen inguruan beste kontu bat ere aipatu beharra dago, hau da, eranskinarena. Dokumentuaren eranskina Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 13. artikulua sortutako berrikuntza da. Kanbio-letrari orri bat eransten zaio letran sartzen ez diren hainbat klausula jasotzeko. Aukera hori batzuetan oso erabilgarria izan daiteke, kanbio-letrak tamaina txikia baitauka. Beraz, paperaren tamaina handitzea du helburu, eta eranskin horretan xedagarriak diren klausula guztiak jaso daitezke; Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikuluko eskakizunak ez, ordea.

Hala ere, onarpen-klausula xedagarria izan arren, kanbio-letran bertan jaso beharko da, eta ez eranskinean (KLTL 29. artikulua).

Era berean, kanbio-letraren inguruko jakinarazpenak letra identifikatzeko datu guztiak jasoko ditu, eta igorpenduari denboraz luzatuko zaio hark jakin dezan zein den letraren muga-eguna. Kanbio-letra kreditu-entitate batean dagoenean, identifikazio-jakinarazpenak letra ordaintzera aurkeztearen balio berbera izango du. eta bankuak igorpenduari bidal diezaioke igorpenduak letra ordaintzeko aginduak eman ditzan (KLTL 43.3 artikulua).

3. Amortizazioa

Kanbio-letraren amortizazioa ulertzeko, balore-tituluen izaera hartu behar da kontuan. Izan ere, dokumentu horien eskubideak gauzatzeko papera edukitzean izan behar da. Paperik gabe (kanbio-letrak, zor-agiriak eta txekeak) ez dago eskubiderik. Beraz, kanbio-letra galtzen denean, igorleak kanbio-betebeharra gal dezake, eta igorpenduak beste edukitzaile bati ordain diezaioke, dolurik edo errurik gabe (KLTL 46.3 artikulua).

Hori dela eta, legegileak kanbio-letra galtzen denerako prozedura berezi bat eratu du, letraren amortizazioa, alegia. Horrelako egoera baten aurrean, legegileak nahiago izan du papera galdu duen edukitzailea erabat ez zigortzea eta aukera bat ematea bere eskubidea gauzatzeko. Izan ere, legegileak ez zuen nahi zordunak bidegabeko aberastea izatea zorra kitatuz gero.

Horrez gain, zorduna ere babestu egin behar da. Izan ere, letra galdu ez duen edonork aurkez diezaioke erreklamazioa. Hori gerta ez dadin, aipatu dugun prozedura hori dela bide, dokumentuaren edukitzaileak bere eskubidea legitimatzeko duen tresna bakarra epaile baten sententzia izango da. Sententzia horren bidez, galdu den kanbio-letra hori amortizatutzat ere joko da. Erabaki judizial horren ondorioz inork ezingo du, fede onez bederen, kanbio-letra hori exekutatu (KLTL 19.2 artikulua).

Zor-agirien amortizazio-prozedura Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 84. artikulutik 87. artikulura doa. Txekeei dagokiena, aldiz, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 85. artikulutik 86. artikulura doa, eta 154. artikuluan ere jasotzen da. Prozedura horren arabera, kanbio-letra ordaindu behar zen tokiko epaileak (igorpenduarena espresuki jasota ez badago) borondatezko prozedura irekiko du (KLTL 2.1.b artikulua). Letrarik gabe geratu den edukitzaileak salaketa jarriko du, non kanbio-letraren oinarritzko baldintzak agertuko diren eta letrari dagozkion berezitasunak azalduko diren (letra zuria). Baldintzei eta berezitasunei dagozkien froga guztiak ere azalduko ditu. Hori egindakoan, epaileak, igorpenduari edo onartzaileari kanbio-letra ordaintzeko aurkeztuz gero, ordainketa geldiarazteko aginduko du, eta haiei auzitegia jakinaren gainean jartzeko eskatuko die (KLTL 84. artikulutik 87. artikulura).

Dena den, epaileak, ikerketak egin eta gero, salaketa aintzat hartzen ez badu, prozedura largetsi dezake, eta igorpenduari edo onartzaileari agindutakoa eraginkortasunik gabe utzi (KLTL 85. artikulua).

Behar diren ikerketak eginik, epaileak salaketa hamar eguneko epean Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du, eta handik hilabetera inor azaltzen ez bada, epaileak letra *amortizatu* egingo du, eta epai horrek kanbio-letraren eskubide guztiak ordezkaturiko ditu.

Hala ere, aipatutako hilabete horretan hirugarren bat azalduko balitz kanbio-letra duela, aurretik epailearen aurrean salaketari aurka egin beharko dio. Epaileak salatzaileari egoeraren berri emango dio, eta, egin behar dituen izapideak egindakoan, erabaki egingo du (PZL 387. artikulua eta ondokoak; KLTL 86. artikulua).

Hilabetea pasatutakoan, esan dugun bezala, inor agertuko ez balitz, epaileak bere epaian tituluaren amortizazioa adieraziko du. Amortizazioa eman eta gero, kanbio-letrak ez du eraginkortasunik izango, eta salatzaileak letraren muga-eguna iritsitakoan bere eskubidea gauzaturiko du. Era berean, dokumentu hori bikoiztea ere eska dezake (KLTL 268. artikulua).

Ikusitakoaren arabera eta prozedura hori dela medio epaiak kanbio-letrak zuen legitimazio-izaera hartuko du, eta salatzailea lehen zuen egoerara itzuliko da. Dena den, lehen zituen eskubideak baino gehiago ez ditu izango:

- a) Salatzaileak, epaia dela bide, titularitatearen presuntzioa eskuratzen du, hau da, legitimazio formala (KLTL 19.1 artikulua).
- b) Epaia ematen denetik, kanbio-letrak bere legitimazioaren eraginkortasuna galdu egiten du (KLTL 19 artikulua). Beraz, inork ezin izango du fede onez titulu hori eskuratu.
- c) Zordunak, sententzia ezagututakoan, zorra kitatu dezake, eta salatzaileari zuzenean ordaindu ((KLTL 46.3 artikulua).
- d) Amortizazio-prozedurako epaiak salatzailearen eskubidea aitortzen du, baina ez kanbio-letraren hartzekodunen eskubideak.
- e) Sententzia dela medio titulua bikoiztu egiten bada, kanbio-letraren endosua ere egin daiteke protestoa altxatu arte (KLTL 23.1 artikulua).

BIBLIOGRAFIA

DE EIZAGUIRRE, J.M., *Derecho de los Títulos-Valores*, Civitas, Madril, 2003.

IGORPENAREN GORABEHERAK – Praktika I¹¹

EUSKALEKTRA, S.L. (Bolueta Kalea, 146, Bilbo) enpresetako hornidura elektrikoen saltzailea da, eta NORPALEUS S.A. (Gamarra Kalea, z.g., Gasteiz) enpresari material elektronikoa ekoizteko lehengaiak erosi ohi dizkio. Enpresa bien arteko merkataritzako harremanak erraztu nahian, erabaki dute ordainketak kanbio-letra bidez egitea. Hori dela eta, enpresa saltzaileak (NORPALEUS, S.A.) kanbio-letrak igortzen dizkio hilabetero enpresa erosleari (EUSKALEKTRA, S.L.) eginiko eragiketei dagokien kopuruaz. Urteetako merkataritzako harremanak enpresa bien artean konfiantza-giroa sortu duenez, igorpenak kanbio-letrak zuriz onartzen ditu, NORPALEUS, S.A. enpresak hilabetero fakturatutako kopuruaz beteko dituela jakinik.

Egoera horretan, EUSKALEKTRA, S.L. enpresak 2009ko maiatzaren 15ean letra zuria sinatu du, NORPALEUS, S.A. enpresak, ohi duenez, apirilean sortutako fakturazio kopuruaz (6000 €) beteko duelakoan. Kanbio-letra bi hilabetetan ordainduko da. Baina, zoritxarrez, NORPALEUS, S.A. enpresako finantza-sailean titulu horiek negoziatzen dituen arduradunak akats bat izan du, alegia, EUSKALEKTRA, S.L. enpresaren apirileko fakturazioa beste enpresa batenarekin nahastu du. Horren ondorioz, esandako kopuruaren ordez, 8000 €-ko kopurua jaso da.

NORPALEUS, S.A. enpresak, beti bezala, letra BBVA bankuko sukurtsalean (Gasteizko Hiribidea, 146) deskontatu du, eta bankuak, epe-muga iritsitakoan, EUSKALEKTRA, S.L. enpresari ordainketara aurkeztu dio.

1. Bete ezazu kanbio-letra emandako datuen arabera.

2. Zein kanbio-letra motaren aurrean gaude? Zer desberdintasun dago letra zuriaren eta letra informala artean? Eta letra osagabearen artean? Eta kanbio-letra ordainketara aurkeztean kopurua zenbakitan bakarrik jasotzen bada, zer letra mota izango da?

3. Kanbio-letra honen osaketa egiteko alde zuzeneko itunik gabe gauzatu izan balitz, salbuespenen bat aurkara daiteke? Zein izango litzateke egoera horren erregulazioa?

4.- Zein ondorio dakar betetako kanbio-letra kopuruaren arabera tinbre egokirik ez izateak?

¹¹ Praktika hau UPV-EHUko Zuzenbide Fakultateko Merkataritzako Atalak irakaskuntzan erabilitako ereduetan oinarritzen da.

IGORPEN-LEKUA		ZENBATEKOA	
IGORPEN-EGUNA		MUGA-EGUNA	
KANBIO LETRA honen ordeaz, adierazitako muga-egunean ordainduko diozu honako honi:			1.50 €
honako kopuru hau (letraz): ----- -----			
Pertsona edo entitatea: Helbidea edo bulegoa: Herria:		Ordainketa honako egoitza honetan: bezeroaren kontu-kodea (BKK)	L 102865 L
ONARTZEN DITUT Eguna: (sinadura)	klausulak: IGORPENDUA Izena: Egoitza: Herria: PK:	IGORTZAILEA (sinadura, izena eta egoitza)	
Ez erabili tarte hau, inprimaketa magnetikoa egiteko baita.			

12. KAPITULUA

ATZERABIDEZKO KANBIO-ESKUBIDEAK ETA INTERBENTZIOA

I. SARRERA

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen VII. Kapituluak kanbio-letrari buruzko “Akzioak kanbio-letra ez onartzeagatik eta ez ordaintzeagatik” jasotzen ditu, baina legegileak jarraitutako sistematika hori bat ez dator bat ondoko lerro hauetan jarraitzen denarekin.

Izan ere, Genevako Lege Uniformeak Kanbio-letraren Zuzenbide materiala izan zuen oinarri, eta arlo prozesala ez zuen kontuan hartu, Espainiako legeriak ez bezala. Hori dela eta, Europako araudiak jarraitutako bidea aukeratu dugu, eta nahiago izan da *aktio* kontzeptua erabili beharrean atzerabidezkoa erabiltzea, Lege Uniformearen eta gainerako lurraldeetako aukerari jarraituz (*recours, right of recourse, Rückgriff*, e.a.). Beraz, arauen desprozesalizazioaren ikuspegiari jarraitzen diogu, eskubide subjektibo bat gauzatzeko kanbio-hartzekodunak duen tresna juridikoaren aurrean baikaude.

II. ATZERABIDEZKO KONTZEPTUA ETA EGOERAK

1. Atzerabidezko kontzeptua

Kanbio-letraren atzerabidea hastea letraren edukitzaileak tituluaren aurreko edukitzaile guztien aurka jotzeko duen eskubidea da, hau da, endosu-emaileen, igorlearen eta bakoitzari dagokion abal-emaileen aurka jotzeko eskubidea. Zeren eta horiek guztiak kanbio-letraren bermatzaileak baitira.

Atzerabidea, oro har, muga-eguna iritsi eta igorleak kanbio-letra ordaindu nahi izan ez duen unetik hasiko da. Eta aurretik ere has daiteke atzerabidea, kanbio-hartzekodunaren egoera arriskuan jartzen duen gorabehera susmagarriren bat gertatuko balitz.

2. Atzerabidea hasteko eragiten duten egoerak

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 50. artikulua jasotzen ditu atzerabidea hasteko eragiten duten egoerak:

a) *Muga-eguna iritsitakoan eta letra ordaintzera aurkezten denean ordainketa ez da gauzatzen* (KLTL 50.1 artikulua).

Egoera hori ez da arauan espresuki jasotzen, baina atzerabideak duen berme-izaeratik eratortzen da. Horrez gain, baieztapen hori Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 56.2 artikulutik ere ondoriozta daiteke, zeren eta prezeptu horrek onartzen baitu

atzerabidezko zordunen aurka protestoa¹² ez altxatzea, baina letra aurkeztea, berriz, nahitaezko baldintza gisa jasotzen baitu.

b) *Kanbio-letra onartzera aurkezten denean eta onartzen ez denean* (KLTL 50.2 artikulua)

Kanbio-letra onartzea ordainketa eskuordetzea da. Igorleak igorpenduari agintzen dio kanbio-letrak jasotzen duen diru-kopurua ordain dezala; igorleak, dena den, erantzun egin beharko du eskuordetuak (igorpenduak) egindakoaz. Edonola ere, igorpenduak, kanbio-betebeharduna bihurtzeko, letra onartu, edo, hobeto esanda, sinatu egin behar du; bestela, ez da kanbio-betebeharduna izango.

Beraz, kanbio-letrak sekulako babesa jasoko du onartua denean. Dena den, trafikiko ekonomikoan, hainbat arrazoi direla medio eta lurraldearen arabera, jokaera desberdinak izaten dira gai honen inguruan. Batzuetan, igorpenduaren egoitza oso urruti dagoenean, garraio-kostu handiak ekiditeko, igorpenduak berak betetzen ditu Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikulua adierazpenak, besteak beste, onarpenarena (KLTL 25. artikulua). Kasu horretan, kanbio-letra hasieratik da onartua. Bestetan, aldiz, igorpenduak letra zuria onartua bidaltzen dio igorleari, eta igorleak gainerako adierazpen guztiak betetzen ditu.

Espanian igorpenduek oso gutxitan onartzen (sinatzen) dute kanbio-letra, zeren eta igorpenduek eta bankuek ez baitute kanbio-adierazpenen ondorio zorrotzik jasan nahi. Kanbio-letra ez onartzeak ziurtagirien ugalketa ekartzen du, eta kanbio-letraren funtzioa eta onarpenaren bermea galdu egiten dira. Aipatutakoa egia bada ere, bai kanbio-letra komertzialetan (ekipo-ondasunak ordaintzeko) eta finantzarioetan (kreditu eragiketarako) kanbio-letra onartu ohi da.

c) *Igorpenduaren ziurtasunik ezak sorrarazitako atzerabidea*. Igorpenduari, onartzaile izan edo ez, konkurtso-prozesu bat irekitzen zaionean eta duen egoera eskasa dela medio, aurreratu egingo zaio erantzukizunaren eskaera. Izan ere, legeak eskubidearen titularra lehenago babestuko du, atzerabidezko eskubidea gauzatzeko unea aurreratu. Horrela, edukitzaileak, gehiago itxaron gabe, atzerabidea has dezake konkurtso-prozeduran bere eskubidea aurkeztuz.

d) *Igorlearen ziurtasunik ezak sortutako atzerabidea*. Kasu honetan, igorleak galarazi egiten du kanbio-letra onartzea (letra ez-onargarria) (KLTL 26. artikulua). Beraz, kanbio-letra ordaintzeko aukerak murriztu egiten dira, eta igorlearen kreditu-ahalmenaren menpe geratzen dira. Hori dela eta, igorleari konkurtso-prozedura irekitzen zaionean, edukitzaileak berehalako atzerabidezko eskubidea gauzatzeko aukera izango du.

3. Aldez aurretiko atzerabidearen borondatezko izaera

Aurreko egoeren artean, bigarren eta laugarren (b eta d) kasuetan hain zuzen, atzerabidea aurreratzearen aukera borondatezkoa izango da kanbio-letraren

¹² Atzerabidea hasten denean, protestoa altxatu ohi da.

edukitzailearentzat. Baina atzerabidea aurreratzea erabakitzen ez badu, letra ez da kaltetuko muga-eguna iritsi arte itxaroten badu.

III. PROTESTOA ATZERABIDEZKO ESKUBIDEARI EUSTEKO BALDINTZA

1. Edukitzailearen arduraz (diligentziaz) jarduteko baldintza

Aztertzen ari garen atzerabidezko eskubidea kanbio-zorroztasunaren ondorioa da. Horregatik, oso garrantzitsua da atzerabidezko eskubide hori noiz jaiotzen den jakitea, eta egoera horretatik dator kanbio-hartzekodunari eskatzen zaion betebeharr berezia.

Hau da, kanbio-hartzekodunak arduraz jardun behar du. Ardura- edo diligentzia-betebeharr berezi hori hau da: kanbio-letra ordaintzera muga-egunaren epean aurkeztea, eta, ordaintzen ez badiote, protesta altxatzea (KLTL 51 artikulua). Aipatutakoa egingo ez balu, atzerabidezko eskubidea galdu egingo luke (KLTL 63.2.b artikulua).

2. Protestoa

Kanbio-letra onartzen edo ordaintzen ez bada, egitate hori egiaztatutako dokumentu batean (*protesto*) jasoko da. Dokumentu hori Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 51. artikulutik 54. artikulura azaltzen diren eskakizunen arabera gauzatuko da. Protestoa ikusi ditugun egoeretatik lehenengoan eta bigarreanean nahitaezkoa izango da; beste bietan, aldiz, protesta altxatzeko beharrezkoa izango da konkurtso-espeditatea irekita egotea.

Kanbio-letraren protesto-prozedura hau da (KLTL 52 artikulua): notarioak akta bat gauzatuko du zeinetan kanbio-letra protestatua dagoela jasotzen den. Beraz, protesta dokumentu publiko batean jaso behar da. Notarioak edukitzailearen kontura jarduten du (KLTL 53. artikulua). Protestoaren adierazpena epe hauetan egin behar da: kanbio-letra onartzera aurkezten denetik 8 egunera edo muga-eguna iritsi eta handik 8 egunera (KLTL 51.3 eta 4 artikulua).

Notarioak *protestoaren adierazpena* igorpenduari pasako dio *adierazpen-zedula* delakoaren bidez. Zedula horrek kanbio-letra erreproduzitu egingo du. Adierazpen-zedula hori protesta altxatu eta handik bi egunera aurkeztuko dio notarioak igorpenduari (KLTL 52. artikulua).

Bigarren egun baliadun horretako 14:00ak arte, igorpenduak aukera izango du kanbio-letra ordaintzeko edo onartzeko, protestoaren gastuak barne. Lehenengo kasuan, hau da, igorpenduak letra ordaintzen badu, notarioak kanbio-letra eman egingo dio igorpenduak zuen betebeharra bete duela adieraziz (diligentzia). Bai ordaintzaren kasuan, bai onarpenaren kasuan, protesta bertan behera geratuko da. Baina betebeharra bete ezean, hurrengo 5 egun baliadunetan notarioak edukitzaileari bidali beharko dio kanbio-letra protestoaren kopiarekin (KLTL 53. artikulua).

3. Protestoa subrogatzea

Protesto-adierazpena ordezkatzeko duen beste adierazpena hau da: igorleak, letra igorri duenean, espresuki protesto notarialaren eskaera egiten ez badu, igorpenak kanbio-letran bertan idatzita azaldu dezakeen adierazpenak ere balio du. Adierazpen horrek kanbio-letra ez duela onartuko edo ez duela ordainduko jasoko du, data eta sinadurarekin batera (KLTL 51.2 artikulua).

Gasturik gabeko klausula barkatzea hau esan nahi du: protestoak atzerabidezko eskubidearen titularren interesak defendatzen dituzenez, bidezkoa da haiek berme horri uko egiteko aukera ematea. Beraz, protestoaren eskubideari uko egiteko, igorleak, endosu-emaileek edo horien abal-emaileek “gasturik gabeko” klausula erabil dezakete tituluan bertan (KLTL 56.1 artikulua).

Protestoa barkatzea ez du esan nahi protesta debekatu egiten denik. *Gasturik gabeko* adierazpena egon arren, edukitzaileak edo endosu-emaile batek protesta altxa dezake gastuak berak ordainduz (KLTL 56.3 artikulua).

IV. ATZERABIDEZKO ZORDUNAK ETA HAIEN ERANTZUKIZUN-MAILA

1. Atzerabidezko zordunak

Atzerabidezko zordunak edo atzerabidezko betebehardunak (erregresatarioak), Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen arabera, hauek dira: igorlea, endosu-emaileak eta haien abal-emaileak (KLTL 50.1 eta 56.1 artikulua).

Onartzailea, berriz, ez da atzerabidezko betebeharduna (KLTL 57.1 artikulua), zeren eta, betebehardun nagusia izateaz gainera, erantzule zuzena ere baita. Beraz, edukitzailearen eskubidea ezin da haren aurka ezarri, ezta kanbio-letra aurkeztu ere muga-eguna iritsitakoan. Dena den, atzerabidezko betebeharduna ez izan arren, gainerako atzerabidezko betebehardunekin solidarioki erantzungo du.

2. Atzerabidezko zordunen erantzukizun solidarioa

Kanbio-erantzukizunaren subjektu pasiboak, Kanbio Zuzenbidean ohi denez, solidarioki erantzungo dute. Hau da, kanbio-letra izenpetzen duten guztiek erantzukizun solidarioa izango dute (KLTL 57.1 artikulua). Horrek esan nahi du *erregresatarioen artean*, onartzaileaz gainera, haren abal-emailea ere sartuko dela (KLTL 37. artikulua). Doktrinak, batzuetan, *falsus procurator* delakoa ere erantzuleen artean sartzen du (KLTL 10. artikulua), eta sinadura faltsifikatzen duena ere bai (KLTL 8. artikulua).

Aurreko paragrafoan azaldu den bezala, atzerabidezko zordunen multzoak kanbio-betebehar guztien aurrean erantzungo du.

Erantzun solidarioa izateak ekarriko du edukitzaileak haien aurka egin ahal izatea, bai indibidualki, bai bateratuki. Horrez gain, erantzukizuna eskatzean, edukitzaileak ez du

hurrenkera jakin bat errespetatu behar, hau da, ez du subjektu horiek betebeharra hartu duten unea kontuan hartu behar. Edonoren kontra jo dezake (KLTL 57.2 artikulua).

Era berean, haietako baten aurka akzioa ezartzeak ez du esan nahi besteen aurka ere egiterik ez dagoenik, nahiz eta geroago ezarri (KLTL 57.4 artikulua).

Atzerabidezko zordunen kanbio-solidaritatea bat dator erantzukizun solidario zibilarekin. Hori dela eta, bi kanbio-zordun, demagun onartzailea eta igorlea, konkurtso-prozeduran erortzen badira, edukitzaileak bietatik lor dezake zorra kitatzea, hartzekodunen masaren integritate-printzipioa dela medio. Hau da, kanbio-letraren muga-eguna iritsitakoan bai onartzaileak bai igorleak 50.000 €-ko letra ezin badute ordaindu konkurtso-prozedura ireki zaielako, edukitzaileak bi konkurtsoetara jo dezake, eta batetik kobratu zati bat (% 60) eta bestetik beste zatia (% 40).

Esan dugun bezala, atzerabidezko zordunen kanbio-erantzukizun solidarioak erantzukizun zibilarekin bat dator kanporantzako arloari dagokionez, hau da, kanbio-erantzukizunak zordun bakoitzari ordainketa osoa eskatuko dio (KZ 1137. artikulua); barnealdera begira, aldiz, betebeharrak anitz egongo da, sinatzaile bakoitzari betebeharrak baitagokio.

Hori dela eta, betebeharrak bakoitzaren ordainketak ondorio desberdinak izango ditu kanbio-letraren zorra kitatzeari dagokionez (KZ 1145. artikulua). Horrela, onartzaileak egindako ordainketak soilik lortuko du betebeharra osorik iraungitzea. Gainerako kasuetan, ordainketak zorra bere osotasunean eskatzeko atzerabidezko eskubidea ematen dio ordaintzaileari (KLTL 60. artikulua). Edonola ere, ezin zaio zorraren zati bat zordun bakoitzari gotzi Kode Zibilaren 1145. artikulua egiten duen moduan.

3. Galdagarria den kopurua

Kanbio-letraren galdagarria den kopurua Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 58. artikuluan eta ondokoetan jasotzen da, eta kontzeptu hauez osaturik dago: lehendabizi, atzerabidezko zordunek ordaindu behar duten kopuru osoak; horri gehitu egin behar zaizkio diru kopuru horren redituak muga-egunetik aurrera, aurkezpen-egunetik aurrera edo ordainketaren egunetik aurrera kalkulaturik, diruaren interesa gehi bi puntu gehiago atxikiz. Eta, azkenik, izandako gainerako gastuak, protestokoak barne, gehi Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 55. artikulua jasotzen dituen komunikazioarenak, gehi banku-itzulpenaren gastuak (KLTL 58. eta 59. artikulua).

V. DIRU-ITZULKETAREN ATZERABIDEA

Atzerabidezko zordunak, kanbio-letra ordaintzen badu, edukitzailearen eskubide berbera dauka atzerabidezko zordunen aurka joateko (KLTL 57.2 eta 3 artikulua). Horrek badu bere arrazoia, zeren eta, lehen esan dugun bezala, atzerabidezko zordun baten ordainketak ez baitu kanbio-kreditua iraungitzen; egiten duen gauza bakarra zera da, datozen izenpetzaileak zorraz liberatu.

Diru-itzulketa bakoitzak kanbio-erantzukizunaren kostua asko igotzen duenez (KLTL 59 artikulua), kopuru hori gehiegi igo ez dadin, Legeak edozein atzerabidezko zorduni

zorra kitatzeko aukera ematen dio, nahiz eta demandatua ez izan. Kitatzaileak horren ordainean kanbio-letra jasoko du, protestoarekin eta erresaka-kontuarekin batera, kasuan kasuko (KLTL 60. artikulua).

Kanbio-letra atzerabidean eskuratzeak lege-subrogazio baten izaera juridikoa du (KZ 1210. artikulua) eta ez kredituaren eskuratze *ex novo* bat, Kode Zibilaren 1145. artikulua zehazten duen modura, zeren eta, lehen aipatu dugun bezala, kanbio-atzerabideak ez baitu zordun zibilen arteko atzerabide zibilak duen izaera berbera.

BIBLIOGRAFIA

DE EIZAGUIRRE, J.M., *Derecho de los Títulos-Valores*, Civitas, Madril, 2003.

13. KAPITULUA

KANBIO-ABERASTEA

I. KANBIO-ESKUBIDEAREN PRESKRIPZIOA

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 65. artikulua, kausazko akzioez gainera, kanbio-akzioak eta kanbio-aberastea ere jasotzen ditu. Arauak akzio hitza jasotzen duen arren, akzioa bera eta ordezkatzeko duen eskubide subjektiboa nahastuz, akzio horiek ez ditu ikuspegi prozesalek arautzen, ikuspegi materialetik baizik. Beraz, datozen lerroetan, aurreko kapituluetan egin dugun bezala, aipatu ditugun akzio horiek (kausazko akzioa, kanbio-akzioak eta kanbio-aberastea) ikuspegi subjektibotik aztertuko ditugu ikuspegi prozesala alde batera utziz.

Dena den, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen hitzetatik gehiegi ez bereiztearren eta ez urrutiratzeko, akzio hitza erabiliko dugu.

Era berean, aztertuko ditugun uziek (pretentsioak) berdin balio dute txekearentzat eta zor-agiriarentzat.

Zuzenbide zibilean bezala, kanbio-akzioak ere preskribatu daitezke (KZ 1961. artikulua), Legeak zehaztutako epean (KLTL 88. artikulua). Zeren eta, lehen aipatu dugun bezala, preskripzioa *Zuzenbide materialaren* instituzioa da, ez Zuzenbide prozesalarena.

Preskripzio institutuak kanbio-eskubidea iraungi egiten dela esan nahi du. Baina horrek ez du esan nahi denbora igaro izanak eskubidea iraungitzea dakarrenik, aitzitik, esan nahi du subjektu pasiboaren alde salbuespen iraunkorra sortzen dela. Salbuespen horren bidez, bai prozesuan, bai prozesutik kanpo, uziaren (pretentsioaren) aurka egin daiteke.

Salbuespenaren iraunkorraren izaera hori dela medio, subjektu pasiboak beti izango du aukera salbuespen hori ez aurkaratzeko eta betebeharra ordaintzeko. Horrek ez du esan nahi ez zegokiona ordaindu duenik. Era berean, esan beharra dago auzitegiek ofizioz ezin dutela salbuespen hori aplikatu. Uzia (pretentsioa) gauzatzeko, interesatuek eskatu behar izango dute beti. Beraz, preskripzioaren ondorio iraunkorra, Kanbio Zuzenbidean, subjektu pasiboaren eskaeraren (demandaren) ondorioa izango da.

Preskripzio-eppeak desberdinak dira subjektu pasiboen arabera:

- a) Onartzailearen aurkako kanbio-akzioa epemugatik hiru urtetara baliogabetuko da (KLTL 88.1 artikulua).
- b) Edukiztailearen akzioek endosu-emailearen eta igorlearen aurka urtebete izango dute preskribatzeko, beti ere protestoa altxatu zenetik edo horren baliokideko kanbio-adierazpenetik kontaktzen hasita. Adierazpen horiek epe barruan (egun baliiodunak) edo “gasturik gabeko” klausularen muga-egunetik kontaktzen hasita egingo dira (KLTL 88.2 artikulua). Kasu honetan, atzerabidezko zordunen kontrako akzioez ari gara.
- c) Endosu-emaile batek beste endosu-emaileen eta igorlearen aurka ezartzen dituen akzioek sei hilabete dituzte baliogabetzeko (preskribatzeko), beti ere endosu-emaileak

letra ordaindu behar zuenetik kontaktzen hasita edo haren aurka ezarritako demanda bidali zenetik kontaktzen hasita (KLTL 88.3 artikulua).

d) Abal-emaileari dagokion epea abal-hartzaileari dagokion berbera izango da (KLTL 37.1 eta 88 artikulua). Era berean, abal-emaileak ordaindutakoaren itzulketari dagokionez, onartzailearen aurkako akzioei dagokien preskripzioari dagokionez hain zuzen, nahiz eta haren abal-hartzailea izan, abal-emaileak hiru urteko preskripzio epea izango du akzioa ezartzeko. Abal-hartzailearen atzerabidezko erantzuleen aurka (erregresatarioen aurka), berriz, abal-emailearen (sekula ez da edukitzailea izango) akzioak sei hilabeteko epea dauka preskribatzeko (KLTL 88.3 artikulua).

Preskripzio-akzioa eten egingo da bakarrik demandatua izan dena akzio hori ezartzeko ere legitimaturik dagoenean; gainerakoetan, preskripzio-akzioa ez da etengo (KLTL 57.1 eta 89.1 artikulua). Hau da, zordun solidario baten aurkako preskripzioa eteteko akzioakaurkaratzen denaren gainean soilik izango du eragina, ez gainerako erantzule solidarioen gainean. Horrek esan nahi du zordun solidarioen (KATL 57.1 eta 148 artikulua) aurkako kanbio-preskripzioa eteteko akzioa ez datorrela bat Zuzenbide Zibilaren preskripzioa eteteko akzioarekin, zeren eta zordun solidario baten aurkako preskripzioa eteteko akzioak eragin berbera izango baitu gainerako artean (KZ 1141.2 eta 1974.1 artikulua).

II. KANBIO-ABERASTEA

Kanbio-letraren muga-eguna baino lehen ezar daitezkeen akzioez eta kanbio-akzioez gainera [akzio arrunta eta akzio betearazlea (exekutatzailea)], hartzekodunak muga-eguna iritsitakoan eta kasuan kasuko, protestoa altxatuta, beste bi akzio ere ezar ditzake: kausazko akzioa eta bidegabeko aberastearen akzioa. Biek eskakizun desberdinak dituztenez, komeni da biak banaturik aztertzea. Ondoko lerroetan, bidegabeko aberastearen akzioari buruz jardungo dugu.

Bidegabeko aberastearen akzioa

Edukitzaileak, kanbio-letra kobratzen ez duenean, bi aukera ditu dirua berreskuratzeko. Batetik, aipatu ditugun kanbio-akzio biak aurkaratzea, eta, bestetik, kausazko akzioa soilik aurkaratzea. Hala ere, bai lehenengo kasuan, bai bigarrean, ordenamendu juridikoak kanbio-letra kaltetua ez izatea eskatzen du.

Kanbio-letra kaltetua hau da: hartzekodunak atzerabidezko zordunen aurrean letra onartzera edo ordaintzera ez aurkeztea, edo letra ez protestatzea dagokion epearen barruan eta eskatzen den forman.

Beraz, kanbio-letra kaltetua gertatuz gero, arduragabeko edukitzaileak, ordainketa eskuratzeko, ezin izango du aurkaratu kanbio-akziorik, ezta kausazko-akziorik ere atzerabidezko zordunen kontra. Hori dela eta, edukitzaileak kalte handiegia jasoko du bere arduragabekeria dela medio, eta, une berean, beste kanbio-subjektu batek aberaste bidegabekoa izango du ondarean, zeren eta une jakin batean kanbio-letraren balio ekonomikoa jasoko baitu.

Horrelako egoeretan, kanbio-letra kaltetua denean (letra baliogabetua suertatzen denean protestoa edo antzeko kanbio-adierazpenik egin gabe), ordenamendu juridikoak

edukitzaileari bidegabeko kanbio-aberastearen akzioa ematen dio. Akzio horren bidez, edukitzaileak bere eskubidea gauza dezake. Edukitzaileak, halaber, bidegabeko kanbio-aberastearen akzioa erabil dezake zuzeneko akzioa galtzen duenean onartzailearen aurka.

Bidegabeko kanbio-aberastearen akzioak Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 65. artikulua du oinarri. Tresna juridiko horren bidez, edukitzaile batek bidegabeko aberaste-akzioa ezar dezake kanbio-akzioa galtzen duenean atzerabidezko betebehardun guztien aurka, kanbio-betebeharrak eskatzen dituen baldintzak bete ez dituelako eta kausazko akziorik gauzatzerik ez duelako.

Doktrinarentzat, oro har, bidegabeko aberastearen akzioaren izaera ez dator bat kanbio-akzioen izaerarekin. Zeren eta, Legeak berak kanbio-akzioetatik desberdindu egiten baitu akzio hori (KLTL 65.1 eta 2 artikulua). Adituentzat, esan daiteke akzio estrakanbiarioa letra kaltetu bati lotua¹³ dagoela.

Bidegabeko kanbio-aberastearen akzioa aurkaratzeari buruz, baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Batetik, akzio hori bakarrik aurkaratu daiteke letra kaltetua denean edo zuzeneko akzioa galtzen denean onartzailearen aurrean. Azken kasu horretan, akzioa galtzea preskripzioaren kasuan bakarrik gertatuko da. Beraz, edukitzaileak ez du ez kanbio-akziorik ezta kausazko-akziorik ezarriko (KLTL 65. artikulua).

Bigarrenik, ezin da edonoren aurka ezarri. Hau da, igorle baten, onartzaile baten edo endosu-emaile baten aurka soilik eragin daiteke, zeren eta horiek baitira ez-bidezko aberastasuna izan dutenak. Horiek soilik kobratu baitute kanbio-letraren diru-kopurua titulua kaltetua denean eta letraren betebeharra liberatu denean. Hau da, letra-hartzaileak edo endosu-emaileak letra eskualdatzen dute, eta kobratzen dute letraren balioa aurretik ezer ez ordainduz, letra kaltetua izan baita.

Onartzailearen aurka, berriz, zaila izango da bidegabeko aberastearen akzioa aurkaratzea. Izan ere, horren aurka edukitzaileak kanbio-akzio guztiak ditu letraren balioa eskatzeko. Aldiz, onartzailearen aurka ezarriko da kanbio-akzioa baliogabetu (preskribatu) denean eta kausazko akzioa galdu denean soilik.

Hirugarrenik, edukitzaileak frogatu egin behar du kanbio-betebehardunak aberastu direla.

Laugarrenik, bidegabeko aberaste akzioaren eskaera (*petitum* delakoa) diru kopuru bat izango da, baina ez letran azaltzen den kopurua, baizik eta akzioaren subjektu pasiboak izandako bidegabeko aberaste kopurua (KLTL 65.2 artikulua).

Azkenik bidegabeko aberastearen akzioak hiru urteko baliogabetze-epa (preskripzio-epa) izango du edukitzailearen alde, kanbio-letra kaltetzearen eta preskribatzearen ondorioz kanbio-akzioa iraungi zenetik kontatzen hasita.

¹³ BROSETA PONT, M. – MARTÍNEZ SANZ, F., *Manual de Derecho Mercantil*, II, Tecnos, 2008, 474. orria eta ondokoak.

BIBLIOGRAFIA

DE EIZAGUIRRE, J.M., *Derecho de los Títulos-Valores*, Civitas, Madril, 2003.

BROSETA PONT, M. – MARTÍNEZ SANZ, F., *Manual de Derecho Mercantil*, II, Tecnos, 2008.

14. KAPITULUA

TXEKEA ETA ZOR-AGIRIA

I. TXEKEA

A) Kontzeptua

Txekea balore-titulu bat da, igorlearen ordainketa-hitzemate bat jasotzen duena pertsona jakin baten edo tituluaren eramaile huts baten alde. Hitzemate hori igorleak beteko du, aldez aurreko kontratuan eta duen diru-erabilgarritasunean oinarrituta, bere bankuari ematen dion ordainketa-aginduaren bitartez.

Agiri hau, kanbio-letra bezala, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legean dago arautua (106. artikulutik 167. artikulura). Txekea kanbio-letraren pare jartzen da; horrek justifikatzen ditu letraren eraentzara egiten diren etengabeko igorpenak. Hala ere, lehen gerturatze honetan, desberdintasun nagusi gisa honako hauek azpimarra daitezke: txekea, ezinbestez, ikustean ordaintzeko igorri behar dela; igorpenduak banku bat izan behar duela beti; ezin dela onartua izan —hortaz, igorpendua ezin da kanbio-betebehardun izan—; eta, kanbio-judiziora jotzeko, ez dela inprimaki ofizialean bete behar.

Horregatik, kanbio-letrarekin konparaturik, oso argi ikusten da txekearen funtzioa. Kanbio-letra, oro har, kreditu-tresna bat da (haren igorpenaren eta muga-egunaren artean epe bat, gutxi gorabehera, baitago, eta, bitartean, kanbio-zordunak kredituaren erabilgarritasuna du); txekea, berriz, ikustean ordaintzeko igortzen da. Horregatik, txekearen funtzio normala zor zehatzen ordainketa-tresna izatea da. Zentzu horretan esan da kanbio-letra bat erabiltzen duenak dirua behar duela, eta txeke bat igortzen duenak, berriz, dirua duela.

B) Baldintza formalak eta materialak

1. Baldintza formalak

Txekea, kanbio-letra bezala, titulu formala da; hortaz, baliozkoa izango bada, baldintza zehatz batzuk bete behar ditu. Aipamenak, Legean ezarritakoak —106. artikuluan—, honako hauek dira:

1. «Txekea» izena, tituluaren testuan bertan txertatua eta titulu hori idazteko erabili den hizkuntzan adierazia.
2. Eurotan edo kotizazio ofizialean onartzen den atzerriko moneta bihurtzeko zehaztutako diru kopurua ordaintzeko agindu hutsa. Txekearen zenbatekoa letraz zein zenbakiz agertzen bada eta ezberdinak badira, baliozkoa izango da letraz idatzitakoa. Eta zenbatekoa hainbat alditan idatzita diru kopuru ezberdinak agertuko balira, baliozko

zenbatekoa diru kopururik txikiena izango da (115. artikulua).

3. Ordaindu behar duenaren —igorpendua— izena; derrigor bankua izango da.

4. Ordainketa-lekua, nahiz eta aipamen hori nahitaezkoa ez izan: «Bestelakorik adierazi ezean, igorpenduaren izenaren ondoan aipatutako lekua ordainketa-lekutzat joko da. Adierazpen horiek izan ezean, txekea eman den lekuan ordaindu beharko da, eta, igorpenduak bertan inolako establezimendurik ez badauka, igorpenduak establezimendu nagusia daukan lekuan» (107. artikulua).

5. Txekea egin den data eta lekua. Igorpen-lekua adierazten ez duen txekea igorlearen izenaren ondoan agertzen den lekuan sinatu dela ulertuko da (107. artikulua).

6. Txekea egiten duenaren —igorlearen— sinadura.

Hautazko klausulatzat joko dira aurretik adierazitakoak ez diren eta txekean agertzen diren aipamen guztiak.

Aipamen hauen eta Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 1. artikuluan ezarritako aipamenen arteko konparaketa eginez gero, ikusten dugu muga-egunaren eta eskuratzailaren aipamena falta dela; hori horrela da txekeak ez duelako muga-egunik, edo, nahi izanez gero, muga-egunera iritsita jaiotzen delako, eta eramailearentzako txekea onartzen delako.

2. Baldintza materialak

Baldintza hauei egiten die erreferentzia Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 108.1 artikulua: «Txekea igorlearen eskura fondoak dituen banku edo kreditu-erakunde baten aurka igorri behar da, isilbidezko edo esanbidezko akordio baten arabera; akordio horrek xedatuko du igorleak fondo horiek erabiltzeko eskubidea daukala, txekearen bidez». Beraz, baldintzak honako hauek dira: fondo-hornidura (banku-igorpenduaren aurka igorleak duen diru-kreditu bat) eta, txekearen bitartez, erabilgarritasun-ituna. Betekizun horiek falta izateak —igorpenduak bankua edo kreditu-erakundea izan beharra alde batera utzita— tituluaren baliozkotasunean ez du kalterik eragingo (nahiz eta betekizun horiek falta izan, aipatutako salbuespena ez ezik, titulua baliozkoa izango da txeke gisa). Dena den, betekizun horiek batera gertatzea garrantzitsua da, zeren eta bestela igorpendua ez baita egongo titulua ordaintzera behartuta (108.2 artikulua: «Behar bezala egindako txekea kobrantzara aurkezten duen unean, igorlearen eskura fondoak dituen igorpendua ordaintzera behartuta egongo da. Hornidura partziala bakarrik badauka, zenbateko hori eman beharko du»).

C) Txekearen parte-hartzaileen kokapen juridikoa

1. Sarrera

Txekearen parte-hartzaileak, eskuarki, hiru subjektu dira: igorlea, txekea egiten duena,

igorpendua, txekea ordaindu behar duena, eta edukitzailea, titulua kobratzeko eskubidea duena.

2. Igorlearen eta igorpenduaren arteko harremanak

Harreman hori txeke-kontratutik ondorioztatzen da. Igorlearen eta igorpenduaren arteko iraupenezko harremana sortzen da, lehenengoak bigarrenaren aurka txekeak egiteko aukerarekin eta bigarrenak txeke horiek ordaintzeko beharrarekin, txekeak behar bezala egindakoak izanez gero eta igorpenduaren eskura fondo nahiko izanez gero ordainketa egiaztatzeko.

Harreman horretatik ondorioztatzen den arazo nagusia da jakitea nori dagokion txeke faltsuagatik ordainketaren erantzukizuna. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 156. artikuluan, kontu horri dagokionez, honako hau esaten da: «Txeke faltsu edo faltsutu baten ordainketatik sortzen den kaltea igorpenduari egotziko zaio, txekeen taloitegia zaintzean igorlea arduragabea izan edo erruz jardun ezean». Egia da artikulua horrek oinarria ezartzen duela igorpendua bere erantzukizunetik liberatua geratzeko. Era berean, doktrinak eta jurisprudentziak, lanbide-arriskuaren irizpidean oinarrituta, igorlearen arduragabekeria edo jokabide erruduna denean¹⁴ soilik liberatzen dute banku-igorpendua.

3. Igorlearen eta edukitzailearen arteko harremanak

Haien artean dagoen kausazko kontratuan oinarritzen dira, eta lehenengoak bigarrenari ordaindu behar dio. Dena den, Kode Zibileko 1170.2 artikulua arabera, txekea ordainketa-bide bat da, baina ez du ordainketaren ondoreak sortzen (txekea emateak ez du zorra iraungitzen agiria diru bihurtu arte). Bitartean, jatorrizko betebeharrak eratorritako akzioa etenda geratuko da.

Txeke baten igorleak ordainketa bermatuko du; beraz, ulertuko da ordainketaren bermetik igorlea salbuesten duen edozein klausula ez dela idatzi. Horrela, kanbio-letraren igorleak duen kokapenarekin bat dator. Onarpenaren bermetik salbuets daiteke, baina ez ordainketaren bermetik (111. artikulua). Hori ez betetzeak, kanbio-erantzukizuna sortzeaz gainera, izaera zibileko diru-zigorra eragiten du, zeren eta igorpenduaren eskura fondo hornidurarik izan gabe txekea bertan adierazitako diru kopuruagatik ematen duen igorleak, aipatutako dirukopuruaz gain, txekean estali gabeko zenbatekoaren % 10 eta kalte-galeren ordaina eman beharko baitizkio edukitzaileari (108.3 artikulua).

4. Banku-igorpenduaren eta edukitzailearen arteko harremanik eza

Txeke bat jaulkitzen denean ez da inolako harremanik sortzen banku-igorpenduaren eta edukitzailearen artean. Harreman hori ez da sortuko ondorengo kanbio-adierazpen

¹⁴ Madrilgo Probintzia Auzitegiaren Epaia, 2002ko ekainaren 13an, LA LEY 111774/2002; Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren Epaia, 2003ko ekainaren 3an, LA LEY 3143/2003.

batetik ere, txekea ezin baita onartua izan. Hala ere, txeke-kontratua dela eta, behar bezala egindako txekea kobrantzara aurkezten denean (legezko epean aurkezten bada), igorlearen eskura fondoak dituen igorpendua ordaintzera behartuta dago.

D) Txekearen zirkulazioa

Edozein balore-titulu bezala, txekea agiri transmitigarria da. Hala ere, ikustean ordaintzeko igortzen dela ikusirik eta bere aurkezpen-epe laburra kontuan harturik (oro har, hamabost egun), esan daiteke transmitigarri izate horrek ez daukala erabilgarritasun handirik.

Haren zirkulazio-erregimena titularra izendatzeko formaren arabera egongo da (Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 120. artikulua):

a) Eramailearentzako txekea emanez edo tradizioz eskualdatuko da. Eramaile hutsa legitimaturik dago igorpenduari ordainketa eskatzeko.

b) Pertsona jakin baten alde egindako txekea, “agindurakoa den” klausula daukana zein ez daukana, endosuaren bidez eskualda daiteke. Hau da, txekean endosuaren baldintza tipikoak idatziz eta endosu-hartzaileari emanez.

c) Pertsona jakin baten alde egindako txekea, “agindurakoa ez den” klausula edo baliokidea duena, lagapen arrunt baten forman eta ondoreak sortuta baino ezin da eskualdatu.

Legeak arautzen duen eskualdatze-forma endosua da, eta kanbio-letraren antzeko hitzak erabiliz arautzen du, honako berezitasun hauekin:

1. Elementu pertsonalei dagokienez, endosu-emailea txekearen titularra den edonor izan daiteke. Horregatik, kanbio-letrarentzat ezarririkoa ez bezala (14.3 artikuluan: «Endosua igorpenduaren (onartu duen ala ez kontuan hartu gabe), igorlearen edo letran behartutako beste edozein pertsonaren alde egin ahal izango da. Pertsona horiek guztiak berriro endosatu ahal izango dute»), igorpenduak egindako endosua deuseza izango da, ordezkari edo mandatari moduko bat bezala jokatzeko baitu. Endosua igorlearen edo beste edozein betebehardunen alde egin daiteke. Pertsona horiek txekea berriro endosatu ahal izango dute (120.4 artikulua).

2. Legeak ez du aurreikusten “bermetarako” txeke bat endosatzeko aukera, kanbio-letraren kasuan bezala (22. artikulua). Dударik gabe, txekea noiznahi ordainketarako aurkeztu ahal izateak murriztu egiten du mota horretako endosu baten zentzua.

3. Legeak onartzen du eramailearentzako txekea endosuaren bitartez eskualdatua izatea; endosu-emaileari egozten dio bere jokabidearen ondoreak, eta atzerabidean erantzule egiten du (123. artikulua: Endosua txekeetik ondorioztatutako eskubide guztiak eskualdatuko ditu).

4. Endosuaren uneari dagokionez, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 23. eta 130. artikuluen arteko desberdintasuna azpimarratu behar da. 23. artikulua kanbio-letrari dagokio, eta zera dio: «Muga-egunaren ondoko endosuak, onartzaileak egin ezin duenak, aurreko endosu baten ondore berdina sortuko ditu. Hala ere, ordainketarik ezagatiko protestoareneko edo adierazpen baliokidearen edo protesta egiteko ezarritako epearen muga-egunaren ondorengo endosuak lagapen arrunt baten ondore berdina sortuko ditu». 130. artikulua txekeari dagokio, eta zera dio: «Protestoareneko edo adierazpen baliokidearen ondorengo endosuak eta aurkezpen-epea amaitu ondorengo endosuak lagapen arrunt baten ondore berdina sortuko dituzte». Erregulazioak antzekoa dirudi, baina ez da horrela; kanbio-letra kreditu-tresna bat den heinean, txekea ordainketa-tresna bat da, muga-egunera iritsita jaiotzen dena. Horregatik, txekea endosatze denbora-muga ordainketarako aurkezpen-epearena da, aurkezpen-epea bukatu aurretik eta ondoren protesta egiten ez bada behintzat, zeren eta kasu horretan denbora-muga laburtu egingo baita 130. artikuluan ezarritakoaren arabera: «aurkezpen-epea amaitu ondorengo endosuak lagapen arrunt baten ondore berdina sortuko ditu. Bestelako frogarik egon ezean, ulertuko da datarik gabeko endosua protestoareneko edo adierazpen baliokidearen aurretik edo aurreko paragrafoak aipatzen duen epea amaitu baino lehen egin dela».

E) Txekearen aurkezpena eta ordainketa

1. Aurkezpenaren eraentza

Txekea “ikustetik” ordaintzekoa da, hau da igorpenduari aurkezten zaionean ordaindu behar da; horregatik, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 134. artikulua honako hau ezartzen du: «Igorpen-data gisa adierazitako egunaren aurretik ordaintetara aurkeztu den txekea aurkezpen-egunean izango da ordaintzekoa».

Aurkezpena, Legeak (135. artikuluan) ezarritako epe laburretan egin beharko da: «Espainian eman eta ordaintzekoa den txekea ordaintetara aurkeztu beharko da, hamabost eguneko epean. Atzerrian eman baina Espainian ordaintzekoa den txekea ordaintetara aurkeztu beharko da, hogeita eguneko epean, Europan eman bada, eta, hirurogeita eguneko epean, Europatik kanpo eman bada. Aurreko epeak txekean igorpen-data gisa adierazitako egunetik aurrera zenbatuko dira, egun baliogabeak baztertu gabe. Dena den, muga-eguna egun baliogabea bada, txekea hurrengo egun baliogabean irautzen dela ulertuko da».

Aurkezpen-epearen barruan, fondoak dituen banku-igorpenduak ordainketa egiten behartuta dago, baita txekearen ezeztapen-kasuan ere (138.1 artikulua: Txeke baten ezeztapenak ez du ondorerik sortuko, aurkezpen-epea iraungi arte»). Aurkezpen-epea igarota, banku-igorpenduak txekea ordaintzeko ahalmena izango du, igorlearen ezeztapenik ez badago (138.2 artikulua: «Ezeztapenik ez badago, igorpenduak epe hori iraungi ondoren ordaindu ahal izango du»). Logikoa denez, ez igorlearen heriotzak, ez gerora sortutako ezintasunak, ez dute txekearen eraginkortasuna aldatuko (139. artikulua).

2. Ordainketaren eraentza

Kanbio-letran bezala, arau berdinak aplikatzen dira, eta igorpenduaren kokapen berezia azpimarra daiteke. Igorpendua ez da kanbio-betebeharduna, eta txekea ezin du onartu; ostera, behar bezala egindako txekea kobrantzara aurkezten den unean igorlearen eskura fondoak baditu, ordaintzera behartuta dago, eta hornidura partziala bakarrik badauka, zenbateko hori eman beharko du.

Behin banku-igorpenduak txekea ordainduta, kanbio-letrarekin gertatzen den bezala, ulertuko da igorlearen, endosu-emaileen eta abal-emaileen kanbio-betebehar guztiak iraungitzen direla. Ordaintzen ez badu, berriz, txekearen sinatzaileen kanbio-erantzukizuna sortuko da, atzerabidezko akzioarekin soilik galdagarria izango dena. Atzerabidean dagoen betebehardun batek ordainduz gero, ondorengo sinatzaile guztiak liberatuko ditu; beraz, igorleak ordaintzen badu, denak aske utziko ditu.

F) Edukitzailearen akzioak ordainketarik ezagatik

Txekea ezin denez onartua izan, ez dago onartzailearen aurkako zuzeneko kanbio-akziorik; beraz, akzio guztiak atzerabidezkoak dira. Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 146. artikulua honako hau ezartzen du: «Edukitzaileak bere atzerabidezko akzioa gauzatu ahal izango du endosu-emaileen, igorlearen eta gainerako obligaziodunen aurka». Betebehardun guztien aurka, igorlearen aurka izan ezik, atzerabidezko akzioa gauzatu ahal izateko txekea denbora baliozkoan aurkeztu izana eta ordainketarik eza honako baliabide hauetako baten bidez egiaztatzea eskatzen da: notario-protestoa, igorpenduaren adierazpena, data duena, txekean idatzi dena eta aurkezpen-eguna adierazten duena, edota Ganbera edo Konpentsazio-sistema baten adierazpena, data duena eta txekea denbora baliozkoan aurkeztu arren ez dela ordaindu agerrarazten duena.

Igorleak kanbio-letra baten onartzailearen antzeko forman erantzuten du. Horregatik, edukitzaileak bere eskubideak gordeko ditu igorlearen aurka, nahiz eta txekea behar bezala ez aurkeztu, protestoa ez egin edo adierazpen baliokiderik ez gauzatu. Hala ere, 146. artikulua azken paragrafoak ezartzen duenez: «Aurkezpen-epea igaro ondoren igorpenduaren kaudimengabezia dela-eta fondoaren hornidurarik ez badago, edukitzaileak aipatutako eskubideak galduko ditu».

Protestoa edo adierazpen baliokidea aurkezpen-epea iraungi baino lehen egin behar da. Aurkezpena epearen azken zortzi eguneko epearen barnean egiten bada, protestoa edo adierazpen baliokidea aurkezpenaren ondorengo hurrengo zortzi egun baliodunetan egin ahal izango da (147.1 artikulua). Gainerakoan, titulu horren izaerarekin bateraezinak ez badira, txekeari protestoaren, jakinarazpen-beharraren eta “gasturik gabeko” edo “protestorik gabeko” klausularen gaineko 51. artikulutik 56. artikulura artean kanbio-letrari buruz bildutako xedapenak aplikatuko zaizkio.

Kanbio-letran bezala, txekearen edukitzaileak kausa- eta kanbio-akzioak galdu izan

baditu, aberaste-akzioaren bitartez erreklamatu ahal izango du.

Txekean, preskripzio-epetegi dagokienez, Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 157. artikulua honako hau ezartzen du: «Edukiztaileak endosu-emailearen, igorlearen eta gainerako obligaziodunen aurka gauza ditzakeen akzioak sei hilabetera preskribatuko dira, aurkezpen-epetegi amaitzen denetik zenbatuta. Txeke bat ordaintzera behartuta dauden pertsonak beren artean gauza ditzaketan akzioak sei hilabetera preskribatuko dira, obligaziodunak txekea ordaindu duen egunetik edo haren aurka akzioa gauzatu denetik aurrera zenbatuta».

G) Txeke bereziak

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen araututako txeke bereziak, alde batetik, txeke zeharkatua eta kontuan ordaintzeko txekea dira, txekearen titular legitimoa ez den pertsonari ordainketa saihesteko erabiltzen direnak; eta, bestalde, txeke bermatua, igorpenak ordainketa egingo duela ziurtatzeko erabiltzen dena.

1. Txeke zeharkatua

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 143. eta 144. artikuluetan arautzen da. Lehenengoak txeke zeharkatuen kontzeptua eta motak ezartzen ditu; bigarrenak, berriz, txekearen zeharkatzeak eragiten dituen ondore juridikoak arautzen ditu.

Txeke baten igorleak edo edukiztaileak aurrealdean bi marra paralelo jarriz zeharkatu ahal izango du. Txeke zeharkatua orokorra edo berezia izan daiteke. Marren artean inolako aipamenik ez badauka edo “banku” eta “konpainia” aipamena edo hitz baliokidea agertzen bada, txekea orokorra izango da. Marren artean banku jakin baten izena idazten bada, txekea berezia izango da. Lehenengo kasuan (zeharkatze orokorra daukan txekea) igorpenak banku bati edo bere bezero bati bakarrik ordaindu ahal izango dio. Bigarren kasuan (zeharkatze berezia daukan txekea) igorpenak hautatutako bankuari bakarrik ordaindu ahal izango dio, eta banku hori baldin bada igorpenak, haren bezero bati. Hala ere, hautatutako bankuak beste banku baten esku utz dezake txekearen kobrantza (144. artikulua).

2. Kontuan ordaintzeko txekea

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 145. artikuluan arautzen da: «Txekearen igorleak edo edukiztaileak eskudirutan ordaintzea galarazi ahal izango du, atzealdean zeharka “kontuan ordaintzeko” aipamena edo adierazpen baliokidea idatziz». Kasu horretan, igorpenak edukiztailearen kontuan egiten duen idazpena ordainketaren baliokidea da.

Aurreko xedapenak betetzen ez dituen igorpenak edo bankuak izango da eragindako kalteen erantzuleak, txekearen zenbatekoan, gehienez.

3. Txeke bermatua

Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legearen 110. artikuluan arautzen da. Igorpenduak txekean sinatutako “ziurtatua”, “ikus-onetsia”, “ados” edo antzeko aipamenak jartzeak ez du txekearen onarpena egiaztatzen —109. artikulua debekatzen duena—, klausula horrek igorpenduak ordainketa egin dezan zenbait berme ematen badu ere. Hain zuzen, ezarritako edo antzeko aipamenak jartzeak txekearen egiazkotasuna eta igorlearen kontuan behar beste fondo egotea egiaztatzen ditu. Horretarako, igorpenduak txekea aurkeztean ordaintzeko behar den diru kopurua gordeko du, aipamenean ezarritako epea edo, horrelakorik izan ezean, 135. artikuluan ezarritakoa bukatu arte. Logikoa denez, adostasunak data adieraziko du, eta ezeztatzea izango da.

II. ZOR-AGIRIA



AURREALDEA

ATZEALDEA

Honako honen abal legez:

-(e)ko -aren -(a)

Abal-emailea (izen-abizenak) eta helbidea:

[Abal-emailearen sinadura]

Ordaindu honako honi:

-(e)n, -(e)ko -aren -(e)(a)n

Endosatzailea (izen-abizenak) eta helbidea:

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Albácar López, «El Cheque en la nueva Ley Cambiaría», *La Ley*, 1986-1, 1194-1204. or.

Carlón, L., «El cheque», *Derecho cambiario*, op. cit., 737. or. eta hurrengoak.

Climent Durán, C., «La responsabilidad bancaria por el pago de cheques falsificados», *Revista General de Derecho*, 596, 1994, 4947. or. eta hurrengoak.

Gómez Segade, J.A., «La confirmación telefónica de cheques», *Estudios Verdera*, II. Liburukia, 1197. or. eta hurrengoak.

Marina García-Tuñón, A., *La responsabilidad por el pago de cheque falso o falsificado*, Valladolid, 1993.

Sánchez-Calero Guilarte, J., «Pago del cheque falso: negligencia del banco y del titular de la cuenta», *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 35, 1989, 641. or. eta hurrengoak.

Vergez, M., «La responsabilidad del banco frente al tenedor del cheque», *Estudios Verdera*, III. Liburukia, 2723. or. eta hurrengoak.

KASU PRAKTIKOA

Merkataritzako baltzu baten kudeatzaileak zure bulegora jotzen du txekak jaulkitzearen inguruan sortu zaizkion zalantzak argitu nahian:

- 1) Zer esan nahi du txekoa “ikustetik” ordaintzekoa dela? Jakin nahi du, halaber, igorpen-data gisa adierazitako egunaren aurretik ordainketara aurkezten den txekoa bankuak ordaindu behar duen ala ez.
- 2) Txekoa aurkezteko zer epe du edukitzaileak? Zer datatatik zenbatuko da epe hori?
- 3) Ordainketarik ezagatiko zer akzio erabil ditzake edukitzaileak? Zein dira baldintzak akzio horiek ez galtzeko?
- 4) Aipa iezaizkiozu zer neurri erabil ditzakeen txekearen titularra ez den pertsona bati txekoa ordaintzea saihesteko.
- 5) Zer da txekere bermatu bat? Txekere bermatua eta txekere onartua baliokideak al dira?

Ondoren, eta zor-agiriari dagokionez, honako zalantza hauek ditu:

- 1) Zor-agiri bat jaulki daiteke ikustetik epe zehatz batera? Horrela bada, eta onarpenik ez dagoenez, noiztik zenbatzen da muga-eguna ezartzeko epea? Zer egin daiteke sinatzaileak laguntzen ez badu?
- 2) Zor-agiria, ordainketarako, nori eta zer epetan aurkeztu behar da?
- 3) Hartzekodunak ordainketarik ezagatiko zer akzio erabil dezake? Zein dira baldintzak akzio horiek ez galtzeko?

TERMINOLOGIA

Abal-emaile: avalista
Agindura: a la orden
Agindurakoa ez den klausula: cláusula “no a la orden”
Agindurako titulu: título a la orden
Ahalordez: por poder
Ahalordetze-endosu: endoso de apoderamiento
Akzio: acción (demanda)
Atzealdea: dorso
Atzerabidezko akzio: acción o vía de regreso
Atzerabidezko zordun: deudor de regreso o regresatario
Xedatze-ahalmen: facultad dispositiva
Aurrealde: anverso
Prebentziozko embargo: embargo preventivo
Prozedura Zibilaren Legea: Ley de Enjuiciamiento civil
Bahitura: prenda
Baliozkotasun-salbuespenak: excepciones de validez
Balutaren hornidura: suministro de valuta
Birdeskontu: redescuento
Benetako eskubidearen itxura: apariencia jurídica
Norberaren agindura: a la propia orden
Bermatzaile: garantista
Berme-letra: letra de garantía
Bidegabeko aberaste: enriquecimiento injusto
Bikoiztu: duplicado
Deskontu: descuento
Deusez: nulo
Deuseztasun: nulidad
Deuseztagarri: anulable
Deuseztagarritasun: anulabilidad
Edukitzaile: tenedor
Egozgarritasun-salbuespen: excepción de imputabilidad
Egozpen: imputación
Emate-kontratu: contrato de entrega
Endosu: endoso
Endosu-emaile/endosatzaile: endosante
Endosu-hartzaile: endosatario
Endosu-kate: cadena de endosos
Endosu mugatu (partziala): endoso limitado
Endosu zuri: endoso en blanco
Betearazte-eraginkortasun: Eficacia ejecutiva
Eratorritako eskuratze: adquisición derivativa
Eranskin: suplemento
Itzultze-endosu: endoso de retorno
Erreskate-titulu: título de rescate
Betekizun: requisito
Eskualdatu: transmitir
Eskumenik ez: falta de competencia

Esku-hartze: intervención
 Esku-hartzeagatiko onarpen: aceptación por intervención
 Ezkutuko ahalordetze-endosu: endoso de apoderamiento encubierto
 Salbuespen: excepción
 Salbuespen baztergarriak: excepciones excluibles
 Salbuespen ez-baztergarriak: excepciones no excluibles
 Faltsifikatze: falsificación
 Faltsutze: falsedad
 “Gasturik gabe” klausula: cláusula “sin gastos”
 Hartzaile: tomador
 Harpidedun: suscriptor
 Helbideratze-klausula: cláusula de domiciliación
 Hornidura-lagapen: cesión de la provisión
 Horniduraren gaineko eskubideen eskualdatze-klausula: cláusula de “cesión de derechos de provisión”.
 Igorri: librar
 Igorle: librador
 Igortzaile: librador
 Igorpendu: librado
 Ikustetik: a la vista
 Ikustetik epe zehatz batera jaulkitako letra: letra emitida a un plazo desde la vista.
 Izaera egikaritzeaile: naturaleza constitutiva
 Jakinarazpen: notificación
 Kanbio-judizio: juicio cambiario
 Kanbio Letra eta Txekeari buruzko Legea: Ley Cambiaria y del Cheque
 Kanbio-adierazpen: declaración cambiaria
 Kanbio-kalte: perjuicio cambiario
 Kanbio-letra: letra de cambio
 Kobrantza-komisio: comisión de cobranza
 Kobrantza-kudeaketa: gestión de cobro
 Kopia: copia
 Largetsi/artxibatu: sobreseer
 Letra kaltetu: letra perjudicada
 Eramaillearentzako letra: letra al portador
 Letra ez-onargarri: letra no aceptable
 Letra informal: letra informal
 Letra zuri: letra en blanco
 Letraren gehigarria: suplemento de la letra
 Letraren osaketa arbitrarioaren salbuespen: excepción de completamiento arbitrario de la letra.
 Luzapenezko salbuespen: excepción dilatoria
 Mesedeko sinadura: firmas de favor
 Mesede-emaille: favorecedor
 Mesede-hartzaile: favorecido
 Mesede-itun: pacto de favor
 Mesede-letra: letra de favor
Mortis causa oinordetza: sucesión universal
 Mugaegun: vencimiento
 Mugaegunetik epe batera: a un plazo desde la fecha
 Mugatutako endosu: endoso limitado

Onartzaile: aceptante
Ordainagiri: recibo
Zor-agiri: pagaré
Kobrantzako balio: valor al cobro
Ordainketaren izendapen-klausula: cláusula de nombramiento de pago
Ikustean ordaintzeko: pagadera a la vista
Ikustetik epe batera ordaintzeko: pagadera a un plazo desde la vista
Letra osagabe: letra incompleta
Osatze-itun: pacto de completamiento
Osoko endosu: endoso pleno
Protesto: protesto
Protesto-klausula: cláusula de “protesto”
Prozedura: procedimiento
Eskualdatu: transmitir
Xedatzaile: dispositivo
Zorra eskuordetze: delegación de deuda